ORMAIZTEGI

1860-1970

Ormaiztegiko herriari eskeinia

Millan

ORMAIZTEGI 1860-1970

II

Artisauak eta merkatariak
Artesanos y comerciantes

Xabier Irizar Asurabarrena
Zeles Otamendi Jauregi

Millan Irizarren Eskutik Kultur Elkartea
ORMAIZTEGI, 2013

ORMAIZTEGI 1860-1970, II. ARTISAUAK ETA MERKATARIAK
ORMAIZTEGI 1860-1970, II. ARTESANOS Y COMERCIANTES

ARGITARATZAILEA / EDITOR
© MILLAN IRIZARREN ESKUTIK KULTUR ELKARTEA

EGILEAK / AUTORES
XABIER IRIZAR ASURABARRENA
ZELES OTAMENDI JAUREGI

LAGUNTZAILEAK / COLABORADORES
IDOIA IRIZAR ASURABARRENA
IMANOL IRIZAR INTXAUSTI
ANDER IURRITA OÑATIBIA

ITZULPENA / TRADUCCIÓN
ESKURA ITZULPEN ZERBITZUA, S.L.

DISEINUA ETA MAKETAZIOA / DISEÑO Y MAQUETACIÓN
IBON ELGARRESTA SEGUROLA

KOORDINAZIO TEKNIKOA ETA INPRESIOA / COORDINACIÓN TÉCNICA E IMPRESIÓN
IPAR, S.L.

DATA / FECHA
2013, IRAILA / SEPTIEMBRE, 2013

ISBN ZENBAKIA / NÚMERO ISBN
978-84-616-5569-4, (Lan osoa / Obra completa)
978-84-616-5684-4, (II. liburukia / tomo II)

LEGE-GORDAILUA / DEPÓSITO LEGAL
SS-1124-2013

Ormaiztegi 1860-1970. -- Ormaiztegi : Millan Irizarren Eskutik Kultur Elkartea, 2013.
2 libk.

Edukia: I. Industrializazioaren garapena = Proceso de industrialización / Norberto Ibáñez Ortega, Xabier Irizar Asurabarrena, Zeles Otamendi Jauregi, Jose Antonio Pérez Pérez. -- II. Artisauak eta merkatariak = Artesanos y comerciantes / Xabier Irizar Asurabarrena, Zeles Otamendi Jauregi

LG: SS 1124-2013
ISBN: 978-84-616-5683-7 (1. liburukia)
ISBN: 978-84-616-5684-4 (2. liburukia)
ISBN: 978-84-616-5569-4 (Lan osoa)

1. Industria-garapena-Ormaiztegi-XIX-XX m. 2. Desarrollo industrial-Ormaiztegi-S. XIX-XX. 3. Ormaiztegi-Historia. I. Ibáñez Ortega, Norberto (1965-). II. Irizar Asurabarrena, Xabier (1958-). III. Otamendi Jauregi, Zeles (1954-). IV. Pérez Pérez, Jose Antonio (1965-). V. Millan Irizarren Eskutik Kultur Elkartea.

338.45(460.154Ormaiztegi)"18/19"
94(460.154Ormaiztegi)"18/19"

Guztiz debekatua dago liburu hau bere osotasunean edo zati batean erreproduzitzea, hala edozein sistema informatikotan edo bestelako almazenamendu edo informazio-lorpenekotan sartzea eta edozein modutan edo denadelako baliabidea erabiliz transmititzea, baliabide hori elektronikoa, mekanikoa, fotokopia, grabazio naiz bestelako metodozkoa izanda ere, Millan Irizarren Eskutik Kultur Elkartearen aldez aurretiko eta idatzizko baimenik gabe.

Queda totalmente prohibida la reproducción total o parcial de este libro, así como su incorporación a cualquier sistema informático y otro tipo de almacenamiento o recuperación de información y su transmisión en cualquier forma o por cualquier medio, sea éste electrónico, mecánico, por fotocopia, por grabación u otros medios, sin el permiso previo y por escrito de Millan Irizarren Eskutik Kultur Elkartea.

BABESLEAK / PATROCINADORES

Zuen sentsibilitateari eta eskuzabaltasunari esker amets hau gauzatu ahal izan da,
Gracias a vuestra sensibilidad y generosidad se ha podido materializar este sueño,

Aceros Treo, S.A. (Treosa)
Bodegas Elosegi, S.L.
Caja Rural de Navarra
Construcciones Electromecánicas de Gipuzkoa, S.L.
Garage Etxe-Azpi, S.L.
Garaje Moderno Pablo Irizar, S.L.
Gipuzkoako Foru Aldundia
Grúas y Carrocerías San Ignacio, S.L.
Hierros Mavi, S.L.
Indar Máquinas Eléctricas, S.L.
Industrias Electromecánicas GH, S.A.
Irizar, S. Coop.
Kutxa Gizarte Ekintza
Lasa Otxoa, Blas
Lazti Garraioak, S.L.
LKS, S. Coop.
Muguruza Zangitu, Sofia (g.b.)
Ofitas de Urretxu, S.L.U.
Ormaiztegiko Udala
Orona, S. Coop.
Reciclaje y Recuperaciones Reisa, S.L.
Talleres Osinalde, S.L.
Urbil Etxegintzako Materialak, S.L.

Ormaiztegiko Udala
Ayuntamiento de Ormaiztegi

Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa

kutxa gizarte ekintza

Kutxako bezeroei esker, liburu honek bere Gizarte Ekintzaren laguntza jaso du
Gracias a los clientes de kutxa, este libro ha recibido el apoyo de su Obra Social

LKS

Irizar

ÍNDICE AURKIBIDEA

14	1 Establecimientos e iniciativas artesanales y comerciales	1 Artisautza eta merkataritza arloko saltoki eta ekimenak	15
24	2 Molinos de Ormaiztegi	2 Ormaiztegiko errotak	25
26	2.1 Molino de Iraegi	2.1 Iraegi errota	27
30	2.2 Molino de Goiko Errota	2.2 Goiko Errota	31
34	2.3 Molino de Lapatza Txikia	2.3 Lapatza Txikia Errota	35
42	3 Minas	3 Meategiak	43
54	4 Comercios y otras actividades	4 Saltokiak eta beste jarduera batzuk	55
60	4.1 La casa concejil La alhóndiga municipal Posada y taberna Alcaldes de Ormaiztegi	4.1 Kontzeju etxea Udal alondegia Ostatua eta taberna Ormaiztegiko alkateak	61
80	4.2 Maura Berria o la casa Biona. La familia Otaño y la saga de los Azpiazu	4.2 Maura Berria edo Biona etxea. Otaño familia eta Azpiazutarren leinua	81
88	4.3 Maura. Las familias Kanpos y Elosegi La familia Kanpos en Maura Maura y la familia Elosegi	4.3 Maura. Kanpos eta Elosegi familiak Kanpos familia Mauran Maura eta Elosegi familia	89
102	4.4 Ermita etxea	4.4 Ermita etxea	103
104	4.5 Maiora Berria o Ezkurdia	4.5 Maiora Berria edo Ezkurdia	105
114	4.6 Iriarte Goena o Motzane	4.6 Iriarte Goena edo Motzane	115
124	4.7 Iriarte Erdikoa	4.7 Iriarte Erdikoa	125
132	4.8 Iriarte Txikia o Txulokoa. La familia Murua	4.8 Iriarte Txikia edo Txulokoa. Murua sendia	133
138	4.9 Elizaurre	4.9 Elizaurre	139
142	4.10 Elizalde o Izuzkitza	4.10 Elizalde edo Izuzkitza	143
146	4.11 Sarriegi etxea	4.11 Sarriegi etxea	147
150	4.12 Oñatibia o Maixune	4.12 Oñatibia edo Maixune	151

156	4.13 Escuelas Escuelas viejas Nuevas Escuelas Maestros de la localidad	4.13 Eskolak Eskola zaharrak Eskola berriak Herriko maisu-maistrak	157
188	4.14 Casa cural Párrocos y coadjutores de la Parroquia San Andrés	4.14 Apaizetxea San Andres Parrokiako erretore eta laguntzaileak	189
198	4.15 Eliztondo. La familia Kanpos	4.15 Eliztondo. Kanpos familia	199
204	4.16 Berjaldegi	4.16 Berjaldegi	205
214	4.17 Elizetxea o Berjaldegi Berria	4.17 Elizetxea edo Berjaldegi Berria	215
216	4.18 Urbieta	4.18 Urbieta	217
218	4.19 Urbieta Bigarrena	4.19 Urbieta Bigarrena	219
220	4.20 Telleri Zaharra o Karterone	4.20 Telleri Zaharra edo Karterone	221
224	4.21 San Fausto Berria o Panadería	4.21 San Fausto Berria edo Panaderie	225
230	4.22 Zamora Berria: locutorio telefónico y alquilerista Locutorio telefónico Taller de reparación de bicicletas de Juan José Iparragirre –alquilerista-	4.22 Zamora Berria: telefono-mintzategia eta alkilerista Telefono-mintzategia Juan Jose Iparragirreren bizikletak konpontzeko tailerra –alkilerista-	231
242	4.23 Cantina	4.23 Kantina	243
248	4.24 Denda Berri o Fausto taberna	4.24 Denda Berri edo Fausto taberna	249
250	4.25 Etxaluze	4.25 Etxaluze	251
260	4.26 Arrese o Torrea	4.26 Arrese edo Torrea	261
262	4.27 Jauregi o Antonene	4.27 Jauregi edo Antonene	263
266	4.28 Arregitegi o Arraitegi y Arraitegi Txikia	4.28 Arregitegi edo Arraitegi eta Arraitegi Txikia	267
270	4.29 La cantina del apeadero	4.29 Geralekuko kantina	271
276	IDENTIFICACIÓN DE LOS PERSONAJES DE LAS IMÁGENES	ARGAZKIETAKO PERTSONAIEN IDENTIFIKAZIOA	276

298 NOTAS OHARRAK 298

314 BIBLIOGRAFÍA BIBLIOGRAFIA 314

316 ÍNDICE ONOMÁSTICO AURKIBIDE ONOMASTIKOA 316

352 CRÉDITOS FOTOGRÁFICOS ARGAZKI KREDITUAK 352

artisauak eta merkatariak
artesanos y comerciantes

1 ESTABLECIMIENTOS E INICIATIVAS ARTESANALES Y COMERCIALES

Si bien es verdad que la contribución de Ormaiztegi al tejido industrial de su entorno, así como al de la provincia, ha sido notable y decisiva, no es menos cierto que también ha contado con otras iniciativas de interés, sobre todo para el ámbito local.

En este tomo pretendemos dar una referencia somera de los establecimientos e iniciativas artesanales y comerciales de la localidad, en un intento por reflejar un pasado no lejano que ha forjado el presente que hoy vivimos, habiéndonos dejado hitos, cada vez más difusos, que reconociéndolos nos ayudarán a comprender mejor nuestro pasado colectivo.

En el estudio de las iniciativas industriales locales, nuestras fuentes de información, fundamentalmente, han venido constituidas por el Archivo Municipal de Ormaiztegi, el Archivo General de Gipuzkoa, el Registro de la Propiedad de Azpeitia, el Registro Mercantil de Gipuzkoa, el Archivo Histórico Diocesano de San Sebastián y el Registro Civil de Ormaiztegi, sin dejar de lado las entrevistas realizadas a distintos testigos del devenir local, lo que nos ha reportado una información sobre otras iniciativas artesanales y comerciales que hemos querido presentar en este tomo, siendo nuestro objetivo dejar testimonio de los hombres y mujeres que entre la segunda mitad del siglo XIX y la primera del siguiente y, a veces, también en la segunda del siglo XX, han desarrollado su quehacer profesional en la comunidad de Ormaiztegi.

En este empeño, creemos conveniente insistir en la imposibilidad material de recoger o referir la totalidad de los establecimientos comerciales que han existido en Ormaiztegi, desde mediados del siglo XIX (1860), por la limitación documental que hemos debido sortear. No obstante, queremos dejar constancia del esfuerzo realizado en recoger el testimonio de las iniciativas más relevantes, desde el punto de vista de su persistencia en el tiempo.

Respecto de las estadísticas y matrículas fiscales que hemos manejado, debemos señalar que dependiendo del documento de referencia, hemos obtenido distinto nivel de información. Los propios documentos evolucionan en el tiempo, para su adecuación a la normativa tributaria, de manera que se van alterando los criterios de clasificación de actividades. Todo ello conlleva que no exista uniformidad en el criterio clasificatorio de la información contenida en los distintos documentos a que hemos tenido acceso. Además, la falta de una secuencia completa de matrículas industriales y otros documentos fiscales nos obliga a establecer por aproximación, en muchos casos, las fechas de apertura y cierre de las iniciativas presentadas. Por otro lado, debe advertirse la ocasional falta de correspondencia existente entre las titularidades y actividades realmente desarrolladas y las registradas en los documentos fiscales barajados. Resulta obvio señalar que el nivel de información obtenido no es homogéneo en todo el período abordado, lo que genera incertidumbres difíciles de resolver.

En la forma que hemos visto en el Tomo I, los cambios experimentados en los medios de locomoción (carreteras y ferrocarriles) y la presencia cercana de explotaciones mineras posibilitó el nacimiento de otras actividades económicas. Es fácil comprender que, además, el balneario fue un revulsivo en la vida local, como ya se ha apuntado más de una vez, como también lo fuera el gran movimiento de personal foráneo que la villa vivió durante la ejecución de las obras del ferrocarril. Es-

<< 1
Fonda Ezkurdia eta Biona etxea
Fonda Ezkurdia y casa Biona

< 2
Misioak, 1946
Ejercicios espirituales, 1946
(Ver pág. 278 orria ikusi)

1 ARTISAUTZA ETA MERKATARITZA ARLOKO SALTOKI ETA EKIMENAK

Egia bada ere Ormaiztegiko herriak bere inguruko industria-ehunari nahiz probintzia osokoari egin dion ekarpena nabarmena eta erabakigarria izan dela, egia da, baita ere, beste era bateko ekimen interesgarriak ere eskaini dituela, batez ere herri mailakoak.

Liburuki honetan aipamen labur bat egin nahi diegu herri mailako artisautza eta merkataritza arloko saltoki eta ekimenei, hain urrun ez dagoen eta egun bizi dugun orainaldia marraztu duen iragan hori islatu nahirik, izan ere, gero eta lausoagoak dauzkagun mugarri horiek ezagutuz gure iraganaldi kolektiboa hobeto ulertzera iritsiko baikara.

Herri mailako industria-ekimenen azterketa horretan, gure informazioiturriak, funtsean, Ormaiztegiko Udal Artxiboa, Gipuzkoako Artxibo Nagusia, Azpeitiko Jabetza Erregistroa, Gipuzkoako Merkataritza Erregistroa, Donostiako Elizbarrutiko Artxibo Historikoa eta Ormaiztegiko Erregistro Zibila izan dira, herriaren bilakaeraren lekuko izan diren hainbati egindako elkarrizketak alde batera utzi gabe, eta horrek, artisautza eta merkataritza arloko beste ekimen batzuei buruzko informazioa eskaini digu, liburukin honetan aurkeztu nahi izan ditugunak, gure helburua delako XIX. mendearen bigarren erditik hurrengo mendearen lehen erdira bitartean –baita, batzuetan, XX. mendearen bigarren erdira bitartean ere– beren eginkizun profesionala Ormaiztegiko herrian burutu duten gizon-emakumeen lekukotza uztea.

3
Ormaiztegi, 1940



Provincia de Guipúzcoa. Partido Judicial de Tolosa. Pueblo de Ormaiztegui.

Estado numérico de las personas domiciliadas en dicho pueblo á 28 de Julio de 1863.

Casas.	Adultos de uno y otro sexo (de 18 años)				Niños de uno y otro sexo de 18 años					
	Hombres.				Mujeres.				Sexo.	
	Solteros	Casados	Viudos	Total	Solteras	Casadas	Viudas	Total	varones	hembras
Iturbe	-	1	-	1	-	1	-	1	2	-
Echeberria	4	3	1	3	1	1	-	2	-	1
Larralde	1	1	-	2	-	1	-	1	1	-
Ubitarte	1	1	-	2	-	-	1	1	-	1
Elorriaga	3	2	-	5	-	1	1	2	-	-
Casanova Zuloaga	-	1	-	1	-	1	-	1	-	-
Barrio de la Iglesia	3	2	-	4	-	1	-	1	1	2
Casanova Echeberria	-	1	-	1	-	1	-	1	2	-
Casa Rectoral	-	1	-	1	-	1	-	1	-	-
Casa Cura	1	-	-	1	-	-	-	-	-	-
Casa Hospital	-	1	-	1	-	1	-	1	1	1
Casa Cabral	1	-	0	1	-	1	-	1	1	-
Casanova Ofiza	2	2	-	4	-	3	-	3	-	2
Casa [illegible]	1	-	-	1	-	-	1	1	-	-
Casa [illegible]	-	3	-	3	-	-	-	-	-	-
Casanova Arriola	1	2	-	3	-	1	-	1	-	-
Casanova Errazquin	-	1	-	1	-	-	-	-	-	-
Casa Parroquia	2	-	-	2	-	-	-	-	-	-
Casa Ermita	1	1	-	2	-	-	-	-	-	-
Casa [illegible]	1	1	-	2	-	-	-	-	1	-
Casanova Errazquin	6	3	-	9	-	-	-	-	-	-
Casa [illegible]	-	2	-	2	-	-	-	-	-	-
Casa [illegible]	-	1	-	1	-	1	-	1	-	-
Casa [illegible]	3	-	-	3	-	-	-	-	-	-
Casa Abitua	-	2	-	2	-	2	-	2	2	-
Casa [illegible]	1	1	-	2	-	-	-	-	1	-
Casa [illegible]	-	1	-	1	-	1	-	1	1	-
Casa [illegible]	5	-	-	5	-	-	-	-	-	-
Casa [illegible]	-	3	0	3	-	1	-	1	-	1
Casa [illegible]	1	-	-	1	-	-	-	-	-	-
	47	37	1	87	1	17	2	23	13	8

Suma total de la [illegible] 21

Ormaiztegui 28 de Julio de 1863.

El Alcalde

Ahalegin horretan, komenigarria iruditzen zaigu Ormaiztegin XIX. mendearen erditik (1860) izan diren merkataritza-saltoki guzti-guztiak jasotzea edo aipatzea materialki ezinezkoa dela, dokumentuen aldetik topatu ditugun zailtasunengatik. Nolanahi ere, argi utzi nahi dugu ahalegin handia egin dugula ekimen azpimarragarrien lekukotza jasotzeko, denboran izan duten iraupenaren ikuspegitik.

Erabili ditugun estatistika eta matrikula fiskalei dagokienez, adierazi behar dugu, erreferentzia gisa hartutako dokumentuaren arabera, informazio maila desberdina jaso dugula. Dokumentuak berak denborarekin eboluzionatzen joaten dira zerga-araueta-ra egokitzearren, eta beraz, jardueren sailkapen-irizpideak ere aldatzen joaten dira. Horren guztiaren ondorioz, ez dago batasunik erabili ahal izan ditugun dokumentu desberdinetan jasotako informazioa sailkatzeko irizpideetan. Horrez gain, industria-matrikulen sail oso bat eta beste hainbat zerga-agiri ez egoteak behartu egin gaitu, aurkeztutako ekimenen irekierako eta itxierako datak, kasu asko eta askotan, hurbilpenez ezartzera. Beste alde batetik, ohartarazi beharra dago noiz edo noiz ez dugula erabateko egokitasunik topatu titulartasunen eta benetan burututako jardueren eta aztertutako zerga-agirietan erregistratuta geratu direnen artean. Beraz, egoki da adieraztea lortutako informazio maila ez dela homogeneoa jorratutako epealdi osoan zehar, eta horrek, konpontzen zailak diren hainbat zalantza eragiten ditu.

I Liburukian ikusi dugun moduan, garraio-bideetan (errepideetan eta trenbideetan) izandako aldaketek eta bertatik hurbil hainbat meategi-ustiapen egoteak erraztu egin zuen beste jarduera ekonomiko batzuk sortzea. Erraz uler dezakegu, gainera, bainuetxea pizgarri bat izan zela herriko bizitzan, behin baino gehiagotan aipatu den moduan, baita trenbidearen lanak egin bitartean herrira hainbeste kanpotar etorri izanak sortutako mugimendu handia ere. Errealitate horiek ekimen ugari

< 4
Ormaiztegin helbideratutako frantsesen zerrenda, 1863
Estado numérico de los franceses domiciliados en Ormaiztegi, 1863

5
Ormaiztegi, 1940

tas realidades propiciaron multitud de iniciativas, que en algunos casos hoy perduran y en otros han desaparecido aún no hace mucho.

La *Lista nominal de todos los individuos que ejercen en el pueblo industria, arte, profesional, por alfabeto de artes* formado por el Ayuntamiento *con arreglo á las bases generales del Reyno, y su parte alicuota para los 400.000 reales para la Guerra de Africa*[1], el 7 de noviembre de 1860, (en adelante se citará como Listado de actividades de 1860) nos da idea expresa de la situación de los establecimientos mercantiles en este tiempo:

TABLA 1: INDUSTRIA Y COMERCIO DE ORMAIZTEGI EN 1860

Actividades	Titular
Abarquero	José Ignacio Irizar
Coche de alquiler	Francisco Otaño
Tratante de ganado lanar	Francisco Murua Joaquín Irizar
Cera (prensa que no funciona)	José Venancio Sarriegui
Carpintero	Francisco Elzo Prudencio Igarzabal
Mercaderes al por menor de telas de lana, lino y algodón	Francisco Otaño Teresa Inchausti
Molino de grano	José Lorenzo Aguirrebengoa (Iraeguicoerrota) José Gabilondo (Goicoerrotea) Juan Bautista Urretavizcaya (Errotachiquía)
Ebanista	José Mª Salsamendi
Confitero	Teresa Inchausti José Venancio Sarriegui Francisco Ayerbe
Carnicero	Joaquín Zufiría
Herrador bueyes, herrero	José Albisu
Carretas bueyes	José Ignacio Badiola José Joaquín Otaño Francisco Mayora Manuel Elgarresta
Tratante de sanguijuelas	Pedro Zanguitu
Abacería (tienda)	José Venancio Sarriegui Francisco Otaño Teresa Inchausti
Tratante por contrata con el pueblo para abastecer consumo	Joaquín Zufiría
Médico cirujano	Guillermo Arcelus Pedro Zanguitu
Panadero, horno de cocer pan	Juan Bautista Urretavizcaya Juan Manuel Urretavizcaya
Fondista, café, tienda de vinos generosos	Francisco Otaño
Mesonero, tabernero	Joaquín Zufiría
Cerrajero	Antonio Aramendi
Cestero	Juan Ignacio Mendizabal
Horno de tejería	Bartolomé Iduin Marin (Celaicoa)
Tratante de ganado cerdal	Tomás Mugica
Chocolate (tienda)	Teresa Inchausti José Venancio Sarriegui Francisco Ayerbe
Chocolate (molino/caballería)	José Venancio Sarriegui
Arrendatario arbitrios municipales	Joaquín Zufiría

eragin zituzten, eta kasu batzuetan, oraindik ere irauten dute, eta beste kasu batzuetan, ez aspaldi, desagertu egin ziren.

Herrian industrian, artean eta lanbidean aritzen diren norbanako guztien izen-zerrenda, arteen hurrenkera alfabetikoaren arabera, Udalak prestatua, *Erresumako oinarri orokorrekin bat etorriz, eta Afrikako Gerrarako 400.000 errealetarako zati alikuota duela*[1], 1860ko azaroaren 7an (aurrerantzean 1860ko jarduera-zerrenda gisa aipatuko dena), egokia da ideia garbi bat izan dezagun zein egoeratan zeuden merkataritza-saltokiak garai horretan:

1. TAULA: ORMAIZTEGIKO INDUSTRIA ETA MERKATARITZA 1860AN

Jarduerak	Titularra
Abarkagilea	José Ignacio Irizar
Alea ehortzeko errota	José Lorenzo Aguirrebengoa (Iraeguicoerrota) José Gabilondo (Goikoerrotea) Juan Bautista Urretavizcaya (Errotachiquía)
Alokairuko kotxea	Francisco Otaño
Ardi-azienden tratularia	Francisco Murua Joaquín Irizar
Argizaria (prentsa ez dabil)	José Venancio Sarriegui
Arotza	Francisco Elzo Prudencio Igarzabal
Artile, liho eta kotoizko oihalen txikizkako merkataria	Francisco Otaño Teresa Inchausti
Gozogilea	Teresa Inchausti José Venancio Sarriegui Francisco Ayerbe
Harakina	Joaquín Zufiría
Idi-ferratzailea, erramentaria	José Albisu
Idi-gurdiak	José Ignacio Badiola José Joaquín Otaño Francisco Mayora Manuel Elgarresta
Izainen tratularia	Pedro Zanguitu
Janari-denda	José Venancio Sarriegui Francisco Otaño Teresa Inchausti
Kontsumoa hornitzeko kontrata bidezko tratularia herriarekin	Joaquín Zufiría
Mediku zirujaua	Guillermo Arcelus Pedro Zanguitu
Okina, ogia egiteko labea	Juan Bautista Urretavizcaya Juan Manuel Urretavizcaya
Ostalaria, kafea, ardo oparoen denda	Francisco Otaño
Ostalaria, tabernaria	Joaquín Zufiría
Sarrailagilea	Antonio Aramendi
Saskigilea	Juan Ignacio Mendizabal
Teila-labea	Bartolomé Iduin Marin (Celaikoa)
Txerri-azienden tratularia	Tomás Mugica
Txokolatea (denda)	Teresa Inchausti José Venancio Sarriegui Francisco Ayerbe
Txokolatea (errota/zalditeria)	José Venancio Sarriegui
Udal arielen errentaria	Joaquín Zufiría
Ur mineral hotzeko bainuetxea	Francisco Azcoaga

Actividades	Titular
Establecimiento de baños de aguas minerales frías	Francisco Azkoaga
Zapatero	José Ángel Elzo

Elaboración propia, a partir de la *"Lista nominal de todos los individuos que ejercen en el pueblo industria, arte, profesional, por alfabeto de artes con arreglo á las bases generales del Reyno, y su parte alicuota para los 400.000 reales para la Guerra de Africa"* de 1860. Los nombres y apellidos de los titulares se expresan respetando la grafía original.

La relación anterior de establecimientos da una idea del Ormaiztegi rural y agrícola que fue sorprendido por el aluvión de trabajadores y técnicos del ferrocarril y respondió con tres establecimientos del ramo de la alimentación y hostelería (abacería-confitería-chocolatería), así como con cuatro carretas de bueyes para servicio de las obras del ferrocarril (acarreo de material). El resto de las actividades consignadas responde a la naturaleza de un municipio dedicado exclusivamente al sector primario.

Según el Listado de actividades de 1860, a Ormaiztegi le correspondió contribuir con dos mil dieciséis reales de vellón, cantidad que comparada con localidades del tamaño de su población y entorno resulta llamativamente elevada, sin duda por contar con un nivel de actividad mercantil muy superior a la media, como se observa en la siguiente tabla.

TABLA 2

Localidad	Habitantes 1860	Hogares 1860	Contribución total	Contribución por habitante
Mutiloa	523	98	304 rv	0,5813 rv
Ormaiztegi	721	142	2.016 rv	2,7961 rv
Itsaso	862	142	992 rv	1,1508 rv
Ezkio	880	155	294 rv	0,3341 rv
Urretxu	989	199	1.546 rv	1,5632 rv
Gabiria	1.074	205	657 rv	0,6117 rv
Ordizia	1.197	249	7.065 rv	5,9023 rv
Zumarraga	1.393	268	2.365 rv	1,6913 rv
Beasain	1.448	259	2.118 rv	1,4627 rv
Segura	1.531	311	2.767 rv	1,8073 rv
Zegama	2.487	425	4.506 rv	1,8118 rv

Elaboración propia, a partir de la *"Lista nominal de todos los individuos que ejercen en el pueblo industria, arte, profesional, por alfabeto de artes con arreglo á las bases generales del Reyno, y su parte alicuota para los 400.000 reales para la Guerra de Africa"* de 1860 e INEbase/Demografía y población/Alteraciones de los municipios en los Censos de Población desde 1842.

Según puede apreciarse en la tabla precedente, Ormaiztegi fue la segunda población que contribuyó por habitante en mayor cuantía, significativamente por encima del resto de las poblaciones de su entorno.

Como ya se ha señalado, la fecha que venimos analizando, el año 1860, coincide con la construcción del ferrocarril del Norte, que tuvo enorme incidencia en la localidad, como ya indicara Serapio Mujika. Debe considerarse que Ormaiztegi en 1842 contaba con 554 habitantes, alojados en 110 hogares, en tanto que en 1857 pasó a tener 592 habitantes y 104 hogares, más en 1860 la población se había incrementado hasta 721 habitantes, en 142 hogares (las obras de construcción del ferrocarril entre Otzaurte y Beasain se abordaron entre 1858 y 1864).

Jarduerak	Titularra
Zapataria	José Ángel Elzo
Zurgina	José Mª Salsamendi

Propio landutako taula, 1860ko *"Herrian industrian, artean eta lanbidean aritzen diren norbanako guztien izen-zerrenda, arteen hurrenkera alfabetikoaren arabera, Erresumako oinarri orokorrekin bat etorriz, eta Afrikako Gerrarako 400.000 errealetarako zati alikuota duela"* dokumentua abiapuntutzat hartuta. Titularraren izen eta abizenetan jatorrizko idazkera mantendu dira.

Aurreko establezimendu-zerrenda horrek garbi azaltzen digu nolakoa zen Ormaiztegi nekazari eta landatar hura, trenbideko langile eta teknikarien zaparrada hura gainera etorri zitzaionean, eta nola erantzun zuen elikaduraren eta ostalaritzaren arloko hiru establezimenduekin (janari-denda, gozodenda, txokolategia), baita lau idi-gurdi jarriz trenbideko lanen zerbitzura (materiala garraiatzeko). Zerrendatutako gainerako jarduerak lehen sektorean bakarrik jarduten duen herri baten izaerari dagozkionak dira.

1860ko jarduera-zerrendaren arabera, Ormaiztegiri bi mila eta hamasei erreal koarto ematea egokitu zitzaion, eta bere biztanleriaren tamainako eta inguruko herriekin konparatuta, diru-kopuru hori nabarmenki handia da, zalantzarik gabe bertako merkataritza-jarduera batez bestekoa baino dezentez handiagoa zelako, taula honetan ikus dezakegun moduan.

2. TAULA

Herria	Biztanleak 1860	Etxeak 1860	Kontribuzio osoa	Kontribuzioa biztanleko
Mutiloa	523	98	304 ek	0,5813 ek
Ormaiztegi	721	142	2.016 ek	2,7961 ek
Itsaso	862	142	992 ek	1,1508 ek
Ezkio	880	155	294 ek	0,3341 ek
Urretxu	989	199	1.546 ek	1,5632 ek
Gabiria	1.074	205	657 ek	0,6117 ek
Ordizia	1.197	249	7.065 ek	5,9023 ek
Zumarraga	1.393	268	2.365 ek	1,6913 ek
Beasain	1.448	259	2.118 ek	1,4627 ek
Segura	1.531	311	2.767 ek	1,8073 ek
Zegama	2.487	425	4.506 ek	1,8118 ek

Propio landutako taula, 1860ko *"Herrian industrian, artean eta lanbidean aritzen diren norbanako guztien izen-zerrenda, arteen hurrenkera alfabetikoaren arabera, Erresumako oinarri orokorrekin bat etorriz, eta Afrikako Gerrarako 400.000 errealetarako zati alikuota duela"* dokumentua eta INEoinarria/Demografia eta biztanleria/1842ko Biztanle Erroldetan izandako udal-aldaketak abiapuntutzat hartuta.

Aurreko taula horretan ikus daitekeenez, biztanle bakoitzeko jarritako diru kopuruari dagokionez bigarren herria izan zen Ormaiztegi, eta inguruko herrien gainetik nabarmenki gailenduta ageri zaigu.

Arestian adierazi den moduan, aztertzen ari garen data hori, hots, 1860. urtea, Norteko trenbidearen eraikuntzarekin batera egokitu zen, eta esan beharra dago trenbide horrek sekulako eragina izan zuela gure herrian, Serapio Mujikak azaldu zuen moduan. Kontuan hartu behar da 1842 urtean Ormaiztegik 554 biztanle zituela, 110 etxetan banatuak, eta 1857. urtean, berriz, 592 biztanle eta 104 etxe zituen, baina 1860an 721 biztanletaraino iritsi zen biztanle kopurua 142 etxetan banaturik (Otzaurte eta Beasain artean trenbidea eraikitzeko obrak 1858 eta 1864 urte bitartean burutu ziren).

Este incremento poblacional atiende al personal foráneo llegado a Ormaiztegi con ocasión de las obras de la vía férrea, como queda de manifiesto en el Estado numérico de los franceses domiciliados en el pueblo el 28 de julio de 1863[2], que sumaban ciento treinta y un habitantes, y no fue exclusivo de Ormaiztegi, como bien puede deducirse del cuadro siguiente:

TABLA 3

Localidad	Habitantes 1842	Habitantes 1857	Habitantes 1860	Habitantes 1877
Ikaztegieta	166	239	308	247
Ormaiztegi	554	592	721	618
Legorreta	604	960	883	705
Urretxu	649	910	989	997
Beasain	871	1.337	1.448	2.100
Ordizia	861	1.115	1.197	1.338
Gabiria	932	961	1.074	980
Alegia	941	1.129	1.356	860
Zumarraga	1.057	1.267	1.393	1.679
Zegama	1.610	1.897	2.487	2.227

Elaboración propia partir de información obtenida de INEbase/Demografía y población/Alteraciones de los municipios en los Censos de Población desde 1842.

Según se puede observar, al término de las obras del ferrocarril se produjo una disminución generalizada de población en las localidades afectadas por las obras.

Como quiera que en el Tomo I nos hayamos referido con algún detenimiento al Balneario, para cumplir con el objetivo hasta ahora apuntado, en primer lugar nos referiremos a los molinos y las minas. Seguidamente intentaremos dejar testimonio de las actividades artesanales y mercantiles más destacadas. Sin duda, estas incipientes iniciativas empresariales, alentadas por estas circunstancias excepcionalmente favorables, son el germen de un desarrollo posterior que trataremos de descubrir. ■



Trenbideko lanak egitera Ormaiztegira etorritako kanpotarrek eragin zuten biztanleriaren ugaritze hori, 1863ko uztailaren 28an herrian helbideratuta dauden frantsesen Zerrendan argi ikus daitekeen moduan[2], guztira ehun eta hogeita hamaika biztanle baitziren frantsesak, eta hori ez zen Ormaiztegin bakarrik gertatu, ondoko taulatik ondorioztatzen den bezala:

3. TAULA

Herria	Biztanleak 1842	Biztanleak 1857	Biztanleak 1860	Biztanleak 1877
Ikaztegieta	166	239	308	247
Ormaiztegi	554	592	721	618
Legorreta	604	960	883	705
Urretxu	649	910	989	997
Beasain	871	1.337	1.448	2.100
Ordizia	861	1.115	1.197	1.338
Gabiria	932	961	1.074	980
Alegia	941	1.129	1.356	860
Zumarraga	1.057	1.267	1.393	1.679
Zegama	1.610	1.897	2.487	2.227

Propio landutako taula, INEoinarria/Demografia eta biztanleria/1842ko Biztanle Erroldetan izandako udalaldaketak abiapuntutzat hartuta.

Ikus daitekeen moduan, trenbideko obrak amaitu zituztenean, biztanle kopuruak, oro har, behera egin zuen obrek eragindako herrietan.

Kontuan hartuta I Liburukian jada luze antzean aipatu dugula Bainuetxea, orain arte finkatu dugun helburu hori betetzearren, lehenik eta behin errotak eta meategiak aipatuko ditugu. Jarraian, artisautza eta merkataritza arloko jarduera aipagarrienen lekukotza ematen ahaleginduko gara. Zalantzarik gabe, enpresa-ekimen hasi berri horiek izango dira, guztiz aldeko izango zaien testuinguru horrek bultzaturik, jorratzen ahaleginduko garen geroko garapen horren ernamuina. ■

2 MOLINOS DE ORMAIZTEGI

Pascual Madoz, en su *Diccionario Geográfico-Estadístico-Histórico* (1845-1850) al referirse a Ormaiztegi, nos informa que cuenta con tres molinos harineros. En el Listado de actividades de 1860 también son tres los molinos harineros localizados en esta localidad, como se deduce en la siguiente tabla.

TABLA 4: MOLINOS DE ORMAIZTEGI

Molino	Titular de la explotación	Observaciones
Errotachiquía	Juan Bautista Urretavizcaya	Funciona de 3 a 6 meses/año
Goikoerrotea	José Gabilondo Aguirrebengoa	Trabaja 6 meses/año
Iraeguicoerrota	José Lorenzo Aguirrebengoa	Trabaja 8 meses/año

Elaboración propia.
Las denominaciones de los molinos y los nombres y apellidos de los titulares se expresan respetando la grafía original.

Debe hacerse notar que en el caso de Errota Txikia, en el mismo edificio se contaba con horno de cocer pan para expenderlo dentro de la población.

Así mismo, Serapio Mujika[3] ratifica la existencia de tres molinos en Ormaiztegi: Lapatza Txikia, *Lapatsa* e Iraegi. Refiere que en el río *Zumarraga ú Oria*, es decir Santa Lutzia o Argisao, se localizan, además del molino de Lapatza Txikia, anteriormente citado como Errota Txikia, *destinado actualmente a fábrica de achicoria*, los molinos de Saizabal, Uribar y Alegia, en Itsaso. En el Eztanda, el molino de *Lapatsa* (Goiko Errota), que da luz eléctrica a la villa. Sitúa en este mismo río los molinos de Errota Berri; Igeribar; Anditegi y Beko Errota, en término de Gabiria. Además, en el río *Ormaiztegui ú Oria*[4], hoy Eztanda, emplaza al molino de Iraegi y al de Angio, este último en término de Beasain. ■

7
Iraegiko errotarria
Rueda de molino de Iraegi

2 ORMAIZTEGIKO ERROTAK

Pascual Madozek, *Diccionario Geográfico-Estadístico-Histórico* (1845-1850) izeneko lanean, Ormaiztegiz ari dela, aipatzen du bertan hiru irin-errota daudela. 1860. urteko jardueraz errendan ere hiru irin-errota topatzen ditugu herri honetan, jarraiko taulan ikus daitekeen moduan.

4 TAULA: ORMAIZTEGIKO ERROTAK

Errota	Ustiapenaren titularra	Oharrak
Errotachiquía	Juan Bautista Urretavizcaya	Urtean 3-6 hilabetez aritzen da
Goikoerrotea	José Gabilondo Aguirrebengoa	Urtean 6 hilabetez aritzen da
Iraeguicoerrota	José Lorenzo Aguirrebengoa	Urtean 8 hilabetez aritzen da

Propio landutako taula.
Erroten deituretan eta titularren izen eta abizenetan jatorrizko idazkera mantendu dira.

Ohartarazi beharra dago Errota Txikiaren kasuan, eraikin horretan bertan ogia egosteko labea ere bazegoela, gero herrian bertan saltzeko.

Era berean, Serapio Mujikak[3] Ormaiztegin hiru errota daudela berresten digu: Lapatza Txikia, *Lapatsa* eta Iraegi. Berak dioenez, *Zumarraga edo Oria* ibaian, hau da, Santa Lutzia edo Argisao errekan, arestian Errota Txikia izenez aipatutako Lapatza Txikia errotaz gain, *egun txikoria egiteko erabilia*, hortxe ditugu Saizabal, Uribar eta Alegia errotak, Itsason. Eztandan, *Lapatsa* errota (Goiko Errota), herrira argindarra ekartzen duena. Erreka honetan kokatzen ditu, halaber, Errota Berri, Igeribar, Anditegi eta Beko Errota izenekoak, Gabiriako udalerrian. Horrez gain, *Ormaiztegi edo Oria*[4] ibaian, gaur egun Eztanda, Iraegiko eta Angioko errotak kokatzen ditu, azken hori Beasaingo udalerrian. ■

8
Iraegiko errotako estolda
Rodete del molino de Iraegi

El linaje de los Zabala radica históricamente en Ordizia y Tolosa. Surge con Domingo de Zabala (1535-1614), héroe de la batalla de Lepanto y Consejero de Hacienda, fundador del mayorazgo de su apellido. María Pilar Zabala Ortiz de Bustamante fue hija de José María Zabala Ortés de Velasco, uno de los contados casos de aristócrata activo en la política alavesa y uno de los mayores contribuyentes provinciales[8].

2.1 MOLINO DE IRAEGI

El molino de Iraegi, localizado con el número 7 del Cuartel Mediodía, responde a la siguiente descripción[5]: *Consta del arco de la estolda, planta baja, piso y desván, sus paredes son construidas de mampostería, conteniendo su tejado nueve mil tejas y un área con inclusión de tejavana y horno unidos a él. Ocupa una superficie de 2,74 a*.

El molino de Iraegi, conocido también como Elbarrenako Errota, contaba con un derecho de uso privativo de aprovechamiento de 140 l/s, inscrito a favor de Pilar Zabala y Ortiz de Bustamante y otro de 500 l/s a favor del Conde de Villafuertes[6]. En el caso del molino de Iraegi la toma de agua se realizaba partiendo de la presa de Uherkalde (curiosamente uherkalde debe traducirse como *cerca de la presa* y así se denominaba el caserío localizado en sus inmediaciones) desde donde se conduce el agua destinada a mover el molino a través de un canal o *aldaparo* a cielo abierto.

En la Matrícula de la Contribución Industrial de 1902 se define como *Molino maquilero con una piedra para trigo y otra para maíz, trabajando menos de 6 meses y más 3 al año*.

Este molino en 1873 estaba valorado en 5.588,50 escudos y perteneció a Federico Zabala y Ortés de Velasco, Conde de Villafuertes, lo había adquirido por herencia de sus padres y abuelos, de manera que en 1812 la familia Zabala ya era propietaria de Iraegiko Errota[7]. Sucedió en la titularidad de esta pertenencia su sobrina Mª Pilar Zabala y Ortiz de Bustamante, Condesa de Villafuertes, casada con Antonio Berastegi y Fernández de Navarrete, Marqués de la Alameda; pro-

9
Iraegi, goiko errota
Iraegi, molino de arriba

2.1 IRAEGI ERROTA

Iraegi errota, Hegoaldeko Laurdeneko 7 zenbakian kokatua, bat dator honako deskribapenarekin[5]: *Estolda-arkua, behe-solairua, goi-solairua eta ganbara du, hormak harlanez eginak daude, eta teilatuak bederatzi mila teila ditu, baita eremu bat ere, eta horri erantsita teilapea eta labea. 2,74 areako azalera bat okupatzen du*.

Iraegi errotak, Elbarrenako Errota izenez ere ezaguna, 140 l/s aprobetxamendu-erabilera pribatiborako eskubidea zuen, Pilar Zabala eta Ortiz de Bustamanteren izenean inskribatua, eta beste 500 l/s-ko aprobetxamendua Villafuerteseko Kondearen izenean[6]. Iraegiko errotaren kasuan, Uherkaldeko presan zuen ur-hartunea (bitxia bada ere, uherkalde hitzak *presaren ondoan* esan nahi du, eta izen horixe zuen haren inguruan kokatuta egon zen baserriak), eta bertatik ekartzen zen ura, aire zabalean zegoen kanal edo aldaparo baten bitartez, errotako harriak mugi zitzan.

1902ko Industria Kontribuzioaren Matrikulan, honela dio: *Laka-errota, gariarentzat errotarri bat eta artoarentzat beste errotarri bat zuena, urtean 3 eta 6 hilabete bitartean lan egiten zuena*.

Errota hau 1873. urtean 5.588,50 ezkututan balioetsia zegoen eta Federico Zabala y Ortés de Velasco Villafuertesko Kondearena izan zen; bere guraso eta aiton-amonengandik jaso zuen herentzia gisa, eta hala, 1812. urterako Zabala familia Iraegiko Errotaren jabe zen[7]. Jabetza horren titulartasuna haren iloba Mª Pilar Zabala y Ortiz de Bustamante Villafuertesko Kondesak eskuratu zuen, Antonio Berastegi y Fernández de Navarrete Alamedako Markesarekin ezkondua zegoela; gero

Zabalatarren leinua historikoki Ordizian eta Tolosan kokatua egon da. Lehena Domingo de Zabala (1535-1614) izan zen, Lepantoko batailan heroi eta Ogasun Kontseilari, bere abizena daraman maiorazkoaren fundatzaile. Maria Pilar Zabala Ortiz de Bustamante Jose Maria Zabala Ortés de Velascoren alaba izan zen, Arabako politikan aristokrata aktibo bakarretakoa eta probintziako zerga-emaile handienetako bat[8].

10
Iraegi, beheko errota
Iraegi, molino de abajo

11
Arzelus-Irizar sendia, 1910 g.g.b.
Goiko ilaran: Nicolas, Ignacia, Pablo, Mª Cruz, Ildefonsa, Francisco eta Dolores Arzelus Irizar anai arrebak
Beheko ilaran: Isabel eta Maria Arzelus, Casilda Irizar Katarain (ama), Julian Arzelus Alzola (aita) eta Vicente Arzelus
Familia Arzelus-Irizar, 1910 aprox.
Fila superior: Los hermanos Nicolás, Ignacia, Pablo, Mª Cruz, Ildefonsa, Francisco y Dolores Arzelus Irizar
Fila inferior: Isabel y María Arzelus, Casilda Irizar Katarain (madre), Julián Arzelus Alzola (padre) y Vicente Arzelus

piedad posteriormente heredada por sus hijos Josefina, Ramón y Luis.

La primera referencia a los colonos de este molino la situamos en 1860, explotaba el molino José Lorenzo Agirrebengoa Asurmendi. El año 1873, figuran como colonos de Iraegiko Errota, Julián Arzelus Alzola y Casilda Irizar Katarain. Posteriormente, en 1904, localizamos a José Antonio Zabala Ormazabal. A éste le sucedió en las labores de molinero su hijo Ramón Zabala Ormazabal, que permaneció al frente de esta actividad hasta el año 1949, en que se incendió la vivienda del molinero, pasando a trabajar a la tejería de la familia Telleria en Andoain.

Hacia 1954 Andrés Albisu Alkorta adquirió el molino, aunque de su explotación se ocupó su cuñado Pablo Gurrutxaga Murgiondo, hasta el año 1964, en que cesó definitivamente la actividad de este molino harinero como tal. Pablo Gurrutxaga anteriormente había sido *itzaina* (boyero).

No hemos obtenido más información de la actividad de este molino, aunque nos consta que el año 1923 en el molino de Iraegi únicamente se ocupaba un trabajador y se molieron 6.000 kg de maíz, que produjeron 5.100 kg de harina de maíz y 2.000 kg de trigo, convertidos en 1.200 kg de harina de trigo y 200 kg de salvado, en una jornada anual de 2.190 horas de trabajo[9]. En la Contribución Industrial de los años 1933 a 1954 este molino figura como productor de energía eléctrica.

Recientemente (2008) han desaparecido las ruinas del molino y aún subsiste parte del *aldaparo* por donde se conducían las aguas al molino desde la presa. La presa de Uherkalde fue derribada el año 1996. ■

12
Ramon Zabala Ormazabal

13
Pablo Gurrutxaga Murgiondo

haren seme-alaba Josefina, Ramon eta Luisek eskuratu zuten jabetza hori.

Errota honetako maizterrei buruzko lehen aipamena 1860. urtekoa da; Jose Lorenzo Agirrebengoa Asurmendik ustiatzen zuen errota. 1873. urtean Iraegiko Errotako maizter gisa ageri zaizkigu Julian Arzelus Alzola eta Casilda Irizar Katarain. Gero, 1904. urtean, Jose Antonio Zabala Ormazabal topatzen dugu. Honen ondotik, errotari lanetan, haren seme Ramon Zabala Ormazabal hasi zen, eta jarduera horren gidari aritu zen 1949. urte arte, errotariaren etxebizitza suak kiskali zuen arte, eta horren ondoren, Telleria familiaren teila-fabrikan hasi zen Andoainen.

1954. urte inguruan, Andres Albisu Alkortak eskuratu zuen errota, baina horren ustiapenaz haren koinata Pablo Gurrutxaga Murgiondo arduratu zen, 1964. urte arte, urte horretan behin betiko utzi baitzion irin-errota horretan lan egiteari. Pablo Gurrutxaga itzaina izan zen lehenago.

Ez dugu informazio gehiago bildu errota honetako jarduerari buruz, baina jakin badakigu 1923. urtean Iraegiko errotan langile bakarra ari zela lanean eta 6.000 kg arto eho zituztela, 5.100 kg arto-irin emanez, baita 2.000 kg gari ere, 1.200 galirin eta 200 kg zahi emanez, urtean 2.190 orduko lanaldia egin ondoren[9]. 1933tik 1954. urtera bitarteko Industria Kontribuzioetan errota hau energia elektrikoaren ekoizle gisa ageri da.

Orain berriki (2008) desagertu dira errotaren hondakinak, baina oraindik ere aldaparoaren zati bat ikus dezakegu, presatik errotara urak ekartzeko erabiltzen zutena. Uherkaldeko presa 1996. urtean eraitsi zuten. ■

14
Publizitatea, 1949
Publicidad, 1949



2.2 MOLINO DE GOIKO ERROTA

El molino de Goiko Errota o Cerverano se identifica con el número 9 del Cuartel Poniente y responde a la siguiente descripción: *Consta de planta baja y dos piedras de moler y un piso alto. Ocupa una superficie, con inclusión de la tejavana y horno, de 5,5 posturas. Linda al Oriente, con las dos salidas de las aguas de su estolda, horno y antepuerta; Mediodía, con el río; Poniente, con el depósito de agua. El depósito de agua y cauce del molino están por la parte del Poniente, hasta la presa una tirada de 1.356 pies lineales, en toda la tirada del cauce, con inclusión de la senda para pasar del molino a la presa y compuerta que tiene una cabida de 12 posturas. Linda por Oriente, con el molino; Mediodía y Norte, pertenecidos del molino y Poniente, con su cauce*.

Este molino perteneció a José Antonio Iurrita y Magdalena Mendizabal hasta 1817, año en el que Gregorio Etxezarreta lo adquirió, a su fallecimiento (Tolosa, 1865) le heredaron sus hijas Catalina y Rafaela Etxezarreta Izagirre, vecinas de Tolosa y Arrasate, respectivamente. En 1871 Catalina adquirió la titularidad de la totalidad y el 12 de octubre de 1889, Luis Zabala Etxezarreta, hijo de Catalina y propietario último tras heredarlo en 1885, vendió el complejo a Narciso Zangitu al precio de cuatro mil pesetas[10].

En esta fecha de 1889 el molino constaba de un sótano, en el que había instaladas una turbina, una dínamo generadora y la caja de distribución o cuadro, sin duda para servicio del Balneario y desde 1903 suministró energía

2.2 GOIKO ERROTA

Goiko Errota edo Cerverano izenez ere ezagutzen den errota Mendebaldeko Laurdeneko 9. zenbakian kokatua zegoen eta bat dator honako deskribapenarekin: *Behe-solairua eta bi errotarri ditu, baita goi-solairu bat ere. Teilapea eta labea sartuta, 5,5 postura okupatzen ditu horren azalerak. Ekialdean bere estoldako bi ur-irteera, labea eta ataurrea ditu, hegoaldean ibaia eta mendebaldean ur-depositua. Ur-depositua eta errotaren ubidea mendebaldeko aldean daude, presaraino 1.356 oin linealeko tartea dago ubidearen luzera osoan, errotatik presara igarotzeko bide-zidorra eta 12 postura neurtzen duen konporta barne hartuz. Ekialdean errotarekin egiten du muga, hegoaldean eta iparraldean errotaren lurrekin eta mendebaldean bere ubidearekin*.

Errota hau Jose Antonio Iurrita eta Magdalena Mendizabalena izan zen 1817. urte arte, urte horretan Gregorio Etxezarretak eskuratu baitzuen, eta hura hildakoan (Tolosa, 1865) haren alaba Catalina eta Rafaela Etxezarreta Izagirrek heredatu zuten, Tolosan eta Arrasaten bizi zirela, hurrenez hurren. 1871. urtean Catalinak titularta-suna osoa eskuratu zuen, eta 1889ko urriaren 12an, Luis Zabala Etxezarretak, Catalinaren semeak, 1885. urtean heredatu ondoren haren azken jabeak, Narciso Zangituri saldu zion multzo hori lau mila pezetaren truke[10].

1889. urte honetan, errotak soto bat zuen, eta bertan, turbina bat, dinamo sorgailu bat eta banaketa-kaxa edo taula zeuden instalatuak, zalantzarik gabe Bainuetxeari zerbitzua eskaintze-

15
Goiko Errota

eléctrica a la villa, para el alumbrado público.

Éste, además, contó con vivienda completa, destinada al colono que explotaba el mismo. Al menos desde 1860 José Gabilondo Agirrebengoa figura como colono en Goiko Errota, en tanto que en 1886 aparecen junto a éste su hija, Francisca Ignacia Gabilondo Lasa, casada con José Domingo Lasa Goitia hasta que en 1910 se localiza al matrimonio formado por Juan Mª Pikasarri Irantzuaga, de profesión caminero y María Dominica Igartzabal Iturbe, con su hija Petra Pikasarri Igartzabal. A partir de 1926 fueron colonos de Goiko Errota, el matrimonio formado por Antonio Zeberio y Juana Begiristain procedentes de Ataun. En la documentación de 1945 figuran como residentes el matrimonio formado por Felipe Galparsoro Arrondo y María Galparsoro Berasategi, junto con sus hijos José Mª, Mª Pilar, Manuela y Enrique. Estos últimos colonos de Goiko Errota, cuyas ruinas se mantienen, lo fueron desde 1941 hasta aproximadamente 1969.

En la Estadística de Producción Industrial de 1923, Narciso Zangitu declaró que produjo mil seiscientas cincuenta horas de luz al año, que la central produjo 4,5 Kv, si bien se aprovecharon 4 Kv, *por perderse la diferencia en el transporte*. Calculó en ciento cincuenta pesetas el salario anual del encargado de la central, abonado con el disfrute gratuito de la vivienda-habitación del molino.

En el siglo XIX fue frecuente la transformación de este tipo de instalaciones, tanto para generación de energía eléctrica, como para la creación de nuevas actividades, aprovechando la energía hidráulica. Así, hemos visto que Goiko Errota en 1889 cambió su primitiva vocación de molino harinero, pasando a generar fuerza eléctrica para el Balneario, en tanto que en el de Iraegi convivieron las dos funciones. De la misma forma seguidamente constataremos que el molino de Lapatza Txikia se transformó en fábrica de achicoria, pasando posteriormente a producir electricidad y más adelante a albergar el taller de Arbildi y la fábrica de los Azurmendi. ■

ko, eta 1903tik aurrera argindarra eman zion udalari, argiteria publikorako erabil zezan.

Honen barruan etxebizitza oso bat zegoen, hura ustiatzen zuen maizterrarentzat. 1860. urtetik aurrera, Jose Gabilondo Agirrebengoa ageri da maizter gisa Goiko Errotan, eta 1886. urtean, harekin batera, haren alaba Francisca Ignacia Gabilondo Lasa ageri da, Jose Domingo Lasa Goitiarekin ezkondua, 1910. urtean Juan Mª Pikasarri Irantzuaga lanbidez bidezaina eta haren emazte Maria Dominica Igartzabal Iturbe ageri dira bertan, beren alaba Petra Pikasarri Igartzabalekin batera. 1926. urtetik aurrera Goiko Errotako maizter izan ziren Antonio Zeberio eta Juana Begiristain senar-emazteak, biak ere Ataundik etorriak. 1945. urteko dokumentazioan bertako biztanle gisa ageri dira, berriz, Felipe Galparsoro Arrondo eta Maria Galparsoro Berasategi senar-emazteak, beren seme-alaba Jose Mª, Mª Pilar, Manuela eta Enriquerekin batera. Horiek izan ziren Goiko Errotako azken maizterrak, 1941. urtetik 1969. urte ingurura. Hondakinak hortxe daude.

1923ko Industria Ekoizpenaren Estatistikan, Narciso Zangituk aitortu zuen mila seiehun eta berrogeita hamar ordu argi egin zituela urtean, zentralak 4,5 Kv ekoitzi zuela, baina 4 Kv bakarrik aprobetxatu zituztela, *garraioan galdu zelako gainerakoa*. Ehun eta berrogeita hamar pezetatan kalkulatu zuen zentraleko arduradunaren urteko soldata, errotako etxebizitza-bizilekua doan erabiliz ordaindua.

XIX. mendean oso maiz eraberritzen zituzten horrelako instalazioak, bai energia elektrikoa ekoizteko eta bai jarduera berriak sortzeko ere, energia hidraulikoa aprobetxatuz. Horrela –lehen ere ikusi dugu–, Goiko Errotak 1889. urtean irin-errota izateko hasierako helburu hura baztertu eta, bainuetxearentzat argindarra sortzen hasi zen, eta Iraegiko errotan, berriz, bi helburu horiek bete zituzten batera. Era berean, jarraian ikusiko dugu Lapatza Txikia errota ere txikoria-lantegi bilakatu zela, eta gero argindarra sortzeko erabili zutela eta, geroago, bertan kokatuko zirela Arbildiren tailerra eta Azurmendiren fabrika. ■

La achicoria es una planta herbácea y vivaz de la familia de las compuestas, que suele alcanzar de 50 a 60 cm de altura. Muy común en los bordes de los caminos, riberas y terrenos secos. Propia de las zonas templadas de Europa y América.
Esta planta es conocida desde tiempos de los egipcios y aplicada por sus faraones, fue calificada por el insigne Galeno de *amiga del hígado*. Se trata de una de las plantas más beneficiosas, ya que a sus extraordinarias propiedades medicinales se une la de proporcionar un agradable sustitutivo del café. En los tiempos de escasez, a falta del costoso café, se utilizaba esta humilde planta, tenida en no mucha estima, quizá por ser tan abundante y barata.

2.3 MOLINO DE LAPATZA TXIKIA

En el Listado de actividades de 1860 en Errota Txikia se localiza a Juan Bautista Urretabizkaia con molino de grano, horno de cocer pan y establecimiento de panadería. En este mismo documento en Lapatza Txikia consta la existencia de una tienda de chocolate y confitería con tienda abierta de Francisco Aierbe.

Todas las posteriores referencias a este molino se hacen citándolo como Lapatza Txikia y no tenemos más noticias de su funcionamiento como tal hasta su transformación en fábrica de achicoria.

Efectivamente, el molino de Lapatza Txikia alojó una de las primeras iniciativas empresariales de la localidad, la fábrica de achicoria *La Privilegiada*.

Algunos de los pocos datos que se cuentan de esta pequeña empresa proceden de un catálogo industrial elaborado por Nicolás Bustindui Bergara, *ingeniero industrial, director de la Escuela de Artes y Oficios de San Sebastián y comisionado especial de la Junta Provincial de Guipúzcoa para la Exposición Universal de Barcelona de 1888*. El texto, encargado por la Diputación Provincial, recogía una descripción de las empresas guipuzcoanas representadas en la nave correspondiente. La empresa más importante de achicoria estaba en Tolosa, fundada en 1881, era propiedad de los hermanos Limousin. Pero, además, señalaba la existencia de otra más modesta localizada en Ormaiztegi, *La Privilegiada*, de la que decía lo siguiente:

Hemos constatado que las actividades mercantiles se concatenan unas con otras, siendo su elemento aglutinador el espacio en que se desenvolvieron y, a veces, también sus promotores. Para una mejor comprensión de su evolución hemos optado por presentarlas siguiendo el criterio de su localización, es decir por casas. Tal opción, además, nos ha dado la oportunidad de incluir en cada caso una pequeña referencia de los edificios que configuraron el Ormaiztegi que evocamos, lo que nos ha llevado a incluir en este apartado otra información no relacionada directamente con las actividades mercantiles, pero que consideramos, a buen seguro, nos ayudará a ambientar y comprender mejor nuestro próximo pasado. Nos estamos refiriendo a casos como el de las escuelas o casa rectoral, etcétera.

También cabe señalar que hemos puesto especial empeño en recuperar para nuestro acervo colectivo la información obtenida, pero encaminando especialmente nuestra atención en la persecución del dato que interesa a la historia colectiva de Ormaiztegi. Con gran satisfacción ofrecemos la información toponímica que hemos podido rescatar, principalmente en lo que a nombres de edificios se refiere.

TABLA 5: LISTA NOMINAL DE TODOS LOS INDIVIDUOS QUE EJERCEN EN EL PUEBLO INDUSTRIA, ARTE, PROFESIONAL -1860- (ordenado por localización de la actividad)

Domicilio	Titular	Actividad
Biona (San Andrés, 18)	Francisco Otaño	Fondista Mercader al por menor de telas de lana, lino y algodón Café Tienda de vinos generosos en pequeñas cantidades Tienda de abacería (*) Coche de alquiler de una caballería
Mayoraberría (San Andrés, 17)	Teresa Inchausti	Mercader al por menor de telas de lana, lino y algodón Confitería con tienda abierta Tienda de chocolate Tienda de abacería
Posada (San Andrés, 16)	Joaquín Zufiría	Tratante por contrata con el pueblo para abastecer consumo (un año) Mesonero Tabernero Carnicero (una tabla) Arrendatario de arbitrios municipales
Sarriegui (San Andrés, 11)	José Venancio Sarriegui	Confitero con tienda abierta Tienda de chocolate Tienda de abacería Molino de chocolate movido por una caballería (una piedra, cuatro cilindros y puesto de venta) Prensa de cera que no funciona.
Iriartegoena (San Andrés, 13)	José Mª Salsamendi	Ebanista

4 SALTOKIAK ETA BESTE JARDUERA BATZUK

Aspaldiko 1818. urte hartan herrian taberna bakarra zegoenetik 1860. urtera merkataritza-jardueren egoera erruz aldatu zen, jarraiko taulan ikus daitekeen moduan; taula horretan kokapenaren irizpidearen arabera antolatu dira jarduerak.

Egiaztatu ahal izan dugu merkataritza-jarduerak batzuk besteekin kateatzen direla, eta horien elementu bateratzailea, hain zuzen ere, gauzatu ziren ingurunea izan zela eta, batzuetan, baita horien sustatzaileak ere. Horren bilakaera hobeto ulertu ahal izateko, beren kokapenaren irizpideari jarraiki aurkeztea erabaki dugu, hau da, etxeen arabera. Aukera hori, gainera, kasu bakoitzean, gogoratu nahi dugun Ormaiztegi hori osatu zuten eraikinei buruzko aipamen txiki bat sartzeko aukera izan dugu, eta horri esker, atal honetan zuzenean merkataritza-jarduerekin erlazionatuta ez dagoen bestelako informazioa sartu dugu, gure ustez gure iragan hurbila bere testuinguruan kokatzen eta hobeto ulertzen lagunduko digulako. Hain zuzen ere, eskolak edo erretoretxea bezalako kasuez ari gara.

Aipatu beharra dago, halaber, arreta berezia jarri dugula hainbat informazio berreskuratzeko, gure ondare kolektiboa aberastearren, baina Ormaiztegiko historia kolektiboarentzat interesgarri den datuaren bilaketa horretan jarriz bereziki gure arreta. Poz handiz eskaintzen dugu berreskuratu ahal izan dugun toponimia-informazioa, eraikinen izenekin loturikoa batez ere.

5. TAULA: HERRIAN INDUSTRIAN, ARTEAN, LANBIDEAN ARITZEN DIREN NORBANAKO GUZTIEN IZEN-ZERRENDA -1860- (jardueraren kokapenaren arabera ordenatua)

Helbidea	Titularra	Jarduera
Biona (San Andrés, 18)	Francisco Otaño	Ostalaria Artile, liho eta kotoizko oihalen txikizkako merkataria Kafea Ardo oparoen denda kopuru txikitan Janari-denda (*) Zaldi bakarreko alokairuko gurdia
Mayoraberría (San Andrés, 17)	Teresa Inchausti	Artile, liho eta kotoizko oihalen txikizkako saleroslea Gozotegia eta saltoki irekia Txokolate-denda Janari-denda
Posada (San Andrés, 16)	Joaquín Zufiría	Kontsumoaz hornitzeko herriarekin tratularia kontrata bidez (urte bat) Ostataria Tabernaria Harakina (taula bat) Udal zergen errentaria
Sarriegui (San Andrés, 11)	José Venancio Sarriegui	Gozogilea saltoki irekiarekin Txokolate-denda Janari-denda Zaldi batek mugiarazitako txokolate-errota (errotarri bat; lau zilindro eta saltokiak) Argizari-prentsa ez dabil.
Iriartegoena (San Andrés, 13)	José Mª Salsamendi	Zurgina

Domicilio	Titular	Actividad
Iriarteerdicoa (San Andrés, 14)	Francisco Elzo Martínez	Carpintero
Ermita (San Andrés, 21)	Prudencio Igarzabal	Carpintero
Zamoraberria (San Andrés, 19)	José Albisu	Herrador de bueyes Herrero
Telleriarte (Cuartel Este, 2)	Antonio Aramendi	Cerrajero
Lapatzachiquía (San Andrés, 2)	Francisco Ayerbe	Tienda de chocolate Confitero con tienda abierta
Errotachiquía (San Andrés, 4)	Juan Bautista Urretavizcaya	Horno de cocer pan Panadero Molino de grano
Elizalde (San Andrés, 8)	Juan Manuel Urretavizcaya	Horno de cocer pan Panadero
Goicoerrotea (Cuartel Oeste, 11)	José Gabilondo	Molino de grano (funciona seis meses al año)
Iraeguicoerrota (Cuartel Este, 7)	José Lorenzo Aguirrebengoa	Molino de grano (funciona ocho meses al año)
Celaicoa (Cuartel Este, 14)	Bartolomé Iduin y Marin José Ignacio Badiola	Horno de tejería Una carreta de bueyes
Ciburberria (San Andrés, 24)	Juan Ignacio Mendizabal	Cestero
Iriartechiquía (San Andrés, 12)	José Ignacio Irizar	Abarquero
Oñativia (San Andrés, 9)	Pedro Zanguitu	Cirujano romancista Tratante de sanguijuelas
Baños (Cuartel Este, 1)	Francisco Azcoaga	Establecimiento de baños de aguas minerales frías Un juego de bolos público
Mayorazarra (San Andrés, 20)	José Ángel Elzo	Zapatero
Ciburzarra (San Andrés, 26)	Guillermo Arcelus	Médico Cirujano
Arraitegui (Cuartel Oeste, 3)	José Joaquín Otaño	Dos carretas de bueyes
Lezetaaundia (Cuartel Oeste, 6)	Francisco Mayora	Una carreta de bueyes
Arostegui (Cuartel Oeste, 14)	Manuel Elgarresta	Una carreta de bueyes
Oyarvide (Cuartel Sur, 7)	Francisco Murua	Tratante de ganado lanar
Telleriberria (Cuartel Este, 3)	Joaquín Irizar	Tratante de ganado lanar
Beorreta (Cuartel Sur, 2)	Tomás Mugica	Tratante de ganado cerdal

(*) Abacería o tiendas en que se vende al por menor aceite, vinagre, jabón, velas de sebo, arroz, garbanzos u otras legumbres.
Dirección y Titular: Se ha mantenido la grafía original

Helbidea	Titularra	Jarduera
Iriarteerdicoa (San Andrés, 14)	Francisco Elzo Martínez	Arotza
Ermita (San Andrés, 21)	Prudencio Igarzabal	Arotza
Zamoraberria (San Andrés, 19)	José Albisu	Idi-ferratzailea Errementaria
Telleriarte (Cuartel Este, 2)	Antonio Aramendi	Sarrailagilea
Lapatzachiquía (San Andrés, 2)	Francisco Ayerbe	Txokolate-denda Gozogilea denda irekiarekin
Errotachiquía (San Andrés, 4)	Juan Bautista Urretavizcaya	Ogia egiteko labea Okina Alea ehotzeko errota
Elizalde (San Andrés, 8)	Juan Manuel Urretavizcaya	Ogia egiteko labea Okina
Goicoerrotea (Cuartel Oeste, 11)	José Gabilondo	Alea ehotzeko errota (urtean sei hilabetez aritzen da)
Iraeguicoerrota (Cuartel Este, 7)	José Lorenzo Aguirrebengoa	Alea ehotzeko errota (urtean zortzi hilabetez aritzen da)
Celaicoa (Cuartel Este, 14)	Bartolomé Iduin y Marin José Ignacio Badiola	Teileriako labea Idi-gurdi bat
Ciburberria (San Andrés, 24)	Juan Ignacio Mendizabal	Saskigilea
Iriartechiquía (San Andrés, 12)	José Ignacio Irizar	Abarkagilea
Oñativia (San Andrés, 9)	Pedro Zanguitu	Zirujau erromanzista Izainen tratularia
Baños (Cuartel Este, 1)	Francisco Azcoaga	Ur mineral hotzen bainuetxea Bolatoki publikoa
Mayorazarra (San Andrés, 20)	José Ángel Elzo	Zapataria
Ciburzarra (San Andrés, 26)	Guillermo Arcelus	Mediku Kirurgialaria
Arraitegui (Cuartel Oeste, 3)	José Joaquín Otaño	Bi idi-gurdi
Lezetaaundia (Cuartel Oeste, 6)	Francisco Mayora	Idi-gurdi bat
Arostegui (Cuartel Oeste, 14)	Manuel Elgarresta	Idi-gurdi bat
Oyarvide (Cuartel Sur, 7)	Francisco Murua	Ardi-tratularia
Telleriberria (Cuartel Este, 3)	Joaquín Irizar	Ardi-tratularia
Beorreta (Cuartel Sur, 2)	Tomás Mugica	Zerri-tratularia

(*) Olioa, ozpina, xaboia, gantz-kandelak, arroza, garbantzuak edo beste egoskari batzuk txikizka saltzen dituzten janaridendak edo dendak.
Helbidea eta Titularra: Jatorrizko idazkera mantendu da

28

NOTA de las cuotas que á cada pueblo de esta Provincia ha correspondido por la contribucion industrial y de comercio con arreglo á las bases generales del Reino y su relacion en 45,24 reales por ciento para los 400.000 reales con que han de contribuir para las atenciones de la guerra de Africa.

PUEBLOS.	Industria y Comercio. Reales cént.	45,24 p.% Reales.	PUEBLOS.	Industria y Comercio. Reales cént.	45,24 p.% Reales.	PUEBLOS.	Industria y Comercio. Reales cént.	45,24 p.% Reales.
Aldeiriqueta	316,50	143	Sumas	189.543,52	85.749	Sumas	350.663,42	158.639
Albistur	1.387 **	628	Elgoibar	10.417 **	4.713	Oñate	28.578,60	12.930
Alegria	11.224 **	5.078	Eldunyen	1.300 **	588	Oreja	400 **	181
Alquiza	776,25	351	Elgueta	6.054 **	2.737	Orendain	370 **	168
Alzaga	60 **	27	Escoriaza	6.346 **	2.871	Orio	2.280 **	1.032
Alzo	698 **	311	Espinoza	650 **	294	Oruniztegui	4.456 **	2.016
Amezqueta	4.037 **	1.826	Fuenterrabia	8.618 **	3.898	Oyarzun	16.836 **	7.616
Andoain	20.467 **	9.259	Guinea	718,50	325	Pasages San Juan	2.648 **	1.198
Asurta	1.224,50	554	Gaviria	1.453,50	657	Pasages San Pedro	1.472,50	666
Azcoitia	5.007,70	2.265	Gaviola	398,50	180	Placencia	10.938 **	4.948
Aramaz	560 **	253	Goyaz	68,80	30	Regil	2.575 **	1.165
Arechavaleta	8.554 **	3.870	Gudugarreta	163 **	74	Rentería	26.306 **	11.901
Arriarán con Ichaso	2.193,50	992	Gaetano	4.022,50	1.820	Salinas	3.659,50	1.655
Astrusu	3.369 **	1.524	Hernani	13.382 **	6.054	San Sebastian	208.034,50	94.115
Astigarraga	1.475 **	667	Hernialde	480 **	217	Adana	600 **	272
Astigarreta	342,50	155	Ibarra	3.813 **	1.725	Aisa	420 **	190
Atauri	8.192,07	3.706	Ibarteguieta	805 **	364	Igueldo	300 **	136
Aya	6.363 **	2.879	Idiazabal	4.587,60	2.075	Zubieta	680 **	308
Azcoitia	16.478,50	7.455	Irun	29.221 **	13.220	Segura	6.116,50	2.767
Azpeitia	30.096 **	13.616	Irura	11.909 **	5.388	Sorasilla	60 **	27
Baliarrain	60 **	27	Isasondo	2.608 **	1.180	Tolosa	102.313,18	46.286
Beasain	4.682 **	2.118	Larraul	284 **	128	Urnieta	17.803 **	8.054
Beinama	920 **	416	Lazcano	3.180,50	1.440	Usurbil	4.980 **	2.253
Belaunza	1.243 **	562	Leaburu	1.248,50	565	Vergara	48.329,50	21.864
Berastegui	2.714 **	1.228	Legazpia	7.784 **	3.522	Valonia	472 **	213
Berrola	736 **	333	Legorreta	4.647 **	2.102	Villabona	5.746 **	2.600
Cegama	9.959 **	4.506	Lezo	2.083 **	941	Villafranca	15.618,50	7.065
Cerain	247 **	112	Lizarza	2.930 **	1.326	Villareal	3.418 **	1.546
Cestona	14.018 **	6.342	Mondragon	16.621 **	7.520	Zaldivia	2.470,40	1.117
Cizurquil	2.746 **	1.242	Motrico	14.474 **	6.548	Zarauz	7.634 **	3.454
Deva	8.861 **	4.009	Mutiloa	672 **	304	Zumarraga	4.727,50	2.139
Eibar	20.546 **	9.295	Olaverría	186,50	84	Zumaya	5.228,50	2.365
Sumas	189.543,52	85.749	Sumas	350.663,42	158.639	Sumas	886.134,60	400.886

Tolosa 6 de Mayo de 1861.

El Diputado general.

Vicente de Artazcoz

29



Nota de la contribucion industrial y de comercio que corresponde á Ormaiztegui con arreglo á las bases generales del Reyno, y su parte alicuota para los 400,000 reales para la guerra de Africa.

		Cuotas Rs.	Total Rs.	Cents.
Tarifa N.º 1.º				
2 de segunda clase	á	310	620	"
1 de tercera — "			250	"
3 de quinta — "	á	100	300	"
5 de sesta — "	á	60	300	"
10 de sétima — "	á	30	300	"
2 de octava — "	á	16	32	"
Tarifa N.º 2.º				
1 Arrendatario de arbitrios municipales por 12000 rs	á	½ p%	60	"
1 Establecimiento de baños minerales			700	"
2 Tratantes de ganado lanar	á	150	300	"
1 — " — " de cerda			200	"
4 Piedras de molino que trabajan seis meses	á	140	560	"
2 — " — " — " menos de seis meses	á	80	160	"
1 Piedra de moler chocolate movida por caballeria			600	"
4 Carretas de bueyes de trasporte	á	6	24	"
1 Caballeria para coche de alquiler			50	"
Total			4456	"

Corresponde por el cuarenta y cinco reales veinte y cuatro céntimos por ciento, la cantidad de dos mil diez y seis reales.

Tolosa 6 de Mayo de 1861.

El Diputado general

Vicente de Astarcoz

Las leyes dictadas en Toledo (1480) y Sevilla (1500), ordenaron la edificación de casas en las ciudades y villas para juntarse sus *ayuntamientos*.
Hasta entonces las reuniones de los concejos se venían celebrando en casas particulares, pórticos de iglesias, etcétera.
En el caso de Ormaiztegi sabemos que *siendo una mera colación, se agregó á la vecindad de Segura mediante escritura de concordia otorgada á 22 de marzo de 1384, conservando sus montes y bienes y su administración económica, aunque sujetos al alcalde de aquella villa en lo civil y criminal... Perduró esta unión hasta el año 1615, en que obtuvo el titulo de villa de por si, con la jurisdicción civil y criminal, mero y mixto imperio y constituyó municipio independiente. Por esta gracia tuvo que contribuir á la real hacienda con 68,75 pesetas por cada uno de los 123 vecinos que tenía a la sazón*[34].

4.1 LA CASA CONCEJIL

No tenemos noticias de la localización de la primera casa consistorial de Ormaiztegi, ni hemos obtenido ningún otro conocimiento de esta edificación. Nos consta su existencia desde 1725, por cuanto las cuentas municipales de ese año recogen el gasto correspondiente a las obras del nuevo horno de cocer pan en la casa concejil[32].

Hacia 1758 dieron inicio las obras de construcción de una nueva casa consistorial, en el emplazamiento actual. Estas obras fueron financiadas con el producto de la renta de la casería Iraegi y la taberna de *vino clarete* existente en la misma. El dicho caserío Iraegi pertenecía al Ayuntamiento por venta formalizada en escritura pública otorgada ante Francisco de Izagirre, escribano numeral de la misma, el 4 de junio de 1698, por el licenciado Antonio de Oreitia y Anamaría de Igartzabal, su mujer, hija legítima y heredera de d. Antonio de Igartzabal, vecino que fue de Ormaiztegi, para el pago de 1.000 ducados de principal y sus réditos[33].

Las casas consistoriales habitualmente se localizan presidiendo la plaza pública y adoptan unas características específicas, la principal es la apertura al espacio público, la plaza, mediante un amplio soportal en arcos, así como el balcón en la primera planta y la incorporación a la fachada principal de

30
1758 urtean eraikitako udaletxea
Casa consistorial construída en 1758

4.1 KONTZEJU ETXEA

Ez dugu albisterik Ormaiztegiko lehenengo udaletxearen kokapenari buruz, eta ez dugu eraikin horri buruzko beste inolako berririk jaso. Badakigu 1725. urteaz geroztik badagoela, urte horretako udal kontuetan kontzeju-etxean ogia egiteko labe berriaren obrei zegokien gastua jasotzen baita[32].

1758. urte aldera, udaletxe berri baten eraikuntza-lanak hasi zituzten, egun duen kokapenean. Obra horiek Iraegi baserriaren errentaren emaitzarekin eta bertan zegoen *ardo gorriaren* tarbernatik irabazitakoarekin finantzatu zituzten. Iraegi baserria Udalarena zen 1698ko ekainaren 4an bertako eskribau zenbakidun Francisco de Izagirreren aurrean egindako eskritura publikoaren bidez saldu zutelako Antonio de Oreitia lizentziatuak eta haren emazte Anamaria de Igartzabalek, hura izaki Antonio de Igartzabal ormaiztegiarraren alaba oinordekoa, nagusiagatik 1.000 dukat eta haren emaitzak ordaintzeko[33].

Udaletxeak, oro har, herriko plazaren eraikin nagusi gisa kokatu ohi dira, eta ezaugarri berezi batzuk izan ohi dituzte; ezaugarri nagusia, hain zuzen, arkuez osatutako aterpe baten bidez eremu publikora edo plazara irekita egotea da, eta lehen solairuan balkoia edukitzea eta fatxada nagusian armarria edo erlojua edukitzea. Horietako ezaugarrietako bat ere ez zen betetzen 1758. urtean eraikitako kontzeju-etxe apalean, eta ez zuten herriko plazan ere kokatu, baizik eta errepidearen ertzean. Eraikin soil bat zen, estalkia bi isuritara zuena, eta behe-solairua, bi goi-solairu eta ganbarak osatua. Ziurrenik, goi-solairu bakarra izango zuen hasieran. Fatxada nagusian, errepide aldera ematen zuela, balkoi bat zegoen. Horren egikeran ez zen nabari izaera publikoa salatzen zuen inolako ezaugarririk.

1931. urtean udal eraikin hau eraisteari ekin zioten, eta horren ordez, egungo eraikina altxatu zuten. Kontzeju-etxe zaharraren egoera negargarria eta, errepidearen trazaketa zela eta, lerrokadura berri bat eman beharrak eragin zuten udal erabaki hori, baina Aldundiaren oniritzia ere jaso zuen, eta inbertsio horretarako diru-laguntza ere eman zuen. Udaletxe berria Biona etxearen angeluarekin eta sakristiaren angeluarekin lerrokatuta eraiki zuten, asmo handiagoko premien programa bat kontuan izanik, eta horren barruan sartu ziren, gainera, udalaren administrazio-bulegoak, ostatua, harategia eta bi etxebizitza.

Toledon (1480) eta Sevillan (1500) emandako legeek hirietan eta hiribilduetan etxeak egitea agindu zuten bertako biztanleak *elkartu zitezen*.
Ordu arte, kontzejuen bilerak etxe partikularretan, eliza-atarietan eta beste zenbait tokitan egin izan zituzten.
Ormaiztegiko kasuari dagokionez, badakigu *kolazio bat besterik ez zela, Segurako udalarekin bat egin zuela 1384ko martxoaren 22an egindako adiskidantza-eskritura baten bitartez, bere mendi eta ondasunak eta bere administrazio ekonomikoa mantenduz, baina udal hartako alkatearen mende jarriz gai zibil eta kriminaletan... Elkartze horrek 1615. urte arte iraun zuen, urte horretan berezko udalaren titulua erdietsi baitzuen, bere jurisdikzio zibil eta kriminalarekin, aginpide huts eta mistoarekin, eta, hala, bere gaineko udal bihurtu zen. Dohaintza horri esker errege-ogasunari 68,75 pezeta ordaindu behar zizkion garai hartan zituen 123 biztanleengatik*[34].

31
Ormaiztegi, 1915
Erdialdean udaletxea ikus daiteke
En el centro se localiza la casa consistorial

escudo o reloj. Casi ninguna de estas particularidades se dio en la discreta casa concejil construida en 1758, ni se localizó en la plaza pública, sino al borde de la carretera. Se trataba de un edificio exento, con cubierta a dos aguas, compuesto de planta baja, dos plantas altas y desván. Posiblemente en sus inicios contaba con una sola planta alta. La fachada principal, orientada hacia la carretera, contaba con un balcón. Su factura no presentaba particularidad alguna que delatara su carácter público.

En 1931 se procedió al derribo de este edificio municipal, para su sustitución por la edificación actual. La situación deplorable de la vieja casa concejil y la necesidad de realinear la misma, por exigencias de trazado de la carretera, motivaron la decisión municipal, que contó con el beneplácito de Diputación, que además apoyó económicamente la inversión. El nuevo ayuntamiento se hizo alineado con el ángulo de la casa Biona y el ángulo de la sacristía y atendiendo a un programa de necesidades más ambicioso, en el que se incluyó además de las dependencias administrativas municipales, posada, carnicería y dos viviendas. Fue autor del presente proyecto el arquitecto de Ordizia, Antonio Agirre y las obras fueron adjudicadas a la sociedad *Echeverria, Iztueta y Leunda*, también de Ordizia, con un presupuesto que ascendió a 48.950,20 pesetas[35].

La casa consistorial actual en su factura original tampoco contó con el tradicional soportal, pero si de un amplio zaguán formado entre las puertas metálicas situadas a ras de fachada y la puerta de entrada al edificio propiamente dicho. En la reforma llevada a efecto el año 1996 se formó el actual soportal, uniendo los espacios correspondientes al zaguán y los dos locales situados a ambos lados del mismo, eliminándose la cancela o puerta metálica situada a línea de fachada principal.

Iñaki Linazasoro[36] lo califica de *gracioso estilo vasco* y lo describe señalando que *tiene dos fachadas preferidas por el arquitecto. Son las que hacen escuadra sobre la más transitada arteria. Carece de porche en el bajo. La primera planta con los vanos rematados en frontón y un hermoso balcón volado que circunda las dos fachadas. Segunda planta con balcones y ventanas y un altillo de ladrillo, bajo generoso alero. El blasón de la Villa se halla dignamente anclado en escuadra a nivel de segunda planta*.

Con motivo de la construcción de la actual casa consistorial, cuya fachada principal cambió de orientación respecto de su precedente, se procedió a la formación de la arboleda que enlaza dicha casa concejil, Iriarte Erdikoa y la plaza pública, para lo que el Ayuntamiento precisó adquirir más suelo. Para ello, es decir, construcción de la nueva casa consistorial y *avenida*, siendo alcalde Juan Antonio Izuzkitza Albisu, se procedió a la adquisición de seiscientos sesenta y cuatro metros cuadrados de terreno pertenecidos de las caserías Iriarte Erdikoa e Iriarte Txikia, propiedad de José Julián Pildain Baztarrika y María Ignacia Rezusta Berasategi, respectivamente, lo que costó a las arcas municipales tres mil novecientas ochenta y cuatro pesetas, a razón de seis pesetas el metro cuadrado de terreno, lo que se formalizó en escritura pública otorgada el 1 de abril de 1931[37].

También, el 23 de agosto de 1932, se formalizó una pequeña operación de permuta (37 m²) con Serapio Mujika, propietario de la contigua casa Biona *para ensanche de la carretera con el trozo sobrante o disponible quedado al Ayuntamiento, contiguo a la huerta del referido Dn Serapio del terreno adquirido al Sr. Pildain para la construcción de la nueva Casa Consistorial y Avenida*[38].

Desde antiguo, la casa concejil ha albergado, además de salón de reuniones y oficinas municipales, otros servicios de ámbito local, entre los que destacan la alhóndiga, posada y taberna. Posteriormente fueron incorporándose otros servicios como el teléfono público, escuelas, ambulatorio médico, hogar del jubilado, etcétera. ■

Proiektu honen egilea Antonio Agirre arkitekto ordiziarra izan zen eta obra horiek *Echeverria, Iztueta y Leunda* sozietateari esleitu zizkioten, hori ere Ordiziakoa, 48.950,20 pezetara iritsi zen aurrekontu baten arabera[35].

Egungo udaletxeak ere, jatorrizko itxuraren arabera, ez zuen arkupe tradizionalik, baina bai ezkaratz zabal bat, fatxadaren arrasean kokatutako ate metalikoen eta eraikin barrura sartzeko atearen artean. 1996. urtean egindako berritze-lanean egin zuten egungo arkupea, ezkaratz horrek eta horren bi aldeetara kokatutako bi lokalek osatutako eremuak bilduz, eta fatxada nagusiaren lerroan kokatutako ate metaliko edo burdin langa ezabatuz.

Iñaki Linazasorok[36] *grazia handiko euskal estilotzat kalifikatu zuen*, eta horren deskribapena egiteko orduan dio *arkitektoaren gustuko bi fatxada dituela. Jende gehien ibiltzen den kalearekiko eskuaira egiten dutenak dira. Ez du arkuperik behealdean. Lehen solairuko bahoen gainean frontoia du eta balkoi irten eder bat, bi fatxadak inguratzen dituela. Bigarren solairuan balkoiak eta leihoak ditu, baita adreiluzko goitegi bat ere, teilatu-hegal dotore baten azpian. Udal armarria duintasunez ezarria dago bigarren solairuko eskuairan*.

Egungo udaletxearen eraikuntza egin zutenean, horren fatxada nagusia orientazioz aldatu zuten aurreko fatxadarekin erkatuta, eta horrekin batera, kontzeju-etxe hori, Iriarte Erdikoa eta herriko plaza lotuko zituen zuhaiztia egiteari ekin zioten, eta horretarako, udalak lurzoru gehiago eskuratu behar izan zuen. Horri begira, hau da, udaletxe berria eta *etorbidea* eraikitzearren, Juan Antonio Izuzkitza Albisu alkate zela, seiheun eta hirurogeita lau metro koadro lursail erosi zituzten hurrenez hurren Jose Julian Pildain Baztarrikaren eta Maria Ignacia Rezusta Berasategiren jabetzako Iriarte Erdikoa eta Iriarte Txikia etxeen lurretan, eta hala, udal kutxak hiru mila bederatziehun eta laurogeita lau pezeta ordaindu behar izan zituen, lur metro koadro bakoitzeko sei pezeta, eta hori 1931ko apirilaren 1ean egindako eskritura publikoan gauzatu zen[37].

32
Egungo udaletxea, 1931n eraikia
Casa consistorial actual, construída en 1931

Halaber, 1932ko abuztuaren 23an, truke-eragiketa txiki bat (37 m²)egin zen, ondoko Biona etxearen jabe zen Serapio Mujikarekin, *soberan geratzen den zatiarekin edo Udalari erabilgarri geratu zaionarekin errepidea zabaltzeko, aipatutako Serapio jaunaren baratzaren ondoan Pildain jaunari erositako lurretan, Udaletxe berria eta Etorbidea eraiki ahal izateko*[38].

Antzinatik, kontzeju-etxearen barruan, bilera-aretoa eta udal bulegoez gain, udal esparruko beste zerbitzu batzuk ere bildu izan dira, eta horien artetik, alondegia, ostatua eta taberna nabarmentzen dira. Gero, beste zerbitzu batzuk ere gehitzen joan ziren, hala nola telefono publikoa, eskolak, anbulatorio medikoa, zaharren egoitza eta abar. ■

LA ALHÓNDIGA MUNICIPAL

Pablo Gorosabel[39] nos señala que: *las Juntas generales celebradas en la villa de Azkoitia el año 1574, acordaron que la de Vergara, San Sebastián, Segura, Mondragón y demás partes donde hubiese comercio de granos, hiciesen sus alhóndigas en el término de un año, so pena de cincuenta mil maravedís. Las mismas Juntas determinaron, además, que esos dichos pueblos señalasen dentro de un mes los sitios convenientes para su construcción en dichas casas [...] Las celebradas en la villa de Deba en 1588 trataron de fijar el número de semejantes establecimientos, en vista de los inconvenientes que se experimentaban de permitirse en parajes no poblados, como exentos de la vigilancia que debe tener la autoridad municipal respecto de la legalidad de las pesas y medidas y otras cosas. Consiguientemente, acordaron que solo subsistiesen las alhóndigas de ciertos pueblos más principales y de mayor comodidad para el comercio; prohibiéndose en todos los demás la descarga de cereales, otras especies de mantenimientos y mercaderías, bajo ciertas penas [...] Semejante arreglo de alhóndigas, que impedía hasta cierto punto el surtido de granos, vinos y otros comestibles en gran número de pueblos, en cuanto prohibía a los arrieros y otros trajinantes poder depositar en paraje seguro hasta su venta, no llegó a ejecutarse. Muy al contrario, el establecimiento de los arbitrios municipales y provinciales durante el siglo XVII tuvo necesaria la subsistencia de semejantes casas para el depósito de los géneros precisos a la vida, y recaudación de tales impuestos*.

La gestión y recaudación de los recursos, tanto de tipo patrimonial -*bienes de propios*- como de tipo fiscal fue una de las actividades permanentes de los pueblos y villas desde sus inicios. Así recaudaban todo tipo de impuestos a través del tesorero o depositario (los del Reino, la Provincia y el Municipio). Los arbitrios municipales, conocidos como sisas, gravaban la venta de vino, aguardiente o carne y se establecían para sufragar los sueldos de los empleados municipales (médico, maestro, secretario o alguacil), aunque en situaciones concretas de guerra u otra calamidad también podía destinarse para afrontar gastos de carácter extraordinario. Los arbitrios se establecían tanto por las Juntas Generales, como por la propia villa y se recaudaban mediante remates o subastas. Además de los productos de consumo, se remataba el peso real de la alhóndiga.

Si bien sabemos que la existencia de la alhóndiga en Ormaiztegi viene de antiguo, tenemos noticias de que en 1862, bajo planos de Juan José Zunzunegi, se llevaron a cabo las obras de habilitación de la alhóndiga en la casa concejil[40].

En la casa consistorial actual la alhóndiga se localizó en un local anexo a la edificación, que ya desapareció, donde posteriormente se localizaron aulas escolares e incluso el primer hogar del jubilado de la localidad. ■

UDAL ALONDEGIA

Pablo Gorosabelek[39] honelaxe dio: *1574. urtean Azkoitian egindako Batzar Nagusiek erabaki zuten Bergaran, Donostian, Seguran, Arrasaten eta bihien merkataritzarik egiten ez zuten gainerako tokietan, urtebeteko epean egin zitzatela beren alondegiak, bestela berrogeita hamar mila maraiko zigorra ezarriko zietelako. Batzar horietan erabaki zuten, halaber, herri horiek hilabete baten epean jakinarazi beharko zituztela etxe horiek eraikitzeko toki egokiak [...]. Debako hirian 1588. urtean egindako batzarretan, eraikin horien kopurua finkatzen ahalegindu ziren, inor bizi ez zen parajeetan utziz gero sortuko ziren eragozpenak ikusita, eta halaber, udal agintariek pisuak eta neurriak eta beste gauza batzuen legezkotasunaz eduki beharreko arduratik salbuetsita zeudela. Horren ondorioz, herri nagusienetako eta merkataritzarako erosotasun handieneko alondegiak bakarrik mantentzea erabaki zuten, eta debekatu egin zuten gainerako guztietan zerealak deskargatzea, edota beste mantentze modu eta salgai batzuk, bestela halako zigorra ezarriko zietelako [...]. Alondegien antolamendu horrek, nolabait ere bihien, ardoen eta beste hainbat jangairen aukera eragozten zuelarik herri kopuru handi batean, debekatu egiten zien mandazainei eta beste tratulari batzuei salgaiak toki seguruan utzi ahal izatea haiek saldu bitartean, baina ez zen sekula gauzatu. Kontrakoa baizik, izan ere udal eta probintzia mailako arbitrioak ezartzeko, XVII. mendean, beharrezkoa izan zen halako etxeak irautea, bizitzeko beharrezkoak ziren salgaiak uzteko eta zerga horiek biltzeko*.

Baliabideen kudeaketa eta zergabilketa, bai ondarea osatzen zutenena –*propioen ondasunak*– eta bai zerga arlokoena ere, herrietako eta hiribilduetako jarduera iraunkorretako bat izan zen hasiera-hasieratik. Horrela, diruzainaren edo gordailuzainaren bitartez (Erresumakoak, Probintziakoak eta Udalekoak) era guztietako zergak biltzen zituzten. Udal arbitrioak, sisa izenez ezagutzen zirenak, ardoaren, edari bizien edo haragiaren salmentari ezartzen zitzaizkion eta udal langileen soldatak (mediku, maisu, idazkari edo agoazilenak) ordaintzeko ezartzen zituzten, baina gerrako egoera jakin batzuetan edo beste hondamendi batzuetan, ez-ohiko gastuei aurre egiteko ere erabil zitezkeen. Batzar Nagusiek edo udalak berak ezar zitzaketen arbitrioak, eta erremate edo enkante bidez biltzen zituzten. Kontsumoko produktuez gain, alondegiko benetako pisuari ere ezartzen zitzaion errematea.

Nahiz badakigun alondegia aspalditik dagoela Ormaiztegin, 1862. urteko albiste batzuek diote Juan Jose Zunzunegik egindako plano batzuen arabera, kontzeju-etxean alondegia prestatzeko lan batzuk egin zituztela[40].

Egungo udaletxean eraikinaren ondoko lokal batean kokatu zuten alondegia, nahiz jadanik desagertua dagoen hura; gero, eskolako gelak ere bertan kokatuko ziren, baita herriko zaharren lehen egoitza ere. ■

POSADA Y TABERNA

Según Gorosabel, *las posadas, ventas y tabernas aunque establecimientos de una industria privada, participan de la consideración de casas públicas, puesto que son destinadas al servicio de cuantos van a ellas, sea a hospedarse, sea comprar los líquidos que se venden en las mismas. Por esta razón, las leyes generales del Reino han atendido a esta materia, y las autoridades municipales ejercen en esta cierta vigilancia e inspección, en un sentido o en otro*. También la Provincia, a través de las Juntas y la Diputación intervino en torno a estos establecimientos, de lo que Gorosabel (libro II, pp. 227 a 230) nos da extensa cuenta.

Este mismo autor nos afirma que: *La libre facultad de establecer y conservar posada pública no aparece coartada en ella [Gipuzkoa] a sus naturales, vecinos y moradores, en los tiempos antiguos*. Parece ser que las Juntas apenas trataron sobre este particular hasta entrado el siglo XVIII y precisamente, entre otros muchos, nos habla de una cuestión suscitada en Ormaiztegi: *consta así bien que un vecino de la villa de Ormaiztegui intentó en 1797 establecer posada en su casa llamada Elizaldia [Elizalde] presentando al efecto la competente solicitud a las Juntas celebradas el mismo año. Remitida su resolución a la Diputación, aparece del registro de sus actas que, en vista de la oposición hecha por el Ayuntamiento, denegó a dicho vecino la autorización pedida.*

Las Juntas celebradas en 1775 decretaron *que las mismas republicas arreglasen el número y circunstancias de las posadas que se necesitan en ellas, procediendo en esto con el principal objeto de beneficio público*. En 1784 acordaron, igualmente que se cumpliesen los decretos hechos anteriormente para que no permitiesen posadas y ventas en parajes despoblados. Finalmente, en 1792 se estableció que nadie pudiese tener posada sin licencia escrita del Ayuntamiento respectivo, y que estas corporaciones formasen cada año arancel de los precios que hubiesen de llevar.

Según Gorosabel, el tema del arancel viene de antiguo y al respecto cita las Juntas celebradas en Elgoibar en 1570, en que se acordó que *los alcaldes apremiasen a cuantos quisiesen tener posadas a conservar tablilla y arancel y todo recaudo para los caminantes*... En este mismo sentido las Juntas de Zestoa de 1590 acordaron que *los alcaldes, en observancia de las leyes del Reino, visitasen cada año los mesones públicos de sus respectivas jurisdicciones, dando arancel de precios que hubiesen de pagar los viajeros*. En esta Junta de 1590 se estableció un arancel de precios que no fue modificado hasta las Juntas celebradas en Donostia en 1680, sin que posteriormente conste que la provincia se haya ocupado de este particular, limitándose las Juntas a recomendar su cuidado a las respectivas justicias y ayuntamientos. Con el tiempo, también lo que éstos desatendieron, *dejando el arreglo de precios a los mismos posaderos y viajeros entre si*.

Respecto de las tabernas cabe señalar, que al igual que los mesones y ventas, estuvieron prohibidas en los despoblados por varias disposiciones de Juntas, como medida de policía contra malhechores, según nos refiere Gorosabel. Así *en 1732 mandaron que se quitasen los establecimientos de las casas de Santa Lucia, Floreaga y Menta, de las jurisdicciones de las villas de Ezquioga, Gaviria y Beasain*. Siguiendo a Gorosabel sabemos que para regularizar el ejercicio de esta industria las Juntas en 1824 hicieron un Reglamento. En 1859 las Juntas declararon que *las tabernas públicas establecidas en debida forma son los únicos puestos en que pueda venderse vino, sin que estén autorizadas para ello las posadas, aun cuando se consuma sin salir de las mismas.*

OSTATUA ETA TABERNA

Gorosabelen hitzetan, *ostatuak, bentak eta tabernak, industria pribatu bateko saltokiak izan arren, etxe publikotzat hartuak izan dira, bertara doazen guztien zerbitzurako erabiltzen baitira, dela ostatu hartzeko izan, dela bertan saltzen dituzten edariak edateko izan. Arrazoi horregatik, Erresumako lege orokorrek kontuan izan dute gai hori, eta udal agintariek nolabaiteko zaintza eta ikuskaritza egiten dute halakoetan, era batera edo bestera.* Probintzak ere, Batzarren edo Aldundiaren bitartez, saltoki hauen gainean jardun zuen, eta horren berri zabala eskaintzen digu Gorosabelek (II. liburua, 227tik 230era orr.).

Egile horrek berak baieztatzen digunez *ostatu publiko bat finkatzeko eta mantentzeko ahalmen hori ez zaie bertako herritarrei, auzotarrei eta bizilagunei eragozten bertan [Gipuzkoan], antzinako garaietan.* Badirudi Batzarretan ia ez zutela gai horren inguruan jardun XVIII. mendean sartuak egon arte eta, hain zuzen ere, besteak beste, Ormaiztegin gertatutako auzi baten inguruan mintzatzen zaigu: *argi eta garbi ageri da Ormaiztegiko udaleko herritar bat Elizaldia [Elizalde] izeneko bere etxean ostatua jartzen ahalegindu zela 1797. urtean, eta horretarako, dagokion eskaera egin ziela urte horretan bertan egindako Batzarrei. Haren erabakia Aldundiari bidali ondoren, bertako akten erregistroan adierazten da, Udalak egindako aurkakotasun horretan, ukatu egin ziola herritarrari eskatutako baimena.*

1775. urtean egindako Batzarretan ezarri zutenez, *errepublikek berek moldatu beharko zituzten bertan beharrezkoak zituzten ostatuen kopurua eta ezaugarriak, eta horren bidez, onura publikoaren helburu nagusia beteko zen.* 1784. urtean, halaber, erabaki zuten lehendik eginak zituzten dekretuak bete beharko zirela, biztanlerik gabeko parajeetan ostaturik eta salmentarik egin zezatela eragoztearren. Azkenik, 1792an finkatu zuten inork ezin zuela ostaturik eduki dagokion Udalaren baimen idatzirik gabe, eta ostatu horrek edukiko zuten prezioen tasa udalek berek ezarriko zutela.

Gorosabelek dioenez, prezio-tasaren gai hori aspalditik zetorren, eta horrekin loturik, Elgoibarren 1570. urtean egindako Batzarra aipatzen du; batzar horretan erabaki zuten *alkateek hertsatu zitzatela ostatuak eduki nahi zituzten guztiak, taulatxoa eta prezio-tasa eta bidaiariek beharrezkoa zuten guztia edukitzera...* Ildo beretik, Zestoan 1590. urtean egindako Batzarrak erabaki zuen *alkateek, Erresumako legeak kontuan izanik, urtero beren jurisdikzioetako ostatu publikoak berrikus zitzatela, bidaiariek ordaindu behar zuten prezio-tasa finkatuz.* 1590. urteko Batzar horretan ezarritako prezio-tasa ez zuten aldatuko Donostian 1680. urtean egindako Batzarreraino, eta ez dago berririk probintzia gai horri buruz berriz jardun zirenik, eta gai hori, kasuan egokitzen zen justiziaren eta udalaren esku uztera mugatu ziren Batzarrak. Denborak aurrera egin ahala, jorratu ez zituzten gaiak ere haien esku utzi zituzten, *prezioak finkatzea ostalarien eta bidaiarien esku utziz.*

Tabernei dagokienez, berriz, aipatu beharra dago, ostatuak eta bentak bezalaxe, Batzarrek emandako xedapen batzuen arabera debekatuta egon zirela biztanlerik gabeko tokietan, gaizkileen aurkako polizia-neurri gisa, Gorosabelek dioskun bezala. Horrela, *1732an agindu zuten ken zitzatela Santa Lucia, Floreaga eta Menta etxeetako establezimenduak, Ezkio, Gabiria eta Beasaingo udalen jurisdikzioetan.* Gorosabalekin jarraituz, badakigu industria honen jarduera arautzearren, Batzarrek Araudi bat egin zutela 1824an. 1859. urtean Batzarrek erabaki zuten *modu egokian ezarritako taberna publikoak zirela ardoa saldu ahal izateko toki bakarrak, eta ez daude baimenduta horretarako ostatuak, nahiz eta horietatik atera gabe kontsumitzen den.*

En el caso de Ormaiztegi presumimos de la existencia de una única posada, localizada en la misma casa concejil. Según hemos señalado, la primera referencia data de 1725. En 1758, las cuentas municipales[41] nos informan que la casa concejil alberga el mesón y taberna de vino navarro y otras provisiones, cuyo arrendamiento reportaba a las arcas municipales mil reales de vellón al año. En tiempos pretéritos la identificación de la casa concejil con la posada fue total, así Serapio Mujika[42] nos indica *En edificio propiedad de la villa, destinado á posada, están decorosamente instaladas las oficinas municipales,* lo que nos da idea de la preponderancia de la posada sobre las dependencias administrativas municipales en las pequeñas localidades.

Con independencia de la posada, tenemos conocimiento de la existencia de otras tabernas en la localidad, siendo la referencia más antigua (1758) la correspondiente a la taberna de *vino clarete* de la casería Iraegi. Posteriormente el Ayuntamiento anualmente sacaba a remate la adjudicación de las tabernas: 1866[43], Antonio Antia, dos tabernas; 1868[44], Joaquín Zufiria, dos tabernas, etcétera. En 1907[45] el horario de las tabernas en invierno estaba fijado de 8:00 a 12:00 y de 16:00 a 20:00 horas, en tanto que en verano (junio a setiembre) de 8:00 a 12:00 y 17:00 a 21:00 horas.

Si bien las primeras referencias de mesoneros datan de inicios del siglo XIX, la secuencia ininterrumpida de los mismos que hemos podido formar da inicio el año 1829 y en síntesis responde al siguiente esquema:

TABLA 6: POSADEROS DE ORMAIZTEGI

Período	Identidad del mesonero/posadero
1829/1847?	Santos Arantzegi Etxeberria
1854/1864	Joaquín Zufiria Peña
1866/1870	José Mª Mendizabal Arzelus
1871	Pedro Garmendia Katarain
1871/1880	José Ignacio Murua Lasa
1880/1883	Julián Otaño Alustitza
1883/1890	Pedro Aranburu
1890/1914	Julián Otaño Alustitza
1914/1925	Anselmo Otaño Izagirre
1925/1928	José Lorenzo Irizar Arzelus
1928/1930	Juan Ramón Mantzisidor Mendizabal
1930/1944	María Andresa Goia Agirre (Vda. de Mantzisidor)
1944/1945	Esteban Berasategi
1945/1965	Pablo Apaolaza Irazusta
1965/1996	Iñaki Apaolaza Mendia

Elaboración propia.

Ormaiztegiren kasuan, uste dugu ostatu bakarra izan zela bertan, kontzeju-etxean kokatua. Arestian esan dugunez, lehen aipamena 1725. urtekoa da. 1758an, udal kontuetan adierazten zaigu[41] kontzeju-etxearen barruan ostatua eta ardo nafarraren eta beste hornigai batzuen taberna bat zegoela, eta horren errentak urtean mila erreal koarto ematen zizkiola udalaren diru-kutxari. Lehenagoko garaietan kontzeju-etxearen eta ostatuaren arteko berdinkatze hori erabatekoa zen, eta horrela, esate baterako, Serapio Mujikak[42] azaltzen digu *Udalaren jabetzako eta ostatu izateko eraikin batean apain-apain instalatuta daudela udal bulegoak,* eta horrek garbi adierazten digu ostatua udal administrazio-bulegoen gainetik zegoela herri txikietan.

Ostatua alde batera utzirik, badakigu herrian bertan beste taberna batzuk ere izan zirela, eta aipamenik zaharrena (1758) Iraegi baserriko *ardo gorriaren* tabernari buruzkoa da. Geroago, Udalak urtero enkantera ateratzen zuen tabernen esleipena: 1866[43], Antonio Antia, bi taberna; 1868[44], Joaquin Zufiria, bi taberna, eta abar. 1907. urtean[45] tabernen neguko ordutegia 8:00etik 12:00era eta 16:00etik 20:00era finkatua zegoen, eta udan (ekainetik irailera), berriz, 8:00etik 12:00era eta 17:00etik 21:00era izaten zen.

Ostalarien lehenengo aipamenak XIX. mendearen hasierakoak badira ere, osatu ahal izan dugun etengabeko segida hori 1829. urtean hasten da eta, laburbilduz, ondorengo eskema honi jarraitzen dio:

6. TAULA: ORMAIZTEGIKO OSTALARIAK

Epea	Ostalarien nortasuna
1829/1847?	Santos Arantzegi Etxeberria
1854/1864	Joaquin Zufiria Peña
1866/1870	Jose Mª Mendizabal Arzelus
1871	Pedro Garmendia Katarain
1871/1880	Jose Ignacio Murua Lasa
1880/1883	Julian Otaño Alustitza
1883/1890	Pedro Aranburu
1890/1914	Julian Otaño Alustitza
1914/1925	Anselmo Otaño Izagirre
1925/1928	Jose Lorenzo Irizar Arzelus
1928/1930	Juan Ramon Mantzisidor Mendizabal
1930/1944	Maria Andresa Goia Agirre (Mantzisidorren alarguna)
1944/1945	Esteban Berasategi
1945/1965	Pablo Apaolaza Irazusta
1965/1996	Iñaki Apaolaza Mendia

Propio landutako taula.

De los primeros posaderos contamos con escasas referencias. No obstante ofrecemos breve reseña de algunos de ellos, sin perjuicio de tratar más adelante con mayor extensión los posaderos que regentaron otros establecimientos en la localidad.

Santos Arantzegi, *mesonero único y carpintero*, se tiene noticia de que se ocupó como mesonero, al menos, desde 1829 hasta 1847. A éste le sucedió al frente de la posada su hijastro Joaquín Zufiria[46]. En el Listado de actividades de 1860 se incluye a Joaquín Zufiria, además de mesonero y tabernero, como carnicero (con una tabla), a lo que hay que sumar que figura también como *arrendatario de arbitrios municipales* y *tratante para contrata con el pueblo para abastecer el consumo*, estas dos últimas funciones por el ejercicio de referencia. Tras su paso por la posada (1854-1864) y a partir de 1865 se estableció en Etxaluze, en cuyo apartado detallaremos las actividades desarrolladas por el mismo. En 1868 figura como propietario de la casa San Fausto, donde posteriormente se situó la panadería de José Miguel Irizar.

De José Mª Mendizabal y Pedro Garmendia no contamos con más antecedentes que los correspondientes a su paso por la posada.

En el caso de José Ignacio Murua nos encontramos ante una saga que ha dado continuidad a la actividad por él emprendida hasta nuestros días. Nos estamos refiriendo al popular bar Murua, localizado en la plaza del pueblo, que aludiremos más adelante.

Julián Otaño casó en Ormaiztegi en 1872 con Juliana Izagirre Imaz. Procedente de la casería Arraitegi adquirió los derechos de arrendamiento de la casa concejil el año 1880, regentando la posada hasta la fecha de su fallecimiento, en que tomó relevo su hijo Anselmo Otaño Izagirre hasta 1925. No obstante, el período comprendido entre 1883 y 1890 la posada fue regentada por Pedro Aranburu, del que no contamos con más referencias. Al igual que Zufiria y Murua, Julián y Anselmo Otaño, además de posaderos fueron carniceros. Anselmo tuvo la carnicería en Maiora Berria. En relación a Julián y Anselmo Otaño cabe poner en relieve su conexión familiar con otra estirpe de comerciantes que trataremos en el siguiente apartado, nos referimos a Francisco Otaño Garin y su hijo Juan Otaño Arantzegi. Julián Otaño fue sobrino de Francisco Otaño, hijo de su único hermano, José Joaquín.

En este tiempo (1883-1925) en Ormaiztegi se produjo un notable desarrollo de este sector, en que la iniciativa privada puso en marcha los establecimientos de José Jacinto Kanpos (Eliztondo), José Fermín

33


CARNICERÍA
DE
JULIAN OTAÑO
ORMAIZTEGUI
(GUIPÚZCOA)
Debe:
FECHA
PRECIO
Pesetas

Lehengo ostalariei buruzko aipamenak urriak dira. Nolanahi ere, horietako batzuen aipamen labur bat eskaintzen dugu, nahiz eta aurrerago herriko beste saltoki batzuetan jardun ziren ostalariak zabaltasun handiagoz aztertuko ditugun.

Santos Arantzegi, *ostalari bakarra eta arotza*, gutxienez 1829. urtetik 1847. urtera ostalari gisa lanean ari izan zeneko berriak ditugu. Horren ondotik Joaquin Zufiria haren semeordea[46] aritu zen ostatuaren gidaritzan. 1860. urteko jarduera-zerrendan Joaquin Zufiria ageri da, ostalari eta tabernari gisa ez ezik, baita harakin gisa ere (taula batekin), eta gehitu beharko genuke *udal zergen biltzaile* gisa ere ageri dela, baita *kontsumoaz hornitzeko herriarekin kontrata bidezko tratulari* gisa ere; azken bi eginkizun horiek arestian aipatu dugun ekitaldian. Ostatuan lan egin ondoren (1854-1864), eta 1865etik aurrera, Etxaluzen jarri zen bizitzen, eta horri buruzko atalean hark egindako jarduerak zehaztuko ditugu. 1868. urtean San Fausto etxearen jabe gisa ageri da, eta bertan kokatu zen, geroago, Jose Miguel Irizarren okindegia.


COMERCIO
de
José Lorenzo Irizar
ORMAIZTEGUI (Guipúzcoa)
D. Ayuntamiento de Ormaiztegui DEBE:
Mes | Día | de de 192 | Precio | Pesetas | Cts.
Octubre 1º con objetos durante el 1º trimestre del año actual 44 30

34

Jose Mª Mendizabal eta Pedro Garmendiari buruz, berriz, ostatuan ibili izanari buruzko aurrekariak baino ez ditugu.

Jose Ignacio Muruaren kasuan, berak hasi eta gaurdaino iraun duen jarduera bati jarraipena eman dion familia baten aurrean aurkitzen gara. Murua taberna ezagunaz ari gara, herriko plazan kokatua, aurrerago aipatuko duguna.

Julian Otaño 1872. urtean Juliana Izagirre Imazekin ezkondu zen Ormaiztegin. Arraitegi baserritik etorria, kontzeju-etxearen errenta-eskubideak eskuratu zituen 1880. urtean, eta ostatu horretan lanean aritu zen hil zen arte, eta haren seme Anselmo Otaño Izagirrek hartu zuen lekukoa 1925 arte. Nolanahi ere, 1883 eta 1890 urte bitarteko epealdian, Pedro Aranburuk gobernatu zuen ostatua, baina ez dugu hari buruzko aipamen gehiago. Zufiria eta Murua bezalaxe, Julian eta Anselmo Otaño, ostalari izateaz gain, harakin ere izan ziren. Anselmok Maiora Berrian izan zuen harategia. Julian eta Anselmo Otañori dagokienez azpimarratu beharra dago hurrengo atalean aztertuko dugun merkatarien beste familia batekin harremana zutela; hain zuzen ere, Francisco Otaño Garin eta haren seme Juan Otaño Arantzegiri buruz ari gara. Julian Otaño Francisco Otañoren iloba izen zen, Jose Joaquin haren anai bakarraren semea.

Epealdi horretan (1883-1925) Ormaiztegin garapen nabarmena gertatu zen sektore honetan, ekimen pribatuak hainbat establezimendu jarri zituelako abian, esate baterako: Jose Jacinto Kanpos (Eliztondo), Jose Fermin Aldasoro (Berjaldegi), Juan Ramon Mantzisidor (Berjaldegi Berri), Vicente Ezkurdia (Maiora Berria) eta Jose Antonio Elosegi (Maura), eta horiei guztiei


VDA. DE MANCISIDOR
BAR
ORMAIZTEGUI - (Guipúzcoa)

La cuenta del Ayuntamiento del año 1937

Mes de Noviembre por el arreglo de la tubería
Día 9 - 1 litro de vino y 0'20 del pan total 1'50
" 17 - ½ litro de vino y 0'10 de pan " 0'75
" 17 - rancho para 3 individuos a 1'30 " 3'90
" 22 - 1 litro de vino y pan " 1'80
" 23 - 2 litros de vino y pan " 3'10
" 28 - 2 comidas servidas a dos soldados a 3'50 " 7'00
18'05

Mes de Diciembre
Día 19 - 5 cenas a 5 pts total 25'00
Mes de Noviembre 18'05
Total pts 43'05

Recibí
Vda. de Mancisidor

35

Aldasoro (Berjaldegi), Juan Ramón Mantzisidor (Berjaldegi Berri), Vicente Ezkurdia (Maiora Berria) y José Antonio Elosegi (Maura), a los que deben añadirse el fundado por Joaquín Zufiria en Etxaluze, a quien sucedió Francisco Ariztimuño, y el de Antonio Antia en Jauregi, que posteriormente pasaría a ser regentado por Gregorio Lizarazu, a todo lo que hay que sumar el establecimiento balneario.

En 1925 se hizo cargo de la posada la familia de José Lorenzo Irizar. Si bien la concesión municipal se obtuvo a nombre del aludido, es de presumir que de la gestión del establecimiento se encargaría su hijo primogénito, José Andrés Irizar Izagirre, y más directamente la esposa de éste, Brígida Kanpos Urkiola, casados precisamente este mismo año de 1925. José Lorenzo Irizar, junto con su hermano Cecilio, en 1925 adquirieron la casa Berjaldegi Berri, de la que fue colono Juan Ramón Mantzisidor Mendizabal, donde regentó un bar. Esta curiosa circunstancia, en la que el propietario de Berjaldegi Berri tuvo arrendada la posada, en tanto el bar de la casa de su copropiedad fue atendida por Mantzisidor, se mantuvo hasta 1928 en que este último se hizo cargo de la posada.

La familia Mantzisidor atendió la posada hasta el año 1944, primero el propio Juan Ramón, asistido por su esposa, María Andresa Goia Agirre y a la muerte del primero, por ésta, hasta que le tomó relevo Esteban Berasategi, a quien al año siguiente le siguió la familia Apaolaza.

Duela urte batzuk arte, gaixoak [Iriarte Erdikoa etxeaz ari da], bere zahartzaroan, bereizgarri baten edertasuna zuen: erdiparetik gora, hormak adreilu kolore gorrizkoak ziren, agerian utziak, eta eraikin horri itxura berezi bat ematen zion, dotorezia estetiko bat. Baina, Jainkoarren!, probintziara etorri ez da, bada, Gobernu Diktatorialeko lehen Gobernu Ordezkaria eta agindu ez du, bada, miramendurik gabe, landa-eraikin guztiak karez zuritu daitezela, zimendutik teilaturaino, hormak, habeak, inskripzioak, armarriak, baita teilatuhegala ere!; dena zuritu behar izan zuten, eta ezer salbu geratu ez zen txikizio hartan, Iriarte Erdikoa etxeak karearen azpian galdu zuen bere ezaugarri berezi bakarra.

107
Iriarte Erdikoa etxearen sarreran kokatutako iturria
Fuente ubicada en la entrada de la casa Iriarte Erdikoa

108
Tomas Zumalakarregi Imaz

En Ormaiztegi conocemos otros notables ejemplos de edificios de similares características, el caserío Lizarralde, así como las desaparecidas Iriarte Goikoa, Berjaldegi Zaharra y Eliztondo.

Iriarte Erdikoa perteneció a la familia Agirrezabal, de cuyos miembros las primeras noticias adquiridas nos hablan de Sebastián Agirrezabal Iza, que fuera alcalde (al menos, 1724-25) y regidor (al menos, 1726-28), así como de Ignacio Agirrezabal Iza, escribano numeral de Tolosa.

Pedro José Mª Laskibar Agirrezabal aportó este bien inmueble a su matrimonio con Adriana Arza Ortiz de Urbina celebrado en Zegama en 1847. Lo había heredado de su madre, Juana Bautista Agirrezabal Ortesabal. El hijo de ambos, Bartolomé Esteban Mª Laskibar Arza, en 1869 recibió la titularidad del inmueble, sucediéndole sus siete hijos: Pedro, Buenaventura, Adrián, Mª de los Dolores, Ángel, Mª del Rosario y Julia[73]. Curiosamente Buenaventura Laskibar Larreta ejerció de médico en Ormaiztegi desde el 7 de abril de 1912[74], en que tomara posesión del cargo, hasta 1916, en que presentó renuncia al mismo[75].

En 1921 los hermanos Laskibar-Larreta vendieron la casa a José Julián Pildain Baztarrika (Beasain, 1864-Ormaiztegi, 1931), casado con Guillerma Zubizarreta Urteaga. A la muerte de éste lo heredó su único hijo, Dionisio Pildain Zubizarreta (Ormaiztegi, 1898-1967), casado con Mª Cruz Mendizabal Berasategi[76]. No obstante en 1904 ya se localizaba en calidad de inquilinos en esta casa la familia Pildain-Berasategi.

En su sesión de 3 de octubre de 1938, la Diputación de Gipuzkoa acordó la adquisición de este inmueble (la escritura de compraventa se formalizó el 3 de marzo de 1939), siendo el objeto de la adquisición preservar la memoria del general carlista Tomás Zumalakarregi Imaz (Ormaiztegi, 1788-Zegama, 1835).

Si bien estuvo extendida la creencia de que Tomás Zumalakarregi nació en esta casa, lo cierto es que habiendo nacido en el caserío Arandi, siendo de muy corta edad su familia se trasladó a Iriarte Erdikoa. Su padre, Francisco Antonio Zumalakarregi Mujika (Ormaiztegi, 1741-1792) inicialmente ejerció de escribano en Zegama, donde nacieron sus primeros tres hijos (Pablo, José Antonio y Martín José), fruto de su matrimonio (Zegama, 1761) con Concepción Aseginolaza Olaran. Tras enviudar, casó (Ataun, 1769) con María Ana Imaz Altolagirre, con quien tuvo once hijos. Este matrimonio inicialmente se situó en Idiazabal, localidad donde también ejerció el escribano Zumalakarregi y allí nacieron los primeros cuatro hijos de esta unión: Ana Antonia; Miguel Antonio[77]; Francisco Antonio y María Ygnacia. Los otros siete hermanos

Ormaiztegin antzeko ezaugarriak dituen beste eraikin garrantzitsu bat bada, Lizarralde baserria. Ezaugarri berberak zituzten ere egun desagerturiko Iriarte Goikoa, Berjaldegi Zaharra eta Eliztondok.

Agirrezabal familiarena izan zen Iriarte Erdikoa, eta familia horretako lehen kideei buruzko albisteek Sebastian Agirrezabal Iza aipatzen digute, alkate (gutxienez, 1724-25 urteetan) eta erregidore (gutxienez, 1726-28 urteetan) izan zena, baita Ignacio Agirrezabal Iza, Tolosako eskribau zenbakiduna.

Pedro Jose Mª Laskibar Agirrezabalek ondasun higiezin hau eman zuen, dote gisa, Adriana Arza Ortiz de Urbinarekin 1847. urtean Zegaman ezkondu zenean. Bere ama Juana Bautista Agirrezabal Ortesabalengandik heredatu zuen. Bien semeak, Bartolome Esteban Mª Laskibar Arzak, 1869an higiezin horren titulartasuna jaso zuen, eta bere zazpi seme-alabak izan ziren oinordeko: Pedro, Buenaventura, Adrian, Mª de los Dolores, Angel, Mª del Rosario eta Julia[73]. Bitxia bada ere, Buenaventura Laskibar Larreta mediku gisa aritu zen Ormaiztegin 1912ko apirilaren 7an[74] kargua hartu zuenetik 1916 arte, data horretan uko egin baitzion kargu horri[75].

1921ean, Laskibar-Larreta anaiek Guillerma Zubizarreta Urteagarekin ezkonduta zegoen Jose Julian Pildain Baztarrikari (Beasain, 1864-Ormaiztegi, 1931) saldu zioten etxea. Hura hil zenean, Mª Cruz Mendizabal Berasategirekin ezkondutako haren seme bakarra zenak, Dionisio Pildain Zubizarretak (Ormaiztegi, 1898-1967)[76], heredatu zuen. Halere, 1904an etxe honetan maizter bizi zen Pildain-Berasategi familia.

1938ko urriaren 3ko bilkuran, Gipuzkoako Aldundiak higiezin hori eskuratzea erabaki zuen (saleroseta-eskritura 1939ko martxoaren 3an gauzatu zen), eta erosketa horren helburua, hain zuzen ere, Tomas Zumalakarregi Imaz (Ormaiztegi, 1788-Zegama, 1835) jeneral karlistaren oroitzapena gordetzea izan zen.

Tomas Zumalakarregi etxe honetan jaio zen ustea aski zabalduta egon

109
Miguel Antonio Zumalakarregi Imaz

110
Arandi baserria,
Tomas Zumalakarregiren jaiotetxea
Caserío Arandi,
casa natal de Tomás Zumalakarregi

nacieron en Ormaiztegi, en el caserío Arandi: Eusebio Antonio; Joana Baptista; Sylveria; Miguel Romualdo; Margarita Ygnacia; Thomas Antonio y Joseph Manuel.

Parece ser que el traslado de la familia Zumalakarregi Imaz a Iriarte Erdikoa vino determinado tras la muerte del cabeza de familia, Francisco Antonio, acaecida en Ormaiztegi en 1792, en búsca de mayor seguridad en el convulso clima provocado por la guerra de la Convención (1793-1795). La circunstancia de haber sido morada de la familia Zumalakarregi Imaz ha sido decisiva en el devenir de Iriarte Erdikoa.

Sin embargo, Joaquín de Irizar y Fausto Arozena[78] nos informan que el *afán industrial guipuzcoano la alcanzó hace pocos años, convirtiendo parte de su planta baja en un taller mecánico*.

Tras la adquisición del inmueble por la Diputación de Gipuzkoa en 1939, fue objeto de un proyecto de restauración, redactado por el arquitecto Joaquín de Irizar el mismo año. Las obras se prolongaron hasta el año 1949, inaugurándose en mayo como Casa Natal de Zumalakarregi. Se trató de realizar una especie de casa-museo donde la evocación del ambiente de época se apoyaba en la presencia de algunos muebles y objetos más o menos relacionados con el General y su tiempo. No hay datos concretos sobre cual fue el estado de la casa antes de la ejecución del proyecto. La intervención de Irizar añadió una cierta regularidad monumental en la fachada principal (en la que se habían alterado algunos huecos para hacer balcones). Colaboró con Irizar en la ejecución del proyecto de restauración de Iriarte Erdikoa el arquitecto de la Diputación José Mª Muñoz-Baroja. La casa-museo de Zumalakarregi fue ambientada y decorada por el carpintero local Guillermo Lasa. Este edificio fue declarado Monumento Histórico y Artístico Provincial por Orden Ministerial de 17 de enero de 1969.

arren, egia dena da Arandi baserrian jaio ondoren, oso gazterik, bere familia Iriarte Erdikoa baserrira joan zela bizitzera. Bere aita, Francisco Antonio Zumalakarregi Mujika (Ormaiztegi, 1741-1792) hasieran eskribau gisa aritu zen Zegaman, eta bertan jaio ziren bere hiru lehenengo semeak (Pablo, Jose Antonio eta Martin Jose), Concepcion Aseginolaza Olaranekin Zegaman 1761an ezkondu ondoren. Alargundu ondoren, Maria Ana Imaz Altolagirrerekin ezkondu zen Ataunen 1769an, eta harekin hamaika semealaba izan zituen. Senar-emazteak Idiazabalera joan ziren bizitzera lehenik, eta han ere eskribau gisa aritu zen Zumalakarregi eta hantxe jaio ziren ezkontza honetako bere lehen lau seme-alabak: Ana Antonia, Miguel Antonio[77], Francisco Antonio eta María Ygnacia. Gainerako zazpi anaiarrebak Ormaiztegin jaio ziren, Arandi baserrian: Eusebio Antonio, Joana Baptista, Sylveria, Miguel Romualdo, Margarita Ygnacia, Thomas Antonio eta Joseph Manuel.

Badirudi Zumalakarregi Imaz familia Iriarte Erdikoa etxera lekualdatzeko arrazoia Francisco Antonio familia-buruaren heriotzaren ondoren, Ormaiztegin 1792an gertatua, segurtasun handiagoa bilatu nahi zutelako Konbentzio Gerrak (1793-1795) eragindako giro aztoragarri hartan. Zumalakarregi Imaz familiaren bizileku izana erabakigarria izan da Iriarte Erdikoa etxearen bilakaeran.

Halere, Joaquin de Irizarrek eta Fausto Arozenak[78] jakinarazi digutenez, *orain dela urte batzuk Gipuzkoaren industria-grinak harrapatu zuen, eta behe-solairuaren zati bat tailer mekaniko bihurtu zuen*.

Gipuzkoako Aldundiak higiezin hori 1939an eskuratu ondoren, urte horretan bertan Joaquin de Irizar arkitektoak idatzitako eraberritze-proiektu baten xede izan zen. Obra horiek 1949raino luzatu ziren, eta maiatzean inauguratu zuten Zumalakarregiren Jaiotetxe gisa Etxe-museo moduko bat egiten ahalegindu ziren, garai hartako giroaren oroitzapena Jeneralarekin eta bere garaiarekin loturiko zenbait altzari eta objekturen presentzian oinarrituz. Proiektu hori gauzatu aurretik etxearen egoera zein zen azalduko digun datu zehatzik ez dago. Irizarren proiektu horri esker, monumentuen

< 111 - 112 - 113
Museo zaharreko barnealdeko xehetasunak
Detalles del interior del antiguo museo

114
Iriarte Erdikoa 1949an, Zumalakarregiren lehen museo bihurtzeko zaharberritu ondoren
Iriarte Erdikoa en 1949, tras su remodelación para albergar el primer museo de Zumalakarregi



115
Iriarte Erdikoa azken birmoldaketa ondoren, 1989
Iriarte Erdikoa tras su última remodelación, 1989

En 1985 la Diputación Foral de Gipuzkoa inició, dentro de la política museística de su departamento de Cultura, las gestiones encaminadas a actualizar y convertir el edificio en museo dedicado a la figura del general Tomás de Zumalakarregi y su época. El guión de contenidos fue encomendado a la historiadora Idoia Estornés Zubizarreta. Una vez definido el programa de necesidades el proyecto del nuevo museo fue encargado a los arquitectos Jesús Muñoz-Baroja y Laura Aisenson Bronstein; el diseño de interiores a Javier Gutiérrez. El proyecto museístico fue responsabilidad de la historiadora Paloma Miranda, corriendo a cargo de los técnicos de archivo Carmen Álvarez Fernández, Esther Escalante Galartza, Begoña Irazu Lopetegi, Ana Otegi Atorrasagasti y Gabriela Vives Almandoz la catalogación de la colección documental del museo.

El punto de partida de este proyecto fue la conservación del ambiente y la distribución general proyectados por Joaquín de Irizar, que presentaba la coherencia formal y estructural de un conjunto unitario. La parte de la vivienda de los cuidadores sería destinada a oficinas y archivo del nuevo museo, tratándose con un criterio más funcional. Por otra parte, era necesario conseguir más áreas de exposición adecuadas, así como unos medios de acceso y circulación de acuerdo con el nuevo uso previsto. La profunda transformación del edificio, restaurándolo y convirtiéndolo en museo, se abordó respetando y reforzando la arquitectura original de la época y convirtiendo el propio caserío en una pieza más de la colección.

El actual museo fue inaugurado en 1989, convirtiéndose en uno de los centros de referencia para el conocimiento de las guerras carlistas y el estudio de la sociedad vasca del siglo XIX. ■

erregulartasuna berreskuratu zuen fatxada nagusian (zenbait hutsune berregokituak baizeuden, balkoiak egiteko). Iriarte Erdikoa etxearen eraberritze-proiektu hori gauzatzen Jose Mª Muñoz-Baroja Aldundiko arkitektoak lagundu zion Irizarri. Zumalakarregiren etxe-museoa Guillermo Lasa herriko arotzak girotu eta apaindu zuen. Eraikin hau Monumentu Historiko eta Artistiko Probintzial izendatu zuten 1969ko urtarrilaren 17ko Ministro Agindu baten bitartez.

1985ean, Gipuzkoako Foru Aldundiak, Kultura Sailaren museo-politikaren baitan, eraikin hori eguneratzeko eta Tomas Zumalakarregi jeneralaren figurari eta bere garaiari eskainitako museo bilakatzeko izapideak abiarazi zituen. Edukien gidoia Idoia Estornés Zubizarreta historialariaren esku utzi zuten. Premien programa definitu ondoren, museo berriaren proiektua Jesus Muñoz-Baroja eta Laura Aisenson Bronstein arkitektoen esku utzi zuten, eta barne-gelen diseinua, berriz, Javier Gutiérrezen esku. Museoaren proiektua Paloma Miranda historialariaren erantzunkizuna izan zen, eta Carmen Álvarez Fernández, Esther Escalante Galartza, Begoña Irazu Lopetegi, Ana Otegi Atorrasagasti eta Gabriela Vives Almandoz artxiboteknikarien esku geratu zen museoko agiri-bildumaren katalogazio-lanak egitea.

Proiektu honen abiapuntua, hain zuzen, Joaquin de Irizarrek proiektuan jasotako giroari eta banaketa orokorrari bere horretan eustea zen, osotasunezko multzo baten koherentzia formala eta egiturazkoa erakusten baitzuen. Zaintzaileei eskainitako eraikinaren zatia museo berriaren bulegoetarako eta artxiborako erabiliko zuten, irizpide funtzionalago batez baliatuz. Bestalde, beharrezkoa zen erakusketa-eremu egokiagoak erdiestea, baita sarbide eta zirkulazio-bide egokiagoak ere aurreikusitako erabilera berriarekin bat etorriz. Eraikinaren eraldaketa sakon hori, eraberrituz eta museo bihurtuz, garai hartako jatorrizko arkitektura errespetatuz eta indartuz egin zen, eta baserria bildumaren pieza bat gehiago bilakatuz.

Egungo museoa 1989. urtean inauguratu zuten, eta karlistaldiak ezagutzeko eta XIX. mendeko euskal gizartea aztertzeko zentro garrantzitsuenetako bat bilakatu zen. ■

116
Egungo museoko barnealdeko xehetasuna
Detalle del interior del actual museo

117
Egungo museoko barnealdeko ikuspegia
Vista del interior del actual museo

4.8 IRIARTE TXIKIA O TXULOKOA. LA FAMILIA MURUA

La primera noticia de esta casa remonta a 1860. En el Listado de actividades de dicho año se localiza en Iriarte Txikia a José Ignacio Irizar Peñagarikano, de profesión alpargatero.

Aunque no está documentado, no parece arriesgado suponer que con éste vivía su sobrina Josefa Ignacia Irizar Lasa, que en 1869 casó con José Ignacio Murua Lasa (Ormaiztegi, 1843-1888), dado que éste en 1873 figura como propietario de la casa[79]. Sin embargo, a través del Registro de la Propiedad de Azpeitia, sabemos que José Ignacio Murua no adquirió la propiedad de Iriarte Txikia hasta el año 1880[80], con lo que debemos concluir que en 1873 ocupaban la casa en calidad de colonos o arrendatarios.

Esta casa perteneció a José Mª Arzelus Odriozola y a su muerte (1862) lo heredaron sus padres, Francisco Arzelus Goia y Mª Andrés Odriozola, quienes en 1877 la hipotecaron a favor de José Ignacio Murua (posadero), en garantía de un crédito por importe de mil quinientas pesetas[81]. Como se ha dicho, en 1880, José Ignacio Murua adquirió en pro-



118
Irudiaren erdialdean, Iriarte Txikia, 1915
En el centro de la imagen, Iriarte Txiki, 1915

4.8 IRIARTE TXIKIA EDO TXULOKOA. MURUA SENDIA

Etxe honi buruzko lehen albistea 1860. urtekoa da. Urte horretako Jarduera-zerrendan Iriarte Txikia izeneko etxean Jose Ignacio Irizar Peñagarikano finkatua dago, lanbidez espartingilea.

Dokumentatuta ez dagoen arren, ez dirudi hanka-sartze handia egiten ari garenik esaten badugu berarekin bizi izan zela Josefa Ignacia Irizar Lasa iloba, 1869an Jose Ignacio Murua Lasarekin (Ormaiztegi, 1843-1888) ezkondua, 1873an azken hori ageri baita etxearen jabe gisa[79]. Halere, Azpeitiko Jabetza Erregistroaren bitartez, badakigu Jose Ignacio Muruak ez zuela Iriarte Txikia etxearen jabetza hartu 1880. urte arte[80], eta beraz, pentsatu behar dugu 1873an maizter edo errentari gisa bizi zirela etxe horretan.

Etxe hori Jose Mª Arzelus Odriozolarena izan zen, eta hil zenean (1862) haren gurasoek, Francisco Arzelus Goiak eta Mª Andres Odriozolak, heredatu zuten; 1877. urtean, halere, Jose Ignacio Muruaren (ostalaria) alde hipotekatu zuten, mila eta bostehun pezetako kreditu baten berme gisa[81]. Arestian esan denez, 1880an Jose Ignacio Murua Iriarte Txikia etxearen jabe egin zen, 2.346,50 pezeten truke.

Iriarte Txikiak, garai hartan San Andres kaleko 12 zenbakian zegoela, une desberdinetan beste izen batzuk ere izan zituen, hala nola Txulokoa (horrela esaten zaio Elizaurre etxe mugakidearen 1868ko eskrituran)[82], Elizalde Berri (1929an)[83] eta, berrikiago, Murua. Denboran zehar, halaber, eraikin honek nabarmenki aldatu du bere egitura, gorputz bat erantsi baitzaio, eraikina zabaldu eta haren mugakide den Elizaurre etxearekin elkartzean.

Jose Ignacio Murua Lasa eta Josefa Irizar Lasa senar-emazteek hiru semealaba izan zituzten: Casimira, Matea eta Jose Valentin. 1877an alargundu ondoren, Jose Ignacio Murua urte horretan

Hospital Militar de Ormaiztegui

Vale á favor de Jose Ignacio Murua por tres portes de Alpargatas para los Voluntarios que van la Alta á sus Batallones.

Ormaiztegui 28 de Febrero 1874

Son 3 portes de Alpargatas

V.º B.º
El Comandante Menor

El mayor de Medicina
Fran.co Martiñalaburu

Lopez

119

120
Juan Ramon Murua Izuzkitza eta Estefania Urkiola Murua, 1908
Juan Ramón Murua Izuzkitza y Estefanía Urkiola Murua, 1908
121
Juan Ramon Murua Izuzkitza eta Mª Ignacia Rezusta Berasategi, 1921
Juan Ramón Murua Izuzkitza eta Mª Ignacia Rezusta Berasategi, 1921

piedad la casa Iriarte Txikia, al precio de 2.346,50 pesetas.

Iriarte Txikia, a la sazón San Andrés 12, en distintas épocas ha conocido otras acepciones, como Txulokoa (así se le designa en la escritura de 1868[82] de la colindante casa Elizaurre); Elizalde Berri (en 1929)[83] y más recientemente Murua. También a lo largo del tiempo se ha modificado substancialmente la configuración de este edificio, al habérsele incorporado un nuevo cuerpo, al ampliar la edificación uniéndola a su colindante Elizaurre.

Del matrimonio formado por José Ignacio Murua Lasa y Josefa Ignacia Irizar Lasa, nacieron Casimira, Matea y José Valentín. Habiendo enviudado en 1877, José Ignacio Murua casó en segundas nupcias ese mismo año con Mª Vicenta Izuzkitza Iturriotz, de este matrimonio nacieron Marcelina, Juan Ramón y María Dolores.

En el apartado correspondiente a la posada ha quedado reseñado que José Ignacio Murua Lasa regentó dicho establecimiento entre 1871-1880. Además, se tienen noticias de que también fue carnicero.

Tras enviudar en 1888, hacia el año 1890, será Vicenta Izuzkitza quien establezca una taberna en la casa que, también en esta ocasión, le denominan Txulokoa, posteriormente figuran como titulares de este establecimiento los *Hijos de Murua*.

Continuó con el negocio familiar Juan Ramón Murua Izuzkitza (Ormaiztegi, 1884-1924), quien casó en 1908 con Estefanía Urkiola Murua. De esta unión nacieron cinco hijos, a saber: Ángel, Jesús Eugenio, Luis José Ignacio, María Dolores Antonia y María Lourdeskoa Dionisia. Juan Ramón Murua con la colaboración de su esposa, que de soltera se había dedicado a la costura, regentó la taberna familiar y además explotó el

bertan Mª Vicenta Izuzkitza Iturriotzekin ezkondu zen, eta bigarren ezkontza honetatik Marcelina, Juan Ramon eta Maria Dolores jaio ziren.

Ostatuari dagokion atalean azpimarratu dugun moduan, Jose Ignacio Murua Lasa establezimendu horren kargu egon zen 1871-1880 urte bitartean. Gainera, badakigu harakina ere izan zela.

1888. urtean alargundu ondoren, 1890 aldera Vicenta Izuzkitzak taberna bat jarriko du etxe horretan, eta oraingo honetan ere Txulokoa deituko diote, eta geroago establezimendu honetako titular gisa agertuko direnak *Hijos de Murua* dira.

Familiaren negozio horrekin jarraitu zuen Juan Ramon Murua Izuzkitzak (Ormaiztegi, 1884-1924), eta 1908. urtean Estefania Urkiola Muruarekin ezkondu zen. Ezkontza horretatik bost seme-alaba jaio ziren: Angel, Jesus Eugenio, Luis Jose Ignacio, Maria Dolores Antonia eta Maria Lourdeskoa Dionisia. Juan Ramon Murua, bere emaztearen laguntzarekin, nahiz gaztetan joskintzan jardun zuen, familiaren taberna horren kargu egon zen, eta horrez gain, Oñatibia etxeko harategiaz arduratu zen.

1919. urtean alargundu ondoren, Juan Ramon Murua 1921. urtean bigarren aldiz ezkondu zen, honakoan Maria Ignacia Rezusta Berasategirekin, eta ezkontza horretatik jaio ziren Pilar, Antonia eta Maria Carmen Murua Rezusta.

Juan Ramon Murua 1924an hil zenean, Eugenio Murua Urkiolak (Ormaiztegi, 1912-1971) jarraitu zuen harategiarekin, bere amaorde Maria Rezustak lagunduta, hura arduratzen baitzen hestebeteak egiteaz. Eugeniok bere negozio propioa jarri zuen udaletxe berriaren behealdean 1932. urtean. Bestetik, Maria Ignacia Rezusta tabernaren negozioa hartu zuen, bere bi

122
Eugenio, Angel eta Carmen Murua, 1926
Eugenio, Ángel y Carmen Murua, 1926

123
Pilar, Lourdes, Antonia eta Eugenio Murua, Maria Rezusta eta Carmen Murua
Pilar, Lourdes, Antonia y Eugenio Murua, María Rezusta y Carmen Murua

124
Jesus Mª Borde, Jose Luis Borde, Carmen Murua, Maria Rezusta, Pilar Murua eta ezezaguna
Jesús Mª Borde, José Luis Borde, Carmen Murua, María Rezusta, Pilar Murua y desconocida

negocio de carnicería ubicado en la casa Oñatibia.

Habiendo enviudado en 1919, Juan Ramón Murua casó en 1921 en segundas nupcias con María Ignacia Rezusta Berasategi de cuyo matrimonio nacieron Pilar, Antonia y María Carmen Murua Rezusta.

A la muerte de Juan Ramón Murua en 1924, Eugenio Murua Urkiola (Ormaiztegi, 1912-1971) continuó con la carnicería, apoyado por su madrastra María Rezusta, sobre quien recaían las labores de chacinería. Eugenio estableció su propio negocio en los bajos de la nueva casa consistorial en 1932. Por otro lado, María Ignacia Rezusta se hizo cargo del negocio de bar, con el apoyo de sus hijas Pilar (Ormaiztegi, 1922-2010) y Carmen Murua Rezusta (Ormaiztegi, 1925-2012), hasta que hacia 1969 le tomaron relevo, atendiendo estas últimas el popular bar Murua hasta casi nuestros días.

Pilar y Carmen Murua contaron con el concurso de Jesús Mª Borde Murua, hijo de Pilar. A la muerte de éste las riendas del negocio pasaron a manos de su hermano José Luis y a la esposa de éste, Ana Lasa Berasategi, hasta que en fechas recientes se ha incorporado al negocio Aitor Borde Lasa, hijo de los anteriores. El bar Murua es el único establecimiento de la localidad que permanece en manos de la misma familia en quinta generación.

Este edificio, en el comedor situado en la primera planta, albergó en tiempos de la república la primera sede del PNV o *batzoki* y dio cobijo a las primeras reuniones de esta organización política, desde la legalización de los partidos tras la muerte del dictador. Con anterioridad al establecimiento de este *batzoki*, las reuniones del PNV local se desarrollaban en la casa Maiora Berria o Ezkurdia. ■

125
Fakturaren izenpurua, 1954
Membrete de factura, 1954

126
Ezezaguna, Pilar Murua, Pepe González, Carmen Murua eta ezezaguna
Desconocido, Pilar Murua, Pepe González, Carmen Murua y desconocido

alaba Pilarrek (Ormaiztegi, 1922-2010) eta Carmenek (Ormaiztegi, 1925-2012) lagunduta, 1969. urte inguruan haren lekua bete zuten arte, Murua taberna ezagunaren kargu eginez ia gaur egun arte.

Pilar Muruak eta Carmen Muruak Pilarren seme Jesus Mª Borde Muruaren laguntza izan zuten. Jesus Mª hil zenean, negozioaren agintea haren anaia Jose Luisek eta honen emazte Ana Lasa Berasategik hartu zuten, orain dela gutxi aurreko horien seme Aitor Borde Lasa negozioaren barruan sartu den arte. Murua taberna herriko establezimendu bakarra da bosgarren belaunaldian oraindik ere familia beraren barruan segitzen duena.

Eraikin honetan, lehen solairuan kokatutako jangelan, errepublika garaian EAJren lehen egoitza edo batzokia egon zen eta erakunde politiko honen lehen bilerak ere bertan egin ziren, diktadorea hil ondoren alderdiak legeztatu zituztenetik. Batzoki hau finkatu aurretik, herriko EAJren bilerak Maiora Berria edo Ezkurdia etxean egiten ziren. ■

127
Murua tabernaren fatxada, 1912 aprox.
Fachada del bar Murua, 1912 g.g.b.

4.9 ELIZAURRE

El año 1868[84] esta edificación se describe como casa de nueva construcción, que titula Elizaurre (San Andrés, 10); en este tiempo perteneció a Celestina Etxezarreta Urkiola, vecina de Valladolid e hija de Martín Etxezarreta. Este último, como se verá, fue también propietario de la casería Elizalde, en cuyos pertenecidos se construyó esta casería de Elizaurre. En esta fecha de 1868 fue adquirida por Martín Kanpos Arzelus al precio de mil doscientos escudos, quien a su vez vendió la finca en 1871 a Casiano Murua Kanpos, comerciante de Zegama, al mismo precio. A su muerte heredó la propiedad de Elizaurre su viuda, Josefa Guridi Arzelus.

En 1893 adquirió esta propiedad Casiano Zufiria Guridi[85], sobrino de la anterior, maestro y auxiliar de minas, con residencia en Logroño, quien en 1901 vendió a Vicenta Izuzkitza Iturriotz, viuda de José Ignacio Murua, propietaria de la casa colindante de Iriarte Txiki. Hasta nuestros días esta pertenencia permanece en posesión de la familia Murua.

En esta casa se han conocido dos establecimientos dedicados a zapatería, como seguidamente veremos. Según las matrículas industriales consultadas, José Barrenetxea Albisu (Itsaso, 1908-Ormaiztegi, 1968) se estableció en Ormaiztegi en 1927 y al menos desde 1933 figura como titular de un establecimiento de *barbería* y taller de reparación de calzado, donde además se vendía calzado ordinario (alpargatas, borceguíes, katiuskas y abarcas). Se refería como barbería lo que hoy conocemos como peluquería de caballeros, pero que el afeitado semanal otorgaba una preponderancia que se refleja en las propias denominaciones del oficio y establecimiento.

128
Iriarte Txikia, Elizaurre eta Elizalde, 1960
Iriarte Txikia, Elizaurre y Elizalde, 1960

4.9 ELIZAURRE

1868. urtean[84] eraikuntza berriko etxe gisa deskribatzen da eraikin hori, eta Elizaurre izenarekin ageri da (San Andres, 10); garai horretan Celestina Etxezarreta Urkiola, Valladoliden jaioa eta Martin Etxezarretaren alaba, zen jabea. Azken hori, ikusiko den moduan, Elizalde etxearen jabeetako bat izan zen, eta etxe horren lurretan eraiki zuten Elizaurre etxea. 1868. urte honetan Martin Kanpos Arzelusek erosi zuen mila eta berrehun ezkuturen prezioan, eta honek, aldi berean, finka hori 1871an saldu zion Casiano Murua Kanposi, Zegamako merkatariari, prezio berean. Hura hil zenean, Elizaurreko jabetza Josefa Guridi Arzelus haren alargunak heredatu zuen.

1893an, Casiano Zufiria Guridik[85] eskuratu zuen jabetza hori; aurrekoaren iloba zen, meategiko laguntzaile eta maisua, Logroñon bizi zela, eta 1901ean Vicenta Izuzkitza Iturriotzi saldu zion, hots, Jose Ignacio Muruaren alargun eta aldameneko Iriarte Txiki etxearen jabeari. Gaur egun arte, jabetza hori Murua familiaren esku jarraitu du.

Etxe honetan zapatagintzan jardun duten bi establezimendu ezagutu ditugu, aurki ikusiko dugun moduan. Kontsultatutako industria-matrikulen arabera, Jose Barrenetxea Albisu (Itsaso, 1908-Ormaiztegi, 1968) 1927. urtean etorri zen Ormaiztegira bizitzera, eta gutxienez 1933. urtetik *bizartegi* baten eta zapatak konpontzeko tailer baten titular gisa ageri da, oinetako arruntak ere saltzen zituela (espartinak, bortzegiak, katiuskak eta albarkak). Bizartegi zioenean, gaur egun ile-apaindegi gisa ezagutzen duguna esan nahi zuen, baina asteko bizar-egiteek halako nagusitasuna zuten, lanbidearen eta establezimenduaren izenetan ere halaxe agertzen zela.

1958. urteko martxoaren 1ean, Jose Ignacio Barrenetxea Berasate-

JOSE BARRENECHEA

Reparación y venta de calzado
Cartuchería - Artículos de caza

ORMAIZTEGUI (Guipúzcoa)

Factura n.º

Sr. Runo Ayuntamiento. DEBE:

Fechas		30 de Enero de 196 2	IMPORTE Pesetas	Cts.
Wn.	30	1 Campana 130 x 100	27	
		Total pts	27.	

Recibí

COMERCIO
ORMAIZTEGUI (Guipúzcoa)

129

El 1 de marzo de 1958, José Ignacio Barrenetxea Berasategi (Ormaiztegi, 1941) se hizo cargo de la cartería, que atendía en el mismo local de zapatería y barbería de su padre y según las matrículas industriales desde 1962 esta barbería pasó a la titularidad de José Ignacio Barrenetxea. Este último, además amplió el negocio a las actividades de armería (armas de caza y munición). El año 1976 trasladó el establecimiento a Zumalakarregi etorbidea 14, donde prosiguió con todas las actividades excepto la de barbería y venta de calzado, hasta que el año 1999 cerró por jubilación.

Elizaurre dio cobijo también al establecimiento de zapatería de Pablo Lasa Ariztimuño, que trataremos en el apartado siguiente. Dicha zapatería fue abierta al público hacia el año 1955, permaneciendo activa hasta 1986. ■

130
Jose Barrenetxea Albisu, Jose Barrenetxea Berasategi eta Alejandra Berasategi Lasa
José Barrenetxea Albisu, José Barrenetxea Berasategi y Alejandra Berasategi Lasa


PABLO LASA

CALZADOS

ORMAIZTEGUI (Guipúzcoa)

Nº 000029

Ayuntamiento

DEBE:

Mes	Día		Pesetas	Cts.
		28 de Noviembre de 1956		
-	-	13 pares de alpargatas a 12	156	-
		Total s.e.u.o	156	

131

gik (Ormaiztegi, 1941) postetxearen ardura hartu zuen, bere aitaren zapatagintza eta bizargintzarako lokalean bertan gauzatua, eta industria-matrikulen arabera 1962tik aurrera bizartegi hori Jose Ignacio Barrenetxearen esku geratu zen. Azken honek, gainera, armagintzako jardueretara zabaldu zuen negozioa (ehizerako armak eta munizioa). 1976. urtean establezimendu hori Zumalakarregi etorbideko 14 zenbakira aldatu zuen, eta han ere jarduera guztiekin jarraitu zuen, bizartegi eta zapatategiarena kenduta, 1999an erretiratu zenean itxi zuen arte.

Elizaurren, halaber, Pablo Lasa Ariztimuñoren zapatadenda kokatua egon zen, baina hori hurrengo atalean aztertuko dugu. Zapatadenda hori 1955. urte aldera ireki zuten jendearentzat eta 1986 arte iraun zuen zabalik. ■

132
Pablo Lasa Ariztimuño eta Juanita Barrenetxea Odriozola
Pablo Lasa Ariztimuño y Juanita Barrenetxea Odriozola

4.10 ELIZALDE O IZUZKITZA

La casería Elizalde, popularmente fue conocida como Izuzkitza, en razón a que la familia Izuzkitza ostentó la propiedad última del inmueble. Esta finca contigua a la iglesia, pertenecía en 1842 a Juan Francisco Etxezarreta Urkiola, abogado de Bergara, por donación de sus padres Martín de Etxezarreta y Josefa Urkiola[86].

En el Archivo Municipal obra un curioso documento titulado *Copia de los oficios dirigidos al Exmo. Sr. Gobernador Civil de Guipúzcoa y al Juez de Primera Instancia de Azpeitia por el Ayuntamiento de la villa de Ormaiztegui, relativamente [sic] á la cuestión de la plaza pública de esta villa* (1860), en que el alcalde Salsamendi obliga a los colonos de la casa Elizalde a dejar libre la plaza pública, en tanto que el propietario de la misma, Martín de Etxezarreta, reivindica derechos de propiedad sobre una parte de la dicha plaza pública. De este documento deducimos que el 6 de diciembre de 1783 Silvestre Manuel Agirreburualde adquirió esta casería a Francisco Irimo y Mª Bautista Arza, de Zegama. También, que entre 1819 y 1840 en la plaza formada entre la iglesia y esta casa existió un juego de bolos. Martín Etxezarreta fue alcalde de Ormaiztegi en varias ocasiones, al menos los años 1817, 1829, 1831 y 1843[87].

Martín Kanpos Arzelus, arriero de Gabiria, en 1866 adquirió la casería con sus pertenecidos, al precio de cincuenta y cinco mil reales de vellón, quien en 1873 vendió, tras haber enajenado previamente algunos pertenecidos, la casería y pertenecidos restantes al precio de cincuenta mil reales de vellón (12.500 pesetas) a José Gabriel y José Mª Izuzkitza Murgiondo, padre e hijo, labradores de Ormaiztegi, de cuarenta y nueve y veinticuatro años respectivamente[88]. Continuó en la casería Juan Antonio Izuzkitza Albisu, hijo de José Mª, casado en 1897 con Juana Ignacia Arzelus Irizar. Juan Antonio Izuzkitza Albisu adquirió en 1929 el balneario, que hasta su cierre en 1964 fue regentado

133
San Luisen Semeen Kongregazioaren (Luistarrak) ospakizun erlijiosoa, Elizalde etxearen aurrean, 1930
Celebración religiosa de la Congregación de los Hijos de San Luis (Luises) delante de la casa Elizalde, 1930
(Ver pág. 280 orria ikusi)

4.10 ELIZALDE EDO IZUZKITZA

134
Juan Antonio Izuzkitza Albisu

Elizalde etxea, jende artean Izuzkitza izenez ezaguna zen, Izuzkitza familia izan zelako higiezin horren azken jabea. Elizaren aldameneko finka hau 1842. urtean Bergarako abokatua zen Juan Francisco Etxezarreta Urkiolaren esku zegoen, Martin de Etxezarreta eta Josefa Urkiola haren gurasoek dohaintzan eman ondotik[86].

Udal Artxiboan bada agiri bitxi bat, honako izenburua duena: *Copia de los oficios dirigidos al Exmo. Sr. Gobernador Civil de Guipúzcoa y al Juez de Primera Instancia de Azpeitia por el Ayuntamiento de la villa de Ormaiztegui, relativamente [sic] á la cuestión de la plaza pública de esta villa* (1860). Dokumentu horretan Salsamendi alkateak behartu egiten ditu Elizalde etxeko maizterrak plaza publikoa libre uztera, bertako jabe Martin de Etxezarretak beretzat eskatu dituelako plaza publiko horren zati baten gaineko jabetza-eskubideak. Dokumentu horretatik ondorioztatzen dugu 1783ko abenduaren 6an Silvestre Manuel Agirreburualdek etxe hori Zegamako Francisco Irimori eta Mª Bautista Arzari erosi ziela, eta 1819 eta 1840 artean, elizaren eta etxe honen artean osatutako plazan, bolategi bat izan zela. Martin Etxezarreta Ormaiztegiko alkate izan zen zenbait aldiz, gutxienez 1817, 1829, 1831 eta 1843 urteetan[87].

Martin Kanpos Arzelus Gabiriako mandazainak 1866an eskuratu zuen etxea bere lurrekin, berrogeita hamar mila erreal koartoren prezioan, eta gero, 1873an saldu egin zizkien, aldez aurretik zenbait lursail inorenganatu ondoren, bai etxea eta bai gainerako lurrak ere, berrogeita hamar mila erreal koartoren prezioan (12.500 pezeta), Jose Gabriel eta Jose Mª Izuzkitza Murgiondo aita-semeei (Ormaiztegikoak eta nekazariak), hurrenez hurren berrogeita bederatzi eta hogeita lau urte zituztela[88]. Etxearekin jarraitu zuen Juan Antonio Izuzkitza Albisuk, hots, Jose Mariaren semeak, 1897an Juana Ignacia Arzelus Irizarrekin ezkondu zenak. Juan Antonio Izuzkitza Albisuk 1929an Bainuetxea erosi zuen, eta 1964an itxi zuten arte, familia honen esku egon zen, batez ere beren alaba Mª Cruz Eleuteria Izuzkitza Arzelusen esku.

Udal kontuetan ikus dezakegu Jose Gabriel Izuzkitzak hainbat hornigai eskaini zizkiola Udalari 1875ean eta 1877an, II. Gerra Karlistan. Etxe honetan, gainera, beste jarduera batzuk ere burutu ziren, Izuzkitzatarrengandik kanpo, bai familia honek higiezina eskuratu aurretik eta bai eskuratu ondoren ere. 1860ko jarduera-zerrendaren arabera etxe honetan ditugu Juan Manuel Urretabizkaiaren *ogia egosteko labea* eta *okindegia*. Udal Artxibotik lortutako beste aurrekari batzuen arabera, 1897an okindegi hau martxan zen oraindik, eta horren kargu Martin Mendizabal Albisu ageri da.

Parentesi luze baten ondoren, XX. mendearen bigarren erdian, Elizalden ondorengo jarduerak topatuko ditugu. 1958an Mª Angeles eta Manuela Bizkai Mujika ahizpak ditugu bertan (Iesa, Nafarroa, 1933 eta 1935, hurrenez hurren), emakumeentzako ile-apaindegia eta puntu-lanen saltokiarekin, eta 1965ean Mari Carmen Etxeberria Martínezek (Ordizia, 1942) ordezkatuko ditu, baina gero, 1966an, Maiora plazara aldatuko du bere negozioa, 1974. urtean establezimendua itxi zuen arte.

Industria-matrikulen arabera, Pablo Lasa Ariztimuñok (Ormaiztegi, 1930-1997), 1955az geroztik Elizaurreren aldameneko etxean kokatutako zapata-dendaren kargua zuela, aparailu elektrikoen salmentarako establezimendua zabaldu zuen 1960 inguruan Elizalden, eta 1978 arte irekita mantendu zen, eraikina eraitsi zuten arte, alegia. Garaiko publizitateagatik badakigu, gainera, oinetakoak, ehiza eta arrantzarako gaiak, plastikoak,

por esta familia, principalmente por su hija Mª Cruz Eleuteria Izuzkitza Arzelus.

Las cuentas municipales nos hablan de suministros al Ayuntamiento por José Gabriel Izuzkitza en los años 1875 y 1877, durante la II Guerra Carlista. Esta casa además acogió otras actividades al margen de los Izuzkitza, tanto con anterioridad a alcanzar esta familia la propiedad del inmueble, como tras su adquisición. El Listado de actividades de 1860 sitúa en esta casa el *horno de cocer pan* y *panadería* de Juan Manuel Urretabizkaia. Según otros antecedentes obtenidos del Archivo Municipal, en 1897 continuaba operativa esta panadería, situando al frente de la misma a Martín Mendizabal Albisu.

Tras un largo paréntesis, en la segunda mitad del siglo XX en Elizalde localizamos las siguientes actividades. En 1958 identificamos a las hermanas Mª Ángeles y Manuela Bizkai Mujika, (Iesa, Nafarroa, 1933 y 1935, respectivamente) con su establecimiento de peluquería de señoras y confección de géneros de punto, que en 1965 fueron relevadas por Mari Carmen Etxeberria Martínez (Ordizia, 1942), que posteriormente (1966) trasladó su negocio a la plaza Maiora, hasta el cierre del establecimiento en 1974.

Según las matrículas industriales, Pablo Lasa Ariztimuño (Ormaiztegi, 1930-1997), que regentaba desde 1955 la zapatería sita en la casa contigua de Elizaurre, hacia 1960 en Elizalde abrió al público un establecimiento destinado a la venta de aparatos eléctricos, que se mantuvo abierto hasta 1978, coincidiendo con el derribo del edificio. Por la publicidad de la época sabemos que además vendía calzado, artículos de caza y pesca, plásticos, bolsos, paraguas y artículos de juguetería, todo lo que viene a configurar el establecimiento en un auténtico bazar, regentado por su esposa Juana Barrenetxea Odriozola. Con la apertura de la sucursal de *Caja Laboral Popular* en la localidad, Pablo Lasa inició otra andadura profesional, asumiendo la dirección de la oficina de Ormaiztegi.

Hacia 1967 Juan Telleria Aldasoro (Ormaiztegi, 1932) de Berjaldegi estableció en Elizalde una pescadería, que fue atendida por su hermana Josune, hasta que en 1971 le tomó relevo Miguel Etxeberria Martínez (Ordizia, 1946). Todos estos establecimientos desaparecieron al derribarse la edificación hacía el año 1978, para la apertura de la actual Zumalakarregi etorbidea. ■

135 - 136
Publizitatea, 1962
Publicidad, 1962

137
Pablo Lasaren oinetako denda eta komertzioa
Zapatería y comercio de Pablo Lasa

138 - 139 - 140

Publizitatea, 1971 - 1964 - 1971
Publicidad, 1971 - 1964 - 1971

poltsak, aterkiak eta jostailuak saltzen zituela, eta horrek guztiak benetako bazar bihurtu zuen establezimendua, haren emazte Juana Barrenetxea Odriozola arduratzen zela. Herrian *Lankide Aurrezki Kutxa*ren sukurtsala irekitzearekin batera, Pablo Lasak beste ibilbide profesional bati ekin zion, Ormaiztegiko bulegoaren zuzendaritza bere gain hartuz.

1967 aldera, Berjaldegiko Juan Telleria Aldasorok (Ormaiztegi, 1932) arrandegi bat jarri zuen Elizalden, eta haren arreba Josune aritu zen dendari, 1971. urtean Miguel Etxeberria Martínezek (Ordizia, 1946) ordezkatu zuen arte Establezimendu horiek guztiak desagertu egin ziren egungo Zumalakarregi etorbidea egiteko xedez eraikin hori 1978 urte inguruan eraitsi zutenean. ■

141
Publicidad, 1952
Publicidad, 1952

4.11 SARRIEGI ETXEA

La primera referencia localizada de esta casa data de 1832 y procede de la escritura de permuta del terreno aledaño a la vecina casa Oñatibia. Aquí se le nombra como *casa del sacristán*, siendo su propietario Joaquín Bautista Beobide Aranegi. Hemos localizado referencias de las ocupaciones de Beobide como sacristán desde 1829 hasta 1860, siendo además encargado del mantenimiento del reloj parroquial. También es citado como depositario o tesorero municipal en 1859.

Esta casa construida en pertenecidos de la casería Iriarte Goena, en 1836 fue adquirida, por título de compra-venta, por José Venancio Sarriegi Korta casado con una hermana del anterior, Ana Antonia Beobide Aranegi, y le sucedió en la titularidad del inmueble su hijo mayor, José Joaquín Sarriegi Beobide y a éste, su viuda Francisca Mujika Arregi[89].

Posteriormente perteneció esta casa a Ángel Fernández de Casadevante, casado con una hija de Serapio Mujika, Remedios Mujika Mujika. Fernández de Casadevante fue el arquitecto redactor del proyecto y director de las obras de construcción de las escuelas, así como de la reforma de la vecina Iriarte Goena. En las postrimerías de los años sesenta del siglo XX tras haberse proyectado el derribo de esta casa de bella factura, hoy se muestra incólume y testigo de un pasado no lejano que nos resulta difícil reconocer, por la desaparición de los edificios que configuraron nuestro pueblo hasta la llegada del desarrollismo. Su rehabilitación se la debemos a sus actuales propietarios, Manuel Iurrita Galdos y Anttoni Sarasola Odriozola.

Sin duda, la acepción Sarriegi etxea (San Andrés, 11) se debe a esta familia. Sin embargo en la localidad está muy extendida la denominación de Txulokoa para esta casa, pese a que tal designación se aplicaba a Iriarte Txikia, según hemos indicado ante-

142
Sarriegi eta Oñatibiaren atzealdea, 1940
Parte trasera de los edificios Sarriegi y Oñatibia, 1940

4.11 SARRIEGI ETXEA

Etxe honen kokapenari buruzko lehen aipamena 1832koa da eta horren aldameneko Oñatibia etxearen ondoko lursail baten truke-eskrituran ageri da. Bertan, *sakristauaren etxe* izendatzen dute, eta horren jabea Joaquin Bautista Beobide Aranegi da. Beobidek sakristau gisa izandako okupazioari buruzko aipamenak topatu ditugu 1829tik 1860ra, eta horrez gain, parrokiako erlojuaren mantentze-lanen arduradun ere bazen. 1859an gordailuzain edo udal diruzain gisa ere aipatzen dute.

Iriarte Goena etxearen lurretan eraikitako etxe hau Jose Venancio Sarriegi Kortak eskuratu zuen 1836an, salerosketa-titulu baten arabera; aurreko horren arreba Ana Antonia Beobide Aranegirekin ezkondua zegoen Jose Venancio, eta higiezinaren hurrengo titularra Jose Joaquin Sarriegi Beobide haren seme zaharrena izan zen, eta hurrena, haren alargun Francisca Mujika Arregi[89].

Gero, etxe honen jabe Angel Fernández de Casadevante izan zen, Serapio Mujikaren alaba Remedios Mujika Mujikarekin ezkondua. Fernández de Casadevante, hain zuzen ere, eskolak eraikitzeko proiektua idatzi zuen arkitektoa eta obren zuzendaria izan zen, baita Iriarte Goena aldameneko etxeko eraberritze-lanena ere. XX. mendeko hirurogeiko hamarraldiaren bukaeran, egitura ederreko etxe honen eraispena proiektatu ondoren, gaur egun kalterik jasan gabe ageri zaigu nekez ezagutu dezakegun iragan hurbil baten lekuko gisa, desarrollismoa iritsi arte gure herria ehundu zuten eraikinak desagertu egin direlako. Horren birgaikuntza egungo jabeei zor diegu, hots, Manuel Iurrita Galdosi eta Anttoni Sarasola Odriozolari.

Zalantzarik gabe, Sarriegi etxea izendatu izana (San Andres, 11) familia honi zor zaio. Halere, herrian oso zabalduta dago Txulokoa izena erabiltzea etxe honentzat, nahiz eta izendapen hori Iriarte Txikia etxearentzat erabiltzen zen, lehenago ere adierazi dugun moduan. Era

143
Sarriegi

riormente. También, según nos señala Pilar Gorrotxategi Aranburu, se le ha conocido como Urdintxo, en referencia al característico color azul de la carpìntería de sus puertas y ventanas.

En el Listado de actividades de 1860, en esta casa se localiza un molino de chocolate movido por una caballería, que consta de una piedra y cuatro cilindros, así como una prensa de cera, que no funciona. Sitúa a José Venancio Sarriegi Korta como confitero, con tienda abierta y completa, todo lo anterior haciendo referencia a una tienda de chocolate y abacería. Por otro lado, el Archivo Municipal informa de la existencia de una tienda en esta casa el año 1872 (fecha de fallecimiento de José Venancio Sarriegi), ratificada en la información registral de la finca del año 1878, sin que se localice ningún otro rastro de esta actividad hasta casi mediados del siglo siguiente. José Joaquín Sarriegi Beobide, según informan las inscripciones registrales de esta casa, el año 1878 era fabricante de chocolate, avecindado en Donostia, lo que implica que continuó en la capital con el mismo oficio que su padre.

Rosario Astigarraga Sarasketa (Elgoibar, 1927) regentó en los bajos de esta casa una peluquería de señoras por un corto período de tiempo, de 1944 a 1948, año en que se casó.

De 1949 a 1955 Anastasia Antia Oiartzabal (Ormaiztegi, 1915-Donostia, 1997) del caserío Beorreta, regentó en ese mismo local un comercio destinado a la venta de artículos de mercería. Además, su titular se dedicó a la confección de géneros de punto, con una tricotosa que contaba para tal menester.

El año 1949, Pilar Gorrotxategi Aranburu (Ormaiztegi, 1932), tras formarse en la *Peluquería Manolita* de Tolosa, abrió su propio establecimiento de peluquería de señoras, *Peluquería Pilarcho*, en esta misma casa, haciéndose cargo, además, de la mercería anterior en 1956. El año 1991 cerró ambos establecimientos (peluquería y mercería). Tras el cierre de la peluquería Pilar Gorrotxategi siguió ejerciendo la profesión atendiendo a las clientas en sus propios domicilios, hasta que en 1997 se jubiló. Sin embargo no era la primera vez que ejercía su profesión de esta manera, ya que según nos ha referido ella misma, en sus inicios contaba con clientas a las que peinaba diariamente en sus domicilios, a razón de seis reales (1,50 pesetas). Además en este tiempo, en la temporada de baños, atendía en el balneario a las *bañistas* que requerían sus servicios. ■

144
Pilar Gorrotxategi Aranburu, Jesus Alonso Vicente (senarra) eta Mª Pilar (alaba).
Pilar Gorrotxategi Aranburu, Jesús Alonso Vicente (esposo) y Mª Pilar (hija).

berean, Pilar Gorrotxategi Aranburuk adierazten digun moduan, Urdintxo izenez ere ezaguna izan da, bere ate eta leihoetako egurraren kolore urdin bereizgarriaren ondorioz.

1860ko jarduera-zerrendan etxe honetan txokolatezko errota bat kokatua dagoela ageri da, zaldi batek eragindako errotarri bat eta lau zilindro dituela, baita argizari-prentsa bat ere, ez dabilena. Jose Venancio Sarriegi Korta ageri da gozogile gisa, denda zabalik eta osatua duela, eta hori guztia txokolate-denda eta janari-denda bati buruzko aipamenean. Bestalde, Udal Artxiboak jakinarazten du etxe horretan denda bat izan zela 1872. urtean (Jose Venancio Sarriegi hil zen urtean), 1878ko finkaren erregistro-informazioa berretsi zen moduan, baina ez dugu jarduera horren beste arrastorik topatuko hurrengo mendearen erdialdera arte. Jose Joaquin Sarriegi Beobide, etxe honen erregistro-inskripzioek diotenez, txokolate-ekoizlea zen 1878. urtean, eta helbidea Donostian zuela, eta horrek esan nahi du hiruburuan ere bere aitaren lanbide berarekin jarraitu zuela.

Rosario Astigarraga Sarasketak (Elgoibar, 1927) etxe honen behe-solairuetan emakumeentzako ile-apaindegi bat izan zuen epe labur batez, 1944tik 1948ra, ezkondu zen urte arte, alegia.

1949tik 1955era, Beorreta baserriko Anastasia Antia Oiartzabalek (Ormaiztegi, 1915-Donostia, 1997) lokal horretan bertan mertzeria-gaien salmentarako denda bat eduki zuen, Gainera titularra puntu lanak egiten jardun zen, horretarako bereziki zeukan trikotatzeko makina bati esker.

1949. urtean, Pilar Gorrotxategi Aranburuk (Ormaiztegi, 1932), Tolosako *Peluquería Manolita* ile-apaindegian ofizioa ikasi ondoren, emakumeentzako ile-apaindegia ireki zuen, *Peluquería Pilarcho* izenekoa, etxe honetan bertan, eta horrez gain, aurreko mertzeriaren kargu ere egin zen 1956an. 1991an bi denda horiek itxi zituen (ile-apaindegia eta mertzeria). Ile-apaindegia itxi ondoren, Pilar Gorrotxategik lanbide horretan jarraitu zuen bezeroei beren etxeetan zerbitzua eskainiz, 1997an erretiroa hartu zuen arte. Halere, ez zen bere lanbidea horrela betetzen zuen lehen aldia, berak esan digun moduan hasieran egunero joaten baitzen bezero batzuen etxeetara haiek orraztera, sei errealen truke (1,50 pezeta). Gainera, epe horretan, bainuen garaian, bere zerbitzuak eskatzen zituzten *bainuzaleei* arreta egiten zien bainuetxean bertan.■

145
Publizitatea, 1952
Publicidad, 1952

146
*Peluquería Pilarcho*ren iragarki-kartela
Nieves Kanpos, Manoli Mujika eta Belen Astigarraga
Cartel anunciador de *Peluquería Pilarcho*
Nieves Kanpos, Manoli Mujika y Belén Astigarraga

4.12 OÑATIBIA O MAIXUNE

La casa Oñatibia fue construida en fecha que no podemos precisar, por José Ramón de Oñatibia Arizti, en terrenos adquiridos en 1825 a José Antonio Urkiola. *Oñatibia fue poseedor legítimo del vínculo y mayorazgo fundado por su cuarto abuelo, en línea recta de varón, el capitán Domingo de Oñatibia, el 14 de abril de 1700, cuya cabeza es la casería de Oñatibia Mayor, radicante en Gabiria* y ejerció de escribano real y numeral en las localidades de Gabiria y Ormaiztegi[90].

Tras la muerte sin descendencia de José Ramón de Oñatibia, heredó el título de propiedad de la casa su viuda, María Ángela de Zabala, quien cedió dicha propiedad a su cuñado Simón de Oñatibia, residente en La Habana, a su vez heredero del vínculo y mayorazgo de Oñatibia. Simón Oñatibia Arizti, tras su paso por La Habana se estableció en Sevilla, incorporándose a la élite económica de la misma, donde se dedicó al comercio, así como a la práctica crediticia (prestamista), integrándose muy bien en la sociedad sevillana, de hecho en 1858 formaba parte como tesorero en la Junta Directiva del Hospital Las Cinco Llagas[91].

Al fallecimiento de Simón de Oñatibia, heredó el título de propiedad de la casa que nos ocupa su hija, María de las Mercedes Oñatibia y Mantilla, residente en Sevilla, quien la vendió a Josefa Luisa Insausti Arzelus, viuda de Pedro Zangitu Bergaretxe, al precio de cuatro mil setecientas cincuenta pesetas[92].

No obstante lo anterior, la familia Zangitu-Insausti tenía su residencia en la casa Oñatibia con anterioridad a su adquisición. Así en 1860 se sitúa al cirujano Zangitu domiciliado en esta casería, como *médico romancista*[93] y *tratante de sanguijuelas*. Pero, además, tenemos conocimiento de la residencia de Pedro Zangitu en Ormaiztegi desde 1841, constándonos, además, su ejercicio como cirujano desde 1843[94].

El Señor Presidente manifestó que quedó profundamente impresionado al ver el resultado de la brillantez de la fiesta de inauguración de las Escuelas que tuvo lugar el dia cinco del corriente mes, tan rumbosa y hermosa, que nunca hubiera llegado á creer, pudiera haber efectuado con tanta solemnidad en una pequeña aldea como esta de Ormaiztegui, en atención á los escasos recursos con que cuenta, á no haber intervenido el entusiasmo y la espontanea voluntad de las autoridades y vecinos que coadyuvaron para llevarlo á su feliz término, y pasa á describirlo en la forma siguiente.

Obrak diseinatzeko eta zuzentzeko beharrezko aholkularitza teknikoa Jose Angel Fernández de Casadevante arkitektoaren esku utzi zuten, bere emazte Remedios Mujika Mujikaren bitartez herriarekin lotura estua baitzuen. Casadevante arkitektoak doan eskaini zuen bere esku-hartze profesionala, eta horren ondorioz, Udalak, lan hori eskertu eta aitorpen bat egiteko, Alfonso XII.aren Ordena Zibilaren Gurutzea eskatu zion gobernuari, hari emateko.

Obra horiek, prozedura gorabeheratsu baten ondoren, Juan Cruz Irizar Arzelus herriko arotzari esleitu zizkioten, eta hau, horrez gain, eskolako altzarien parte baten ekoizpenaz ere arduratu zen.

Inaugurazioko ekitaldiak egiteko 1915eko irailaren 5a arte itxaron behar izan zen arren, egoeraren larria zela eta, 1914/1915 ikasturtean jarri zuten martxan eskola hori, obrak amaitu (1914ko abenduaren 31n) eta berehala. Inaugurazioko ekitaldiei eskainitako handitasun eta arrandiak ere aspaldidanik desio izandako amets bat bete zela adierazten dute, eta horri buruzko lekukotzak zehaztasun eta ugaritasun handiz iritsi dira gaur eguneraino.

1915eko irailaren 11ko akta[114]

Lehendakari jaunak adierazi zuen oso hunkituta geratu zela, hilaren bostean, Eskolen inaugurazio-festaren bikaintasunaren emaitza ikustean, sekula ez baitzuen pentsatuko halako giro eder eta gustagarrian, Ormaiztegiko herrixka txiki batean halako handitasunez egin zitekeenik, zeuzkan baliabide urriak kontuan izanda, baldin eta ez bazen halako gogo bizia eta borondate kartsua jarri agintari eta herritarren aldetik, horri esker lortu baitzuten azken burura eramatea, eta hain zuzen ere, honela deskribatuko du jarraian.

Parrokian meza eder bat entzun ondoren, Segurako dantzari txikiek aurreskua dantzatu zuten plazan herri honetako biztanleen eta kanpotarren aurrean; jarraian, leku berean, segizioa antolatu zen arrandi guztiarekin, aurreko bilkuraren aktan adierazten den moduan, eta Eskoletara iritsi ondoren, Jose Kanpos erretore jaunak eskolak

163
1915ean inauguratutako eskola berriak
Nuevas escuelas inauguradas en 1915

Después de la brillante misa en la Parroquia tuvo lugar el Aurresku bailado en la plaza por los dantzaris-chiquis de Segura ante el público de esta villa y forasteros; á continuación y en el mismo lugar se organizó la comitiva con todo el orden en la forma que se indica en la acta de la sesión anterior, una vez en las Escuelas el Señor Párroco Don José Campos dió comienzo á la bendición de ellas; terminada la ceremonia se constituyó la Tribuna en la de los niños, formándola el Señor Párroco, el Excmo. Exministro D. Fermín Calbetón, D. Leopoldo Sanz Inspector de Primera Enseñanza por sí y en representación del Excmo. Sr. Ministro de Instrucción Pública y D. Wenceslao Orbea Presidente del Consejo de Administración de la Caja de Ahorros Provincial, hallán-

164 - 165 - 166
Inaugurazio ekitaldien barnean, parrokiatik eskola berrietaraino, agintari, gonbidatu eta herritarren segizioa, 1915
Desfile de autoridades, invitados y vecinos desde la parroquia hasta las nuevas escuelas, dentro de los actos de su inauguración, 1915

bedeinkatzen hasi zen; ekitaldia amaitu zenean, ondokoek Tribuna osatu zuten mutikoen aldean: Erretore jaunak, Fermín Calbetón Ministro Ohi Txit Argiak, Leopoldo Sanz Lehen Irakaskuntzako Ikuskatzaileak, bere kabuz eta Heziketa Publikoaren Ministro Txit Argiaren ordezkari gisa, eta halaber, Wenceslao Orbea Aurrezki Kutxa Probintzialeko Administrazio Kontseiluaren Lehendakariak. Lokala jendez gainezka zegoen, herritarrak nahiz kanpotarrak erruz etorri baitziren bertan emango zituzten hitzaldiak entzutera.

Eskola honetako ikasle eta bertako bizilagun Brigida Kanpos neskatoak eman zion hasiera ekitaldiari, eta horri buruzko olerki bat irakurri zuen.

Hori irakurri eta berehala, Lehendakariak berak hitzaldi bat eman zuen, bere izenean eta Udalbatzare-

dose el local abarrotado de gente de la villa y forasteros que acudieron para hoir [sic] los discursos que se iban á pronunciar.
Dio comienzo la niña Brígida Campos de esta villa y alumna de la Escuela, leyendo una poesía alusiva al acto.
Seguidamente que leyó el mismo Presidente un discurso para instar en nombre suyo y en el de esta Corporación la gratitud mas honda y sincera á todos los que han cooperado con su ayuda eficaz á esta villa de Ormaiztegui, para conseguir y tener un edificio digno del fin noble á que se le destina.
Á continuación el Señor Párroco Don José Campos en breves y sentidas palabras ensalzó la Enseñanza Cristiana.
Luego pronunció un brillante discurso un hijo de esta villa D. Gregorio Mugica Director de la revista quincenal Euscalerriaren alde diciendo que se abrogaba la representación del pueblo, porque en él adquirió sus primeras instrucciones y por tanto contribuía con los demás a ofrecer su infinita gratitud sin tasa ni limitaciones, porque así se lo merecían, á todos aquellos que han cooperado con su ayuda en esta empresa; Terminado en Castellano habló en bascuence, exhortándoles a los niños para que aprendieran y fueran buenos discípulos en la nueva Escuela, que él fue discípulo del finado D. Juan Antonio Ayerbe en la Escuela bieja [sic] y que tuvieran intenso amor como él le tiene al pueblo que le vió nacer.
Después leyó unas cuartillas el Señor Maestro de la villa D. Manuel Salazar, analizándo la misión que tiene de educar á los niños y la importancia de la Enseñanza.
Luego hizo uso de la palabra D. Leopoldo Sanz Inspector de Primera Enseñanza, felicitándo á la villa por la construcción de las Escuelas, encomiándo la labor llevada á cabo por el arquitecto Sr. Casadevante.
Terminó el acto con el brillante y sentido discurso del Exministro Excmo. Sr. D. Fermín Calbetón elogiándo la misión de la madre, del Sacerdote y del Maestro con respecto á la educación de los niños; luego habló en Vascuence; siendo todos ellos muy aplaudidos y dándo con esto fin al acto.
Seguidamente se dio una visita á las Escuelas y demás departamentos, quedándo todos ellos muy encantados; y volvió á formarse la comitiva para continuar al Balneario donde estaba preparado el espléndido banquete de honor por Don Ramón Zanguitu, á quién se le tributaron grandes y merecidos elogios por los 38 invitados que asistieron, por lo bien servido que estuvo.
Que participaron tambien los vecinos del pueblo, con las comidas que se les prepararon en las posadas y fondas, conforme se indica en la sesión anterior; y que durante toda la tarde y noche amenizaron la fiesta la música y el tamboril á satisfacción del vecindario y forasteros que acudieron.
En atención á todo lo espuesto; que consideraba y hacía presente á la Corporación, que se hallaba en el deber de tributar su agradecimiento á todos aquellos Señores que directa ó indirectamente han tenido participación en la ayuda de la empresa realizada por esta villa, con la construcción del edificio Escolar, habiéndo sido todos ellos invitados, pero los que honrraron con su presencia fueron los siguientes: D. Fermín Calbetón, D. Leopoldo Sanz Inspector de 1ª Enseñanza por si y en representación del Sr. Ministro de Instrucción Pública, el Senador por la Provincia D. Bernardo Rengifo, D. Wenceslao Orbea, Don Constantino Aguinaga Vicepresidente de la Comisión Provincial, D. Francisco Freijero representante de este Ayuntamiento en Madrid, D. Angel F. Casadevante Arquitecto de las obras, D. José Campos Párroco, D. Pedro Igarzabal Coadjutor y D. Juan María Lasa Cura, D. Saturnino Mozota y D. José Otaño Médicos, D. Gregorio Mugica y D. Leandro Múgica representantes de Novedades, D. Manuel Salazar, D. Juan Cruz Irizar contratis-

nean, eskerrik beroena eta sakonena eskainiz beren laguntza eraginkorraren bidez Ormaiztegiko herri honi lagundu dioten guztiei, halako helburu zintzo eta prestua izango duen eraikin hori lortzen eta gauzatzen.

Gero, Jose Kanpos Erretore jaunak, hitz labur baina sentikor batzuen bidez, Kristau Irakaskuntza goraipatu zuen.

Horren ondoren, Euscalerriaren alde izeneko hamabostekariaren zuzendari Gregorio Mujika Ormaiztegiko semeak hitzaldi gogoangarri bat egin zuen, herriaren ordezkaritza bere gain hartzen zuela esanez, bertan jaso zituelako lehen irakaspenak eta, beraz, besteekin batera bere eskerrik handiena eskaintzen ziela, inolako mugarik eta ordainik gabe, horrela merezi zutelako, lantegi honetan lagundu zuten guztiei. Gaztelaniazko hitzaldia amaitu zuenean, euskaraz jarraitu zuen, haurrei eskatuz Eskola berrian asko ikas zezatela eta ikasle onak izan zitezela, bera Juan Antonio Aierbe zenaren ikasle izan zela Eskola zaharrean, eta maitasun handia erakuts diezaiotela, berak eduki zuen moduan, jaio zen herriari.

Gero, orri batzuk irakurri zituen herriko Maisu Manuel Salazar jaunak, haurrak hezteko ardura horretan berak betetzen zuen eginkizuna eta Irakaskuntzaren garrantzia aztertuz.

Gero, Lehen Irakaskuntzako Ikuskatzaile Leopoldo Sanz jaunak hartu zuen hitza, eta zorionak eman zizkion herriari Eskolak eraikitzeagatik, eta Casadevante arkitekto jaunak egindako lana goraipatu zuen.

Ekitaldia amaitzeko, Fermín Calbetón Ministro Ohi Jaun Txit Argiak hitzaldi bikain eta sentikorra egin zuen, amak, apaizak eta maisuak haurren hezkuntzan egiten duten lana goraipatuz; gero euskaraz mintzatu zen, eta hizlari horiek guztiek txalo handiak jaso zituzten eta horren bidez amaitu zuten ekitaldia.

Jarraian, bisita bat egin zuten Eskoletan eta gainerako departamentuetan eta denak oso pozik geratu ziren; eta berriro segizioa osatu eta Bainuetxera abiatu ziren, Ramón Zangitu jaunak omenezko oturuntza zoragarri bat prestatu baitzuen, eta goraipamen eta alabantza ugari egin zizkioten bertara hurbildutako 38 gonbidatuek, jasotako zerbitzu bikainagatik.

Baina herriko bizilagunek ere parte hartu zuten, ostatu eta fondetan prestatu zizkieten bazkariekin, aurreko bilkuran adierazten den moduan; eta arratsalde eta gau partean denon bihotzak alaitzen aritu ziren musika eta danbolina, bertara hurbildu ziren herritar nahiz kanpotar guztien gustagarri.

Adierazitako hori guztia kontuan izanik, berak ere gogoan hartzen zuela eta Udalbatzari ere jakinarazten ziola Udal honek burututako lan horretan, Eskola eraikitzen, alegia, zuzenean nahiz zeharka laguntzen parte hartu zuten guztiei bere esker ona adierazi beharrean zegoela, eta horiek guztiak gonbidatu izan zituztela, baina beren presentziarekin ohore egin nahi izan ziotenak ondorengoak izan zirela: Fermín Calbetón jauna, Leopoldo Sanz jauna Lehen Irakaskuntzako Ikuskatzailea, bere kabuz eta Heziketa Publikoaren Ministro jaunaren ordezkari gisa, Probintziako Senadore Bernardo Rengifo jauna, Wenceslao Orbea jauna, Batzorde Probintzialeko Lehendakariorde Constantino Aginaga jauna, Udal honen ordezkari Madrilen Francisco Freijero jauna, obren arkitekto Angel F. Casadevante jauna, Jose Kanpos erretore jauna, Pedro Igartzabal apaiz laguntzaile jauna eta Juan Maria Lasa apaiza, Saturnino Mozota eta Jose Otaño mediku jaunak, Novedades aldizkariaren ordezkari Gregorio Mujika eta Leandro Mujika jaunak, Manuel Salazar jauna, obra-kontratista Juan Cruz Irizar jauna, Gabiriako Andres Tellería jauna, Mutiloako Joaquin Murgiondo eta Ignacio Olaizola meategietako arduradun jauna, Musika Bandako Zuzendari Sabel Aranzadi jauna, Emilio Urkiola jauna eta Jose Kanpos sakristau jauna, eta Udalbatza osoa, bertako idazkari eta aguazilarekin.

Oturuntza amaitu zutenean, Telefo-

167
Alegia auzoko Javier Arzelus Fundazioko eskolako ikasleak, Damiana Bidaurreta maistrak zuzendua, 1925-26
Alumnos de la escuela de la Fundación Javier Arzelus, en el barrio de Alegia, regentada por la maestra Damiana Bidaurreta, 1925-26
(ver pág. 281 orria ikusi)

ta de las obras, D. Andrés Tellería de Gabiria, D. Joaquín Murguiondo y D. Ignacio Olaizola de Mutiloa encargado de las minas, D. Sabel Aranzadi Director de la Banda de Música, D. Emilio Urquiola y D. José Campos Sacristan y todo el Ayuntamiento en pleno con Secretario y Alguacil.

Que á la terminación de la comida se dio lectura de los Telefonemas y cartas de adhesión al acto, recibidos de los Señores siguientes: Sr. Ugarte Ministro de Fomento, Sr. Villanueva Exministro y Diputado á Cortes por Santo Domingo de la Calzada, Sr. Presidente de la Diputación de Guipuzcoa, Don Carlos María Cortezo Exministro de Instrucción Pública, del Sr. Lojendio Coronel de Miqueletes, Sr. Cortázar Arquitecto Provincial, Don León Iruretagoyena Alcalde de Irun, Don José Machinbarrena Expresidente de la Diputación de Guipuzcoa, Don Gabriel María Laffitte delegado Regio de Primera Enseñanza en San Sebastian y Don Serapio Mugica Inspector de Archivos Provinciales.

El Ayuntamiento escuchó con agrado todo lo expuesto por el Señor Presidente, y aunque todos ellos son dignos de justos y merecidos elogios de parte de esta Corporación, no puede menos de hacer especial mención por su intervención directa en esta empresa de los Excmos. Sres. Cortezo, Calbetón y Villanueva, quienes desde un principio se interesaron para conseguir del Gobierno de Su majestad el Rey Don Alfonso XIII, la aprobación del expediente y la subvención concedida; aunque cada uno de ellos tiene bien merecida una lápida conmemorativa en cada ángulo de las Escuelas, comprenderán bien esos Señores, la insuficiencia y escasez de recursos de esta humilde aldea, la cual, en prueba de agradecimiento une todos sus corazones, y esta Corporación en representación de la misma, hace constar en acta un voto solemnísimo de gracias para los mismos.

Acordó también que no puede dejar en olvido su agradecimiento la

nemak eta ekitaldi horren atxikipengutunak irakurri zituzten, ondorengo jaunengandik jasoak: Fomentoko Ministro Ugarte jauna, Ministro Ohi eta Santo Domingo de la Calzadatik Gorteetarako Diputatu Villanueva jauna, Gipuzkoako Aldundiko Lehendakari jauna, Heziketa Publikoaren Ministro Ohi Carlos Maria Cortezo jauna, Mikeleteen Koronel Lojendio jauna, Probintziako Arkitekto Cortázar jauna, Irungo Alkate Leon Iruretagoiena jauna, Gipuzkoako Aldundiko Lehendakari izandako Jose Matxinbarrena jauna, Donostiako Lehen Irakaskuntzako Errege Ordezkari Gabriel Maria Laffitte jauna eta Probintziako Artxiboen Ikuskatzaile Serapio Mujika jauna.

Udalak atseginez entzun zuen Lehendakari Jaunak azaldutako guztia, eta horiek guztiek merezi zituzten arren Udalbatza honen goraipamen eta alabantzarik handienak, goraipamen berezia merezi dute, lantegi honetan izan zuten zuzeneko partaidetzagatik, Cortezo, Calbetón eta Villanueva Jaun Txit Argiak, hasiera-hasieratik agertu baitzuten Alfontso XIII. Errege Maiestatearen Gobernutik espedientearen onespena eta emandako diru-laguntza erdiesteko gogoa; eta nahiz horietako bakoitzak ongi baino hobeto merezia duen oroigarri bat Eskolako bazter bakoitzean, ederki ulertuko duzue, Jaunok, herrixka apal honen baliabideen urritasuna eta eskasia, eta horrexegatik, esker onez, bertako bihotz guztiak baturik, Udalbatza honek, herriaren ordezkari den aldetik, aktan agerrarazi nahi du horienganako esker oneko adierazpen ohoragarri bat. Era berean erabaki zuen ezin dezakeela ahaztu Lehendakari jaunak alor honetan egindako lanei esker

168
Manolita Lasa Mujikaren eskola partikularreko ikasleak, 1932
Alumnos de la escuela particular de Manolita Lasa Mujika, 1932
(ver pág. 282 orria ikusi)

169
Mª Angeles Imaz Otamendiren eskola partikularreko ikasleak, 1959-60
Alumnos de la escuela particular de Mª Ángeles Imaz Otamendi, 1959-60
(ver pág. 283 orria ikusi)

actividad de los trabajos del Sr. Presidente en esta materia, sostenida desde su principio hasta la terminación de la obra: y finalmente consigna igual y bien merecido gracias al Sr. Arquitecto D. Angel F. Casadevante por su esplendidez en ofrecerse gratuitamente todos sus trabajos en la dirección de la obra.

Hasta 1931 fue ésta la única escuela de la localidad, año en que Manolita Lasa Mujika (Ormaiztegi, 1908-Donostia, 1995) estableció una escuela particular en su domicilio, en el caserío Zelaeta. No tenemos constancia de ningún otro centro docente hasta que en 1951 se abrió la Escuela Parroquial regentada por Josefa Ramona Lasa Mujika, *señorita Ramona*, (Ormaiztegi, 1910-2001), hermana de la anterior, que se mantuvo abierta hasta finales de la década de los años sesenta o inicio de la siguiente, coincidiendo prácticamente con el nacimiento de la Ikastola en la localidad. Esta Escuela Parroquial únicamente atendió a niñas, estuvo alojada en los bajos de la casa parroquial y en su última etapa (1959-1970) fue regentada por Arantxa Muguruza Zangitu (Ormaiztegi, 1936-Donostia, 1990).

Desde 1949 hasta 1960 coexistió además la escuela privada de Mª Ángeles Imaz Otamendi ubicada en su domicilio, en la casa Urbieta.

En tanto la escuela pública fue evolucionando y fue necesario desdoblar en dos el aula de los niños, para lo que se procedió a habilitar un aula en el anexo a la casa consistorial, a cuyo frente se situó a Salvador Moreno de la Peña, *don Salvador* (Villanueva del Campo, Zamora, 1919-Donostia, 2005), encomendándole a éste los cursos superiores, en tanto que Juan Muguruza Etxeberria siguió atendiendo a los niños en los cursos inferiores.

En abril de 1966 *ante las inquietudes de varios padres de familia porque sus hijos recibieran instrucción primaria en su lengua nativa euzkara* inició su andadura la *Ikastola Parroquial San*

ona ematea, lanen hasieratik amaiera arte tinko eutsi baitio eginkizun horri: eta azkenik, eskerrak eman nahi dizkio, merezimendu osoz, Angel F. Casadevante arkitekto jaunari, bere borondate guztia obra-zuzendaritzan musutruk jartzean erakutsi duen eskuzabaltasunagatik.

1931 arte horixe izan zen Ormaiztegiko eskola bakarra; urte horretan, Manolita Lasa Mujikak (Ormaiztegi, 1908-Donostia, 1995) eskola partikular bat jarri zuen bere etxean, Zelaeta baserrian. Ez dugu beste inolako irakaskuntza-zentroren berririk, harik eta 1951. urtean Parrokiako Eskola zabaldu zuten arte Josefa Ramona Lasa Mujikaren eskutik, *señorita Ramona*, (Ormaiztegi, 1910-2001), aurrekoaren ahizpa, hirurogeiko hamarraldiaren amaiera edo hurrengo hamarraldiaren hasiera arte zabalik iraun zuena, herrian Ikastola sortu zen data inguru arte. Parrokiako Eskola honetan neskei bakarrik eman zieten eskola, parrokia-etxearen behealdean kokatua egon zen eta, bere azken garaian (1959-1970) Arantxa Muguruza Zangitu izan zen bertako andereñoa (Ormaiztegi, 1936-Donostia, 1990).

1949tik 1960ra, horrez gain, Mª Angeles Imaz Otamendiren eskola pribatua ere izan zen, haren etxean kokatua, Urbieta etxean hain zuzen.

Eskola publikoa eboluzionatzen joan ahala, beharrezkoa gertatu zen mutikoen gela bitan banatzea, eta horretarako, gela bat atondu zen udaletxearen aldameneko eranskinean, eta horren gidari gisa Salvador Moreno de la Peña jarri zen, *don Salvador* (Villanueva del Campo, Zamora, 1919-Donostia, 2005), eta horren esku utzi zituzten goi mailako ikastaroak, eta aldiz, mutikoei behe mailako ikasketak Juan Muguruza Etxeberriak eskaintzen jarraitu zuen.

170
Parrokiako Eskolako ikasleak Ramona Lasa Mujika maistrarekin, 1956-57
Alumnos de la Escuela Parroquial con la maestra Ramona Lasa Mujika, 1956-57
(ver pág. 284 orria ikusi)

Andrés, con un aula de veinte niños de ambos sexos de tres y cuatro años de edad, cuya responsabilidad recayó en María Luisa Zufiaurre Astigarraga. La primera localización de la ikastola estuvo en el balneario, hasta que en 1976 se trasladó a este edificio escolar, puesto que a estas alturas la escuela pública contaba con el actual complejo escolar. Una importante aportación económica de la *Caja de Ahorros Provincial de Guipúzcoa* y el trabajo en auzolan de padres y socios de la Ikastola posibilitaron la puesta a punto de este vetusto caserón, que en este tiempo debía presentar un importante deterioro.

La Ikastola de Ormaiztegi funcionó al amparo de la de Urretxu *Lourdesko Ama Ikastola*, inicialmente regentada por los padres pasionistas, hasta que en 1978 se dotó de personalidad jurídica propia. En enero de 1980 las aulas se trasladaron al actual grupo escolar, que lo compartieron con la escuela pública, aunque casi simultáneamente se puso en marcha el proceso de unificación de ambas escuelas, que se realizó de forma gradual, culminándolo en el curso 1983-84, lo que llevó a la disolución de la Ikastola el 25 de enero de 1984[115].

Fueron docentes de esta Ikastola Irune Asurabarrena; Mª Isabel Munduate Estensoro, Tere Peñagarikano Orbegozo, Arantxa Otaño González (psicóloga), Mª Ángeles Garmendia Gerra, Kontxi Lasa Alonso, Alazne Ezkurdia Herniaga, Juli Bidegain Ormazabal (idónea), Izaskun Irizar Intxausti (profesora de inglés), Lierni Baztarrika Olano (*zaintzaile*).

La Ikastola había experimentado un crecimiento exponencial, mermando considerablemente el alumnado de la Escuela Pública, como bien queda de manifiesto en la publicación *Ezkergintza* (octubre-1980) de Euskadiko Ezkerra, al presentar el estado del alumnado en el momento de acometer el proyecto de unificación escolar.

TABLA 8: DISTRIBUCIÓN DEL ALUMNADO, OCTUBRE DE 1980

Niveles	Escuela pública	Ikastola
3 años	-	30
4 años	15	30
5 años	15	23
1. EGB	8	22
2. EGB	15	12
3. EGB	8	12
4. EGB	12	12
5. EGB	16	6
6. EGB	12	-
7. EGB	10	-
8. EGB	15	-

1966ko apirilean *ikusirik nolako kezka zuten guraso batzuek beren seme-alabek lehen hezkuntza beren berezko euskal hizkuntzan jaso zezaten*, *San Andres Parrokia Ikastolak* bere bideari ekin zion, hiru eta lau urte bitarteko bi sexuetako hogei haurrek osatutako gela batean, eta horren erantzukizuna Maria Luisa Zufiaurre Astigarragak hartu zuen. Ikastolak bere lehen kokapena bainuetxean izan zuen, 1976an eskola-eraikin honetara aldatu zen arte, garai horretan eskola publikoak egungo eskola-konplexua zuelako. *Gipuzkoako Aurrezki Kutxa Probintzialak* egindako ekarpen ekonomiko garrantzitsuak eta Ikastolako gurasoek eta bazkideek auzolanean egindako lanak ahalbidetu zuten etxe tzar hau berritzea, garai hartan seguruenik nahiko hondatua egongo zelako.

Ormaiztegiko Ikastolak Urretxuko *Lourdesko Ama Ikastola*ren babesean funtzionatu zuen, hasiera batean aita pasiotarren zuzendaritzapean, harik eta 1978an nortasun juridiko propioa bereganatu zuen arte. 1980ko urtarrilean gelak egungo eskola-multzora aldatu ziren, eta hala, eskola publikoarekin batera partekatu zituzten, eta aldi berean ia, bi eskola horiek bateratzeko prozesuan abiarazi zuten, nahiz pixkanaka gauzatu zen, 1983-84 ikasturtean amaituz, eta horren ondorioz, desegin egin zen Ikastola 1984ko urtarrilaren 25ean[115].

Ikastola honetako irakasle izan ziren Irune Asurabarrena, Mª Isabel Munduate Estensoro, Tere Peñagarikano Orbegozo, Arantxa Otaño González (psikologoa), Mª Angeles Garmendia Gerra, Kontxi Lasa Alonso, Alazne Ezkurdia Herniaga, Juli Bidegain Ormazabal (egokia), Izaskun Irizar Intxausti (ingeleseko irakaslea), Lierni Baztarrika Olano (zaintzailea).

Ikastolak igoera esponentziala ezagutu zuen, eta nabarmenki murriztu zen Eskola Publikoko ikasle kopurua, Euskadiko Ezkerraren *Ezkergintza* (1980ko urria) argitalpenean argi eta garbi adierazten den moduan, ikastetxeak bateratzeko proiektuari ekiteko orduan ikasleriaren egoera aurkeztu zuenean.

8. TAULA: IKASLE KOPURUAREN BANAKETA, 1980KO URRIA

Mailak	Herri Ikastetxea	Ikastola
3 urte	-	30
4 urte	15	30
5 urte	15	23
1. OHO	8	22
2. OHO	15	12
3. OHO	8	12
4. OHO	12	12
5. OHO	16	6
6. OHO	12	-
7. OHO	10	-
8. OHO	15	-

MAESTROS DE LA LOCALIDAD

Para concluir con este apartado dedicado a la educación, incluimos el listado de los maestros que sirvieron en la localidad hasta la unificación de la Escuela Pública y la Ikastola.

TABLA 9: MAESTROS DE LA LOCALIDAD

1725-59	Joseph Antonio Oiarbide		
1803	Juan Antonio Arizpe Urrutia		
1826	Eusebio Antonio Zumalakarregi		
1829	José Ignacio Urrestazazu		
1843-54	Prudencio Gorostiza Uranga		
1859-60	Juan Cruz Labaien		
1861-72	Juan Domingo Guridi Sudupe	1863-70	Feliciana Larriona
1873 (3º trim)	Julián Otaegi	1870-71	Josefa Agustina Urteaga
1876-77	Miguel José Ezeiza	1872-76	Damiana Sanz
1878-79	Vicente González	1877	Vicenta Gurrutxaga
1879-1904	Juan Antonio Aierbe	1878-79	Victoriana Lopez de Goikoetxea y Filomena Igerategi Azpiroz
1904	Pedro Ignacio Igartzabal Urkiola (sacerdote, interino)	1879-93	Vicenta Gurrutxaga
1905	Esteban Asensio Tejedor (interino)	1895-1902	Librada González
1906-20	Gregorio Manuel Salazar	1903	Ramona Etxarri Gorostegi (interina)
		1903-04	Elvira Navascués
		1904	Ignacia Aldasoro (interina)
		1905-20	Eladia San Martín
1920	Mariano López	1920	Damiana Bidaurreta Gerediaga
1921/28	Jerónimo Aranda García	1921/29	Mª Paz Monforte
1928/?	Salvador Iraeta		
1929/69	Juan Muguruza Etxeberria		
		1938	Juanita Iruretagoiena
1961/70	Salvador Moreno de la Peña		
		1944/57	Josefa Imaz
		1957/59	Arantxa Muguruza Zangitu
		1959/?	Ramona Lasa Mujika
		1967/86?	Begoña Sánchez Nieto

Fuente: Elaboración propia

Despojado de la función docente para la que fuera concebido, este edificio ha albergado y alberga otros servicios públicos dependientes del Ayuntamiento. Así, el año 1984 fue rehabilitado para acoger la sala cultural multiusos, ambulatorio médico y biblioteca. El año 1992 se acondicionó la parte destinada a patio escolar, para su destino como hogar del jubilado. ■

HERRIKO MAISU-MAISTRAK

Hezkuntzari eskainitako atal honi amaiera emateko, Ormaiztegin, Eskola Publikoa eta Ikastola bateratu ziren arte, irakasten aritu ziren maisu-maistren zerrenda jaso dugu.

9. TAULA: HERRIKO MAISU-MAISTRAK

1725-59	Joseph Antonio Oiarbide		
1803	Juan Antonio Arizpe Urrutia		
1826	Eusebio Antonio Zumalakarregi		
1829	Jose Ignacio Urrestazazu		
1843-54	Prudencio Gorostiza Uranga		
1859-60	Juan Cruz Labaien		
1861-72	Juan Domingo Guridi Sudupe	1863-70	Feliciana Larriona
1873 (3º trim)	Julian Otaegi	1870-71	Josefa Agustina Urteaga
1876-77	Miguel Jose Ezeiza	1872-76	Damiana Sanz
1878-79	Vicente González	1877	Vicenta Gurrutxaga
1879-1904	Juan Antonio Aierbe	1878-79	Victoriana Lopez de Goikoetxea eta Filomena Igerategi Azpiroz
1904	Pedro Ignacio Igartzabal Urkiola (apaiza-behin-behinekoa)	1879-93	Vicenta Gurrutxaga
1905	Esteban Asensio Tejedor (bien bitartekoa)	1895-1902	Librada González
1906-20	Gregorio Manuel Salazar	1903	Ramona Etxarri Gorostegi (behin-b.)
		1903-04	Elvira Navascués
		1904	Ignacia Aldasoro (bien bitartean)
		1905-20	Eladia San Martín
1920	Mariano López	1920	Damiana Bidaurreta Gerediaga
1921/28	Jeronimo Aranda García	1921/29	Mª Paz Monforte
1928	Salvador Iraeta		
1929/69	Juan Muguruza Etxeberria		
		1938	Juanita Iruretagoiena
1961/70	Salvador Moreno de la Peña		
		1944/57	Josefa Imaz
		1957/59	Arantxa Muguruza Zangitu
		1959/	Ramona Lasa Mujika
		1967/86?	Begoña Sánchez Nieto

Iturria: Propio prestatutako taula

Eraikin horrek eduki zuen irakaskuntza-xedea alde batera utzi ondoren, egoitza honetan Udalaren mendeko beste zerbitzu publiko batzuk kokatu izan dira eta egun ere bertan kokatuta daude. Hala, 1984. urtean eraberritu egin zuten, bertan kokatzeko erabilera anitzeko kultura-aretoa, anbulatorio medikoa eta liburutegia. 1992an eskolapatiorako xedatutako zatia atondu zuten, zaharren egoitza izateko. ■

171
Gregorio Manuel Salazar Estéfano maisua, 1917 g.g.b.
Maestro Gregorio Manuel Salazar Estéfano, 1917 aprox.
(ver pág. 285 orria ikusi)

172
Mª Paz Monforte Fernández maistra, 1922 g.g.b.
Maestra Mª Paz Monforte Fernández, 1922 aprox.
(ver pág. 286 orria ikusi)

173
Jeronimo Aranda García maisua, 1925-26
Maestro Jerónimo Aranda García, 1925-26
(ver pág. 287 orria ikusi)

174
Salvador Iraeta maisua, 1928-29
Maestro Salvador Iraeta, 1928-29
(ver pág. 288 orria ikusi)

175
Juan Muguruza Etxeberria maisua, 1934
Maestro Juan Muguruza Etxeberria, 1934
(ver pág. 289 orria ikusi)

176
Mª Luisa Lizarralde maistra, 1941-42
Maestra Mª Luisa Lizarralde, 1941-42
(ver pág. 290 orria ikusi)

177
Juan Muguruza Etxeberria maisua, 1941-42
Maestro Juan Muguruza Etxeberria, 1941-42
(ver pág. 291 orria ikusi)

178
Juan Muguruza Etxeberria maisua, 1956-57
Maestro Juan Muguruza Etxeberria, 1956-57
(ver pág. 292 orria ikusi)

179
Salvador Moreno de la Peña maisua, 1963-64
Maestro Salvador Moreno de la Peña, 1963-64
(ver pág. 293 orria ikusi)

180
Arantxa Muguruza eta Ramonita Lasa maistrak, 1963-64
Maestras Arantxa Muguruza y Ramonita Lasa, 1963-64
(ver pág. 294 orria ikusi)

181
Begoña Sánchez Nieto maistra, 1967 g.g.b.
Maestra Begoña Sánchez Nieto, 1967 aprox.
(ver pág. 295 orria ikusi)

182
Arantxa Muguruza Zangitu maistra, 1969
Maestra Arantxa Muguruza Zangitu, 1969
(ver pág. 296 orria ikusi)

4.14 CASA CURAL

Si bien es cierto que en este edificio nunca se desarrolló actividad artesanal, mercantil o industrial alguna, hemos considerado procedente incluir una pequeña reseña del mismo, para completar la referencia de las casas que configuraron el casco de la villa.

Al igual que en todos los pueblos, mejor en todas las parroquias, en Ormaiztegi desde tiempo inmemorial se ha contado con una casa destinada a habitación de los curas al servicio de la parroquia de San Andrés. Esta casa, conocida como Apaizetxea, se localizó en la calle San Andrés, al borde de la carretera Beasain-Durango, enfrente de la parroquia San Andrés. Accedió al Registro de la Propiedad la inscripción de este inmueble el 18 de diciembre de 1916, con una parca descripción: *Casa Cural, compuesta de cuadra, piso principal, desván y antepuerta*.

Esta casa cural, hacia 1943 fue derribada para dar paso en el mismo solar a una nueva edificación, que albergó en su planta baja el denominado salón parroquial y dos viviendas en la planta alta, destinadas a los sacerdotes adscritos a la parroquia local.

El derribo de la casa cural se realizó en *auzolan*, según nos señaló Javier Olaizola Lasa, quien recordaba haber colaborado en las labores de desescombro, al igual que el resto de los niños de la villa, que en perfecta formación expresamente eran conducidos por su maestro, Juan Muguruza, con tal objeto.

El salón parroquial además de responder a las necesidades de la parroquia, como ya se ha dicho, albergó la Escuela Parroquial desde 1951 hasta los años sesenta, así como durante muchísimos años el cine infantil. Pero no fueron éstas las únicas funciones que se le encomendaron a este local que acogió desde actos culturales incluidos en los programas festivos de la localidad, hasta los colegios donde se desarrollaron las jornadas electorales en la década de los años ochenta del pasado siglo.

Como reiteradamente hemos señalado y no podía ser de otra manera,

183
Apaizetxe zaharra, 1924
Antigua casa cural, 1924

4.14 APAIZETXEA

Egia bada ere eraikin honetan inoiz ez zela artisautza, merkataritza edo industria arloko jarduerarik burutu, egoki iruditu zaigu horri buruzko aipamen labur bat jasotzea, herriko erdigunea egituratu zuten etxeen inguruko erreferentzia osatzearren.

Herri guztietan bezalaxe, edo hobeto esan, parrokia guztietan bezalaxe, Ormaiztegin ere, San Andres parrokiaren zerbitzuan aritzen ziren apaizen bizileku izateko etxea izan da antzinako garaietatik. Etxe hori, Apaizetxea izenez ezagutzen zena, San Andres kalean kokatua zegoen, Beasain-Durango errepidearen ertzean. Higiezin horren inskripzioa 1916ko abenduaren 18an egin zen Jabetza Erregistroan, deskribapen labur batez: *Apaizetxea, ukuilua, solairu nagusia, ganbara eta ataurrea zituela*.

Apaizetxea 1943 urte inguruan eraitsi zuten, orube horretan eraikin berri bat egin ahal izateko, eta haren behe-solairuan parrokia-aretoa eta goi-solairuan bi etxebizitza egin zituzten, herriko parrokiari atxikitako apaizentzat xedatuak.

Apaizetxearen eraispena auzolanean egin zen, Javier Olaizola Lasak adierazi zigun moduan, eta gogoan du nola lagundu zuen hondakinak ateratzeko lanetan, herriko gainerako mutikoek bezala, beren maisu Juan Muguruzak berariaz antolamendu ezin hobean gidaturik.

Parrokia-aretoak parrokiak zituen premiei erantzuteaz gain, arestian esan den moduan, bertan kokatuta egon zen Parrokia Eskola 1951. urtetik hirurogeiko hamarraldia arte, baita urte askotan ere haurrentzako zinema. Baina ez ziren horiek izan lokal honek bete zituen eginkizun bakarrak, herriko jai-egitarauaren barruan jasotako kultur ekitaldiak bertan egin baitziren, eta baita, esaterako, joan den mendeko laurogeiko hamarkadan, bertan egin ziren hainbat hauteskunde-jardunaldi.

184
Apaizetxe berria, 1959
Nueva casa Cural, 1959

En 1822 Eusebio Antonio pidió a fray José de San Miguel, prior de los carmelitas descalzos de Lazkao, que dos de sus religiosos se hicieran cargo de la rectoría de Ormaiztegi y él se marchó a Donostia con los constitucionalistas, lo que fue motivo de su procesamiento. Según testimonios prestados en las diligencias practicadas en la causa seguida, Eusebio Antonio había ido a Donostia por temor a las tropas realistas a primeros de abril de 1823 y estuvo en ella mientras duró el bloqueo y después con otros prisioneros fue llevado a Francia. Según declaraciones de testigos, Eusebio Antonio fue uno de los más comprometidos con el sistema constitucional y agasajaba a los voluntarios de la provincia cuando iban a Ormaiztegi; durante su estancia en la capital guipuzcoana «andaba por las calles de un modo que más parecía un frenético que sacerdote. Que una vez que hubo tiroteo le oyó decir las expresiones siguientes: 'ah quien tuviese un fusil¡, a fe que ya se pueden acordar algunos de Salvatierra, añadiendo que estuvo con su fusil en persecución de los de este pueblo, donde expresó hizo muertes'. Y que le consta que su reunión era con los liberales»; que había predicado a favor de la Constitución...[117]

fueron moradores de la casa rectoral los curas de la parroquia San Andrés, cuyo listado hemos querido recomponer. Pablo Gorosabel[116] nos informa que *La iglesia parroquial es de la advocación de San Andrés, servida por un rector y un beneficiado; cuya presentación, con arreglo al plan beneficial antiguo, corresponde a los propietarios de casas de la misma jurisdicción*. De la información adquirida hemos constatado que gran número de curas que sirvieron en la parroquia de Ormaiztegi fueron naturales de la misma, seguramente en razón a que su nombramiento se realizaba a propuesta (*presentación*) de los vecinos propietarios.

Por otro lado, llama la atención la continuada presencia de carmelitas descalzos durante la primera mitad del siglo XIX, ello responde a las andanzas y vicisitudes de uno de los párrocos más carismáticos que ha conocido Ormaiztegi, nos estamos refiriendo a Eusebio Antonio Zumalakarregi Imaz, nacido en el caserío Arandi el 16 de diciembre de 1778, quien a principios de 1810 consiguió *la revalidación de la licencia para celebrar, confesar y predicar por tres años* y en noviembre del mismo año el gobernador de Bizkaia, Thourenot, a propuesta del Consejo de la provincia, lo nombró párroco de su pueblo natal, a la muerte del último titular.

En los tres años siguientes ejerció el cargo, pero en 1813 la Regencia anuló todos los nombramientos que había hecho el gobierno del rey José y la rectoría de Ormaiztegi quedó vacante. Parte de los vecinos apoyaron a Eusebio Antonio para que siguiera, pero otros lo hicieron a favor de un presbítero también natural de esta localidad, José Ángel de Arizti Etxeberria. Así, se inició un largo proceso, que no finalizó hasta noviembre de 1817, cuando finalmente se adjudicó la plaza a Zumalakarregi, a propuesta de *por la mayor y más sana parte de los vecinos*. Debe recordarse que anteriormente el padre de Zumalakarregi litigó con el padre de su contrincante por la escribanía de Ormaiztegi.

186 >
Jeronimo Sarriegi parrokia-elizako aldare nagusian meza ematen, 1961
Jerónimo Sarriegi concelebrando en el altar mayor de la iglesia parroquial, 1961
185
Jose Ignacio Kanpos Arratibel erretorea, 1920 g.g.b.
José Ignacio Kanpos Arratibel, párroco, 1920 aprox.

Behin baino gehiagotan esan dugun moduan, eta gainera, ezin zitekeen bestela, Apaizetxean bizi izan ziren San Andres parrokiko apaizak, eta horien guztien zerrenda osatu nahi izan dugu. Pablo Gorosabelek[116] adierazi digunez, *Parrokia-eliza hori San Andresen omenez eraikia da, eta erretore batek eta benefiziodun batek zuzentzen dute; eta horren aurkezpena, antzinako benefizio-planaren arabera, jurisdikzio bereko etxeen jabeei dagokie*. Lortutako informazioari esker jakin dugu Ormaiztegiko parrokian zerbitzuan aritu ziren apaiz asko bertako herritarrak zirela, seguruenik horien izendapena (*aurkezpena*) herritarrek proposaturik egiten zelako.

Beste alde batetik, atentzioa ematen du karmeldar oinutsak etengabe agertzea XIX. mendearen lehen erdian. Ormaiztegik ezagutu duen parrokorik xelebreenetako baten ibilera eta gorabeherei zor zaie hori; hain zuzen ere, Eusebio Antonio Zumalakarregi Imazi buruz ari gara. Arandi baserrian jaio zen 1778ko abenduaren 16an, eta 1810aren hasieran *hiru urtez meza eman, aitorpenak egin eta predikatzeko baimena berrestea* lortu zuen, eta urte horretako azaroan, Bizkaiako gobernadore Thourenotek, probintziako Kontseiluak proposaturik, bere jaioterriko parroko izendatu zuen, azken titularra hil zenean.

Hurrengo hiru urteetan kargu horretan aritu zen, baina 1813an Erregeordetzak baliogabetu egin zituen Jose erregearen gobernuak egindako izendapen guztiak eta Ormaiztegiko erretoretza hutsik geratu zen. Bizilagun batzuek jarraitzera bultzatu zuten Eusebio Antonio, baina beste batzuek herri honetako seme zen beste apaiz baten alde egin zuten, Jose Angel de Arizti Etxeberriaren alde. Horrela, prozesu luze bat hasi zen, 1817ko azaroa arte amaitu ez zena, Zumalakarregiri plaza esleitu zitzaionean, *bizilagunen zatirik esanahitsu eta handienaren partetik*. Gogoratu behar da lehenago Zumalakarregiren aita bere aurkariaren aitarekin auzitan ibili zela Ormaiztegiko idazkaritzagatik.

1822an, Eusebio Antoniok eskatu zion frai Jose de San Migueli, Lazkaoko karmeldar oinutsen prioreari, bere bi lekaidek Ormaiztegiko erretoretzaren ardura har zezatela eta bera Donostiara joan zen konstituzionalistekin, nahiz horrek auzipetzea ekarriko zion. Auzi horretan egindako izapideetako testigantzen arabera Eusebio Antonio soldadu errealisten beldur zelako joan zen Donostiara 1823ko apirilaren hasieran, eta bertan geratu zen setioak iraun zuen artean; gero, beste preso batzuekin batera, Frantziara eraman zuten. Lekukoen arabera, Eusebio Antonio sistema konstituzionalarekin konpromiso handieneko bat izan zen eta harrera ona egiten zien probintziako boluntarioei Ormaiztegira etortzen zirenean; Gipuzkoako hiriburuan, «kalean zihoala, gehiago zirudien eroa, apaiza baino. Tiroka ibili ziren batean entzun zioten: 'ah quien tuviese un fusil!, a fe que ya se pueden acordar algunos de Salvatierra, añadiendo que estuvo con su fusil en persecución de los de este pueblo, donde expresó hizo muertes'. Jakin badaki bilera liberalekin zela»; Konstituzioaren alde lanean aritu zela...[117]

PÁRROCOS Y COADJUTORES DE LA PARROQUIA SAN ANDRÉS

La investigación realizada, no exhaustiva, ha dado para recomponer el listado de los rectores o párrocos, no así de los beneficiados o coadjutores, de los que hemos obtenido alguna referencia puntual. Así, los datos cronológicos apuntados en el caso de los beneficiados o coadjutores denotan su presencia en ese tiempo en Ormaiztegi, sin que deba entenderse que su servicio a la parroquia se circunscribió únicamente a las fechas señaladas.

10. TAULA: SAN ANDRES PARROKIAKO ERRETORE ETA LAGUNTZAILEEN ZERRENDA
TABLA 10: LISTADO DE LOS PÁRROCOS Y COADJUTORES DE LA PARROQUIA SAN ANDRÉS

Período Epealdia	Nombre y apellidos (grafía original) Izen-abizenak (grafia originala)
1587(*)-1596	Joan Lope de Arandia, (¿?-Ormaiztegi, 1597) Toledoko Katedraleko Errazioneroa eta Ormaizteko Parrokiako **Erretorea** / Racionero de la Catedral de Toledo y **Rector** de la Parroquia de Ormaiztegi **(*) Ikerketa-hasieraren data / Fecha inicio investigación**
1596-1646	**José Gorostorçu,** **Erretorea / Rector**
1646-1650	**Martín de Yzaguirre,** **Erretorea / Rector**
1650-1656	**Domingo de Arrieta**, (¿?-Ormaiztegi, 1656) **Erretorea / Rector**
1656-1689	**Juan Esteban de Muxica Arreche**, (Ormaiztegi, 1627-1689) **Erretorea / Rector**
1689-1694	**Bernardo de Gorostiçu Arresse**, (Ormaiztegi, 1645-1694) **Erretorea / Rector**
1694-1709	**Gabriel de Gorostorçu Echaçarreta**, (Ormaiztegi, 1642-1709) **Erretorea / Rector**
1709	**Miguel Conderena de Arrayz**, (¿?-Idiazabal, 1745) **Behin behineko erretorea / Rector interino**
1709	**Francisco Antonio de Altube Aguirrezaval** (Itsaso, 1680-Gabiria, 1720) Gabiriako parrokiko onuraduna eta **Ormaiztegiko behin behineko erretorea** / Beneficiado de la parroquial de Gabiria y **rector interino de Ormaiztegi**
1709 1710-1725	**Jaçinto de Yça Egusquiça**, (Ormaiztegi, 1660-1729) Presbiteroa / Presbítero **Biziarteko erretorea / Rector perpetuo**
1713	Ignacio de Içaguirre Çelaeta (Ormaiztegi, 1658-¿?), Presbiteroa / Presbítero
1725-1763	**Antonio de Lassa**, (¿?-Ormaiztegi, 1765) **Erretorea / Rector**
1761 1763 1765	**Juan Bauptista Ignacio de Insausti**, Kapelaua edo zerbitzaria, erretorearen baimenaz / Capellán o sirviente, con licencia del rector **Erretore-ordea / Teniente de rector** Presbiteroa, bataioak egiten ditu Arizti baimenaz / Presbítero, bautiza con licencia de Arizti
1763-1767 1767-1783 1771 1791-1802	**Gabriel Antonio de Arizti Yzaguirre** (Ormaiztegi, 1718-¿?), **Erretorea / Rector** Ormaiztegiko benefizioduna / Beneficiado de Ormaiztegi. **Behin behineko erretorea / Rector interino** Gabiriako benefizioduna / Beneficiado de Gabiria
1767-1785 1786-1795	**José Joaquín de Mendizabal,** **Erretorea / Rector** Benefizioduna / Beneficiado
1781-1784	Francisco Ignacio de Sarriegui, Benefizioduna / Beneficiado
1785 1785-1810 1810-1826	**Josef Ángel Arizti**, (¿?-Ormaiztegi, 1837) Benefizioduna / Beneficiado **Erretorea / Rector** Benefizioduna / Beneficiado

SAN ANDRES PARROKIAKO ERRETORE ETA LAGUNTZAILEAK

Egindako ikerketek, zorrotzenak ez izan arren, erretore edo parrokoen zerrenda osatzea ahalbidetu digute, baina ez benefiziodun edo laguntzaileena, nahiz erreferentziaren bat edo beste lortu dugun. Hala, benefiziodun edo laguntzaileen kasuan adierazitako kronologia-datuek Ormaiztegin izandako presentzia islatzen dute, baina ez da ulertu behar parrokiari eskainitako zerbitzua data horietara bakarrik mugatu zenik.

1803	**Gabriel de Jesús,** Karmeldar oinutsa / Carmelita descalzo, **Behin behineko erretorea / Rector interino**
1803	**Joaquín Antonio de Muxica**, (Ormaiztegi, 1771-1810) **Erretorea / Rector**
1810	Domingo María de Goya
1810-1853 1848	**Eusebio Antº de Zumalacarregui Ymaz**, (Ormaiztegi, 1778-1853) **Erretorea / Rector** Gotzainaren bisitaren ondoren Zumalakarregik bakarrik sinatzen du / Tras la santa pastoral visita únicamente firma Zumalakarregi
1810	Juan Lorenzo Campos Arizti (Ormaiztegi, 1745-Gabiria, 1826) Gabiriako benefizioduna / Beneficiado de Gabiria
1811	Carlos Joaquín Arteche Mugartechea, (Tolosa, 1780-¿?) Benefizioduna / Beneficiado
1813	Josef Antonio de Lardizaval,
1814	Gabriel de Zizurquil
1816-7	**Juan Antonio Urtesabel Lizarraga**, (Billabona, Amasa, 1770-¿?) **Behin behineko erretorea / Rector interino**
1822	Fr. Lucas de San Antonio, Karmeldar oinutsa / Carmelita descalzo
1823-4	**Fr. Josef de la Virgen,** Karmeldar oinutsa / Carmelita descalzo, **Behin behineko erretorea / rector interino**
1824	**Fr. Isidro de Jesús,** **Behin behineko erretorea / Rector interino**
1835-6	Antonio Luis de Sistiaga Izuzquiza (Errezil, 1808-1881) Errezilgo presbiteroa / Presbítero de Errezil
1836	Fr. José de la Virgen, Lazkaoko komentuko karmeldar oinutsa / Carmelita descalzo del convento de Lazkao
1837	Fr. José de Santa Teresa, Karmeldar oinutsa / Carmelita descalzo
1837	Fr. José de la Madre de Dios, Lazkaoko komentuko karmeldar oinutsa / Carmelita descalzo del convento de Lazkao
1838-1853 Desde 06.03.1853tik aurrera Desde 13.06.1853tik aurrera	Fr. Manuel de San Juan de la Cruz y Barrena, Karmeldar oinutsa, San Andresko parrokiako ongintzako zerbitzaria / Carmelita descalzo, sirviente de beneficio de la parroquial de San Andrés, beneficiado interino Erretorearen ezinagatik sinatzen du / Firma por indisposición del párroco Bien bitarteko erretore gisa sinatzen du / Firma como rector interino
1838/1853	Fr. Elías de los Dolores Karmeldar oinutsa / Carmelita descalzo
1838	Julián de Urquiola Aguirre (Ormaiztegi, 1806-Gabiria, 1868) Gabiriako presbitero onuraduna / Presbítero beneficiado de Gabiria
1842	Juan Garmendia, Presbiteroa / Presbítero
1843	José Vicente de Albéniz, Arriarango bien bitarteko erretorea / Vicario interino de Arriaran
1853-1873	**José Antº de Aguirreurreta Asurmendi** (Zegama, 1824-¿?) **Erretorea / Rector**
1856-1863	Manuel Antonio de Urmeneta, Behin behineko presbitero benefizioduna / Presbítero beneficiado interino

1862-1863	Jesús María Justo Germán de Otaegui Telleria (Mutiloa, 1837-¿?) Behin behineko presbitero benefizioduna / Presbítero beneficiado interino
1864-1868	José Ángel Aramburu Irizar, Apaiz lagunkidea / Coadjutor
1868	Pedro Juan Franconi Añorga (Asteasu, 1841-¿?) Presbitero lagunkidea / Presbítero coadjutor
1868 1868 1868 1869	**Gregorio Retana,** **Behin behineko erretore / Rector interino** Presbiteroa, apaiz zerbitzaria / Presbítero, cura servidor **Apaiz parrokoa / Cura párroco**
1869-1874	Matías Miguel de Segura Altube (Elgeta, 1844-1881) San Andresko presbitero lagunkidea / Presbítero coadjutor de San Andrés
1873-1891	**José Martin Zufiria** **Apaiz parrokoa / Cura párroco**
1890-1916	Pedro Ygnacio Igarzabal Urquiola (Ormaiztegi, 1862-1930) Apaiz lagunkide eta organista / Coadjutor y organista
1891-1939	**José Ignº Campos Arratibel** (Ormaiztegi, 1858-1945) **Apaiz ekonomoa / Cura ecónomo (Parroko/Párroco)**
1930-1939 1939-1942 1942-1961	**Jerónimo Sarriegi Aranburu** (Beasain, 1891-1963) Apaiz lagunkidea / Coadjutor **Apaiz ekonomoa/Cura ecónomo (Parrokoa/Párroco)** Apaiz lagunkidea / Coadjutor

Para dar término a la referencia que nos ocupa, aportaremos algunas anécdotas, las primeras protagonizadas, otra vez, por Eusebio Antonio Zumalakarregi Imaz[118]. Estas anécdotas se las hemos tomado prestadas a otro insigne ormaiztiarra, Gregorio Mujika.

No era don Eusebio hombre tacaño, ni reacio a poner un cubierto más en su mesa frugal. Pero, ¿Caramba?, ya le iba pareciendo un poquito abusivo aquello de que todos los días al filo de las doce, llamase a su puerta algún limosnero en solicitud de yantar, un lego franciscano hoy, una monjita mañana, el de Aranzazu, las de la Misericordia...

Entraban con sacos y fardelas repletos de castañas, de manzanas, de mazorcas de maiz, recogidas por los caseríos; los dejaban en el portal con aire de fatiga, y, por amor de Dios, los porteadores de tanta limosna había que sentarlos a la mesa cural, para que despues de comer continuaran su peregrinación. Ello iba ya significando una carga bastante

1942 1942-1974	**Gaspar Insausti Maiza** (Lazkao, 1903-Ormaiztegi, 1991) Apaiz lagunkidea / Coadjutor **Apaiz ekonomoa / Cura ecónomo (Parrokoa / Párroco)**
1961-1968	José María Garmendia Agirre (Zaldibia, 1931-Donostia, 2001) Apaiz lagunkidea / Coadjutor
1968-1974 1974-1986	**Fidel Tolosa Salsamendi** (Amezketa, 1935-¿?) Apaiz lagunkide / Coadjutor **Parrokoa / Párroco**
1986-1989	**José Antonio Illarregi Zabaleta** **Parrokoa / Párroco**
1989-1996	**José Uranga Iturrioz** (Legorreta, 1929) **Parrokoa / Párroco**
1996-2004	**Klemente Zelaia Egia** (Albiztur, 1927) **Parroko / Párroco**
2004-2009	**Jesús Salegi Isasti** (Errenteria, 1933) **Parroko / Párroco**
2009	**Ramón Mª Elkoro Gabilondo** (Aretxabaleta, 1944) **Parrokoa / Párroco**

Parrokoak beltzean adierazita daude / Los párrocos se señalan en negrita
Bertan prestatua, Donostiako Elizbarrutiko Artxibo Historikoan jasotako informazioa erabiliz
Elaboración propia a partir de información obtenida en el Archivo Histórico Diocesano de San Sebastian / Donostiako Elizbarrituko Artxibo Historikoa

Aztertzen ari garen atala amaitzeko, zenbait pasadizo bitxi eskainiko ditugu, lehenengoak, Eusebio Antonio Zumalakarregi Imaz protagonista dela[118]. Bitxikeria horiek beste ormaiztegiar ospetsu bati hartu dizkiogu, hain zuzen ere, Gregorio Mujikari.

Eusebio ez zen gizon zikoitza, ezta bere jan-urriko mahaian bazkaltiar bat gehiago onartzeko uzkur ere. Baina, Arraioa! gehiegizkoa iruditzen hasi zitzaion egunero hamabiak alderra bere etxeko atea eskaleren batek jotzea jan eske, anaia frantziskotar bat gaur, moja bat bihar, Arantzazukoa, Erruki Etxekoa...

Baserrietan bildutako gaztainez, sagarrez, artaburuez... betetako zaku eta fardelekin sartzen ziren; atarian uzten zituzten nekatu itxuran, eta, Jainkoarren, halako limosnaren jabe zirenak apaizaren mahaian eseri behar ziren, jan ondoren erromesaldiari ekin zezaioten. Hori zama astun samarra bihurtzen ari zen erretorearentzat.

187
1941eko lehen jaunartzeak
Salvador Elortza (Aranguren Txiki), Pepita Apaolaza, Mª Carmen Garmendia Iza, Arantxa Lasa, Anttoni Irazu, Mª Luisa Rezusta (Mekola), Itziar Telleria, Florita Eskisabel (Lapatza), Carmen Murua Argietxe eta Asensio Sarasola Garmendia (Aroztegi)
Atzean: Jeronimo Sarriegi (apaiza)
Primeras comuniones de 1941
Salvador Elortza (Aranguren Txiki), Pepita Apaolaza, Mª Carmen Garmendia Iza, Arantxa Lasa, Anttoni Irazu, Mª Luisa Rezusta (Mekola), Itziar Telleria, Florita Eskisabel (Lapatza), Carmen Murua Argietxe y Asensio Sarasola Garmendia (Aroztegi)
Detrás: Jerónimo Sarriegi (cura)

sensible para el rector. Había que poner coto ¿Pero cómo, delicadamente? Algo había que discurrir.
Y discurrió. Se hizo con un hábito viejo de franciscano. Todos los días, cuando las doce iban acercando, extendía el hábito frailuno sobre la baranda del balcón que daba a la carretera. El efecto era seguro, cuando los limosneros se acercaban a la casa, veían el hábito en el balcón, como puesto a secar, y exclamaban compungidos 'otro nos tomó la delantera, hermano. Aquí no podemos entrar: no está bien que abusemos... vamos de prisa, a ver si llegamos a tiempo donde el párroco vecino'. Y se iban, mientras don Eusebio comía apaciblemente, sin invitados forzosos que mermasen su bolsillo ni perturbaran su tranquilidad.

No creo que fuese gran pescador, pero cuando a los peces declaraba la guerra, tambien ponía en juego su ingenio.
El rio Eztanda que se desliza a lo largo del pueblo, lamía las paredes de la casa rectoral. En los huecos de las piedras solían cobijarse algunas anguilas y sobre los cascajos del fondo retozaban las loinas y los pececillos. Allí precisamente, al pie de la ventana de la cocina, caía un rincón propicio al acobijo de las anguilas.
A veces, cuando quería sorprender algún visitante con una nota original, don Eusebio tomaba el cordel que llevaba bien disimulado anzuelo en uno de los extremos y un cascabel en el otro; el extremo del anzuelo lo lanzaba al agua, y el del cascabel quedaba en la cocina. Y sucedía que, de cuando en cuando, sonaba el cascabel: entonces don Eusebio hacía tirar del cordel al visitante, y éste metía por la ventanita de la cocina una loina saltarina o una anguila que se retorcía desesperadamente.

Debemos aclarar que el año 1983 el río Eztanda dejó de *lamer* la casa cural, por cuanto dentro de las medidas que se adoptaron contra las inundaciones, se procedió a modificar el curso del río precisamente en ese punto, eliminando el meandro existente.

En esta otra ocasión será Javier Olaizola Lasa quien nos preste este otro pasaje en torno a la casa cural[119].

Yo conocí en la antigua casa parroquial de Ormaiztegui, una puerta con una firma, escrita a lápiz, de Carlos VII. Parece ser que durante el desplazamiento de Carlos VII, desde Oñate a Beasain para asistir al Consejo de Generales (17 de febrero de 1876), que puso fin a la guerra, el pretendiente, acuciado por una necesidad fisiológica, acudió al retrete de la casa parroquial, y dando testimonio de haber sentado sus reales posaderas en él y habiendo efectuado una regia cagada, estampó su firma en la puerta.

La casa cural, junto con el edificio de las antiguas escuelas fue derribado en 1999, para dar paso a dos bloques de viviendas, actuales San Andrés 19 y 21. ■

188
Gaspar Insausti Maiza eta Jose Maria Garmendia Agirre, 1968
Gaspar Insausti Maiza y José María Garmendia Agirre, 1968
(ver pág. 297 orria ikusi)

Muga bat jarri beharra zegoen. Baina, nola, kontu handiz? Zerbait pentsatu beharra zegoen.
Baita egin ere. Frantziskotarren abitu zahar bat hartu zuen. Egunero, hamabiak hurbildu ahala, errepide aldera ematen zuen balkoiko barandan zabaltzen zuen fraide-abitua. Emaitza garbi zegoen; erremusinariak etxera hurbiltzen zirenean, abitua balkoian ikusten zuten, lehortzen jarria, eta atsekabetuta zioten: 'besteren batek aurrea hartu digu, anaia. Hemen ezin gara sartu, ez dago ongi abusatzea... goazen azkar, ea garaiz iristen garen ondoko erretorearengana'. Eta joan egiten ziren, on Eusebiok lasai jaten zuen bitartean, bere patrika estutuko zuen edo bere lasaitasuna eragotziko zuen gonbidatu beharturik gabe.

Ez dut uste arrantzale trebea zenik, baina arrainei desafio egitera joaten zenean, argitasunez erabiltzen zuen burua.
Herrian barrena doan Eztanda ibaiak erretore-etxeko hormak laztantzen zituen. Harri arteetan aingira batzuk babestu ohi ziren eta hondoko harkoskoetan jauzika zebiltzan loinak eta arraitxoak. Han, sukaldeko leihoaren azpian, aingirek babesleku egokia zuten zoko batean. Batzuetan, bisitariren bat bitxikeriaren batekin harrituta utzi nahi zuenean, mutur batean amu bat ongi disimulatua eta beste muturrean txintxarri bat zeraman hari bat hartzen zuen on Eusebiok; amuaren muturra uretara jaurti, eta txintxarria sukaldean geratzen zen. Eta hala, noizean behin, txintxarria hoska hasten zen: orduan, bisitariari hariari tiraka hasteko esan, eta hark loina jauzilari edo sigi-saga bihurritzen zen aingira bat sarrarazten zuen leihatilatik.

Argitu behar dugu 1983. urtean Eztanda ibaiak apaizetxea *laztantzeari* utzi ziola, uholdeen aurka hartu zituzten neurrien barruan ibaiaren ibilbidea aldatzeari ekin ziotelako puntu horretan, lehendik zegoen meandroa ezabatuz.

Kasu honetan, Javier Olaizola Lasak eskainiko digu apaizetxearen inguruko beste pasarte hau[119].

Nik, Ormaiztegiko apaizetxe zaharrean, ate bat ezagutu nuen, Karlos VII.aren sinadura batekin, lapitzez idatzia. Badirudi Karlos VII. Oñatitik Beasainera joan zenean Batzar Nagusien Kontseiluan parte hartzeko (1876ko otsailaren 17an), gerrari amaiera ematen zitzaiola, erregenahiak, premia fisiologiko batek estututa, apaizetxeko komunera joan zela, eta bere ipurtaldea bertan eserarazi eta erregearen sabelak hustu ondoren, bere sinadura ezarri zuela bertako atean.

Apaizetxe hori, eskola zaharren eraikinarekin batera, 1999an eraitsi zuten, bi etxebizitza-bloke egiteko, San Andres kaleko 19 eta 21 zenbakietan. ■

189
Gaspar Insaustiren agurra, 1974
Goiko ilaran: Pedro Goikoetxea, Gaspar Insausti eta Jokin Goia.
Beheko ilaran: Monseñor Miguel Irizar eta Fidel Tolosa
Despedida de Gaspar Insausti, 1974
Fila superior: Pedro Goikoetxea, Gaspar Insausti y Jokin Goia.
Fila inferior: Monseñor Miguel Irizar y Fidel Tolosa

4.15 ELIZTONDO. LA FAMILIA KANPOS

La casería Eliztondo perteneciente al Cabildo Eclesiástico de Ormaiztegi, fue adjudicada el 29 de mayo de 1867 a Francisco Kanpos Iza (Ormaiztegi, 1833-1893), por el administrador de propiedades y derechos del Estado en la provincia, en subasta convocada al efecto, al precio de 1.376,35 escudos[120]. En la descripción registral de la finca se nos informa que la misma linda al Norte con *el juego de bolos*, que fuera adjudicado desde 1865 a 1867 a Francisco Kanpos, de lo que deducimos que esta familia estaba establecida en Eliztondo en calidad de colonos, antes de acceder a su propiedad.

Francisco Kanpos fue carpintero y, también, tesorero municipal, sustituyendo en el cargo a su hermano Ignacio Antonio. Tenemos datos del ejercicio de esta función por Francisco, al menos, desde 1876 a 1889.

A la muerte de Francisco, heredó la casería su hijo José Jacinto Kanpos Otaño (Ormaiztegi, 1868-1939). Éste continuó con el taller de carpintería en Eliztondo, que posiblemente pusiera en marcha su padre. Tenemos constancia del funcionamiento de este taller hasta 1921. También desempeñó las funciones de tesorero, alhondiguero y cuidado del reloj público (1912-1939). Le sucedieron en la titularidad de Eliztondo sus hijas Brígida Ignacia y Jesusa, hasta que en 1964 la adquirió Eulogia Otegi Murua[121], viuda de Modesto Kanpos Urkiola, hermano de las anteriores.

Además del taller de carpintería, Eliztondo acogió una tienda, de hecho en 1873, Francisco Kanpos realizó suministros de víveres al Ayuntamiento[122], lo que hace suponer que ya en esa época existía esta actividad comercial. Sin embargo la primera evidencia mercantil en Eliztondo data de 1911, *Comercio de Ultramarinos y Tejidos de José Campos*, que sin duda se refiere a José Jacinto Kanpos Otaño. Algunos años más tarde, concretamente en 1927, la titularidad de este comercio la ostentaba su hermana, Francisca Kanpos Otaño (Ormaiztegi, 1864-1934). Por cuanto que Francisca Kanpos muriera soltera y sin descendencia, el negocio familiar volvió a José Jacinto y a la muerte de éste a sus herederos, hasta que en 1950 recayó la titularidad en su hija Jesusa Kanpos Urkiola (Ormaiztegi, 1905-1965), que a su vez legó el ne-

190
Eliztondo, 1915

4.15 ELIZTONDO. KANPOS FAMILIA

Ormaiztegiko Eliz Kabildoaren jabetzako Eliztondo etxea 1867ko maiatzaren 29an Francisco Kanpos Izari (Ormaiztegi, 1833-1893) esleitu zion Estatuak probintzian zuen jabetza eta eskubideen administratzaileak, horretarako deitutako enkate batean, 1.376,35 ezkuturen prezioan[120]. Finka horren erregistroko deskribapenean adierazten zaigu iparraldean *bolatokiarekin* egiten duela muga, eta 1865etik 1867ra esleitu ziotena Francisco Kanposi, eta beraz, ondoriozta dezakegu familia hau Eliztondon bizi izan zela maizter gisa, jabetza eskuratu aurretik.

Francisco Kanpos arotza izan zen eta, halaber, udal diruzaina, kargu horretan bere anaia Ignacio Antonio ordezkatu ondoren. Badakigu, gutxienez, Franciscok eginkizun hori 1876tik 1889ra bete zuela.

Francisco hil zenean, haren seme Jose Jacinto Kanpos Otañok (Ormaiztegi, 1868-1939) eskuratu zuen baserria. Ziurrenik haren aitak martxan jarritako aroztegiarekin jarraitu zuen Eliztondon. Badakigu tailer horrek 1921. arte funtzionatu zuela. Halaber, diruzain, alondegizain eta erloju publikoaren zaintzailearen lanak ere bete zituen (1912-1939). Eliztondo baserriaren hurrengo jabeak haren alaba Brigida Ignacia eta Jesusa izan ziren, harik eta 1964. urtean Eulogia Otegi Muruak[121] –aurreko horien anaia izan zen Modesto Kanpos Urkiolaren alargunak– erosi zuen arte.

Aroztegiaz gain, Eliztondon denda bat ere izan zen, eta hala, 1873. urtean, Francisco Kanposek zenbait mantenugairen horniketa egin zion Udalari[122], eta horrek pentsarazten digu garai hartarako bazegoela merkataritza-jarduera hori. Nolanahi ere, Eliztondon jarduera komertziala izan zeneko lehen froga 1911koa da: *Comercio de Ultramarinos y Tejidos de José Campos*, zalantzarik gabe Jose Jacinto Kanpos Otañorena izango zena. Urte batzuk geroago, 1927an zehazkiago, saltoki horren titulartasuna haren arreba Francisca Kanpos Otañok zuen (Ormaiztegi, 1864-1934). Francisca Kanpos ezkongabe

191
Bolatokiaren kokapen planoa, 1921
Plano de situación del juego de bolos, 1921




COMERCIO DE ULTRAMARINOS
Y TEJIDOS
DE
JOSÉ CAMPOS
ORMAIZTEGUI (Guipúzcoa)
Debe:

192

gocio a su sobrina María Jesús Kanpos Otegi (Ormaiztegi, 1942), hija de su hermano Modesto, quien prosiguió regentando el establecimiento hasta la fecha de su matrimonio (1966).

Sin embargo Eliztondo acogió también otras iniciativas mercantiles, como es el caso de Esperanza Irizar Kanpos (Ormaiztegi, 1928), hija de José Irizar y Brígida Ignacia Kanpos, que se dedicó a la confección de artículos de punto.

También iniciaron su andadura profesional en Eliztondo los hermanos Arantza e Iñaki Kanpos Otegi (Ormaiztegi, 1941 y 1946, respectivamente). De hecho Arantza estableció su peluquería en 1958 con tan sólo 17 años.

Por su parte, Iñaki Kanpos Otegi se inició en el aprendizaje del oficio de carnicero con el primo de su padre, Eugenio Murua, para completar su formación en Tolosa (*Carnicería Zarauztarra*) y Baiona (*Pierre Gerazage*), abriendo su establecimiento al público también en Eliztondo en 1970, transformando en carnicería el comercio de ultramarinos anteriormente regentado por su hermana Mª Jesús.

La casería Eliztondo fue derribada el año 1978 para dar paso al actual edificio de viviendas y locales comerciales de Zumalakarregi etorbidea 1, que se asienta en su solar. En los bajos de este nuevo edificio se reinstaló la peluquería de Arantxa Kanpos, a quien ha tomado relevo su nuera Arantxa Ran Fernández.

A la desaparición de Eliztondo, Iñaki Kanpos en 1978 abrió un nuevo establecimiento en el edificio aledaño, en el que además de carnicería ofrece otra gran variedad de productos de alimentación y limpieza. Es de reseñar la notoriedad adquirida por Iñaki Kanpos como chacinero, dentro y fuera de la provincia, por los excelentes resultados obtenidos en los distintos y variados certámenes de morcilla, notoriedad que comparte con otro carnicero de la localidad, Jesús Mª Deba Arriola (Gabiria-Aztiria, 1951), que si bien desde 1975 hasta 1996 mantuvo su establecimiento en Ormaiztegi, hoy cuenta con un obrador dedicado únicamente a la producción de la morcilla en la vecina localidad de Ezkio-Itsaso. A éstos hay que sumar el indiscutido prestigio que cuentan las morcillas de la carnicería de los hijos de Pablo Murua, a quienes ya nos hemos referido.

En esta familia confluye otra curiosa circunstancia, que viene a estar determinada por la ostentación de cargos públicos de sus miembros. Pocos serán los casos en que los dos miembros del matrimonio, además de un hijo del mismo hayan detentado la vara de la misma Alcaldía. Este es el caso de Martín Pérez de Albéniz Iglesias, su esposa Arantza Kanpos Otegi y el primogénito de ambos, Martín Pérez de Albéniz Kanpos, que han regido los destinos municipales. ■

193
Fakturaren izenpurua, 1927
Membrete factura, 1927

194
Jesusa, ezezaguna eta Manuela
Jesusa, desconocida y Manuela

eta ondorengorik gabe hil zenez gero, familiaren negozioa Jose Jacintorengana itzuli zen eta, hura hil zenean, haren seme-alabengana, 1950. urtean titulartasun hori haren alaba Jesusa Kanpos Urkiolak hartu zuen arte, eta honek negozioa bere iloba Maria Jesus Kanpos Otegiri utzi zion, bere anaia Modestoren alabari, eta honek saltoki hori zuzendu zuen ezkondu arte (1966).

Nolanahi ere, Eliztondon beste merkataritza-ekimen batzuk ere izan ziren, esaterako Esperanza Irizar Kanposena (Ormaiztegi, 1928), Jose Irizar eta Brigida Ignacia Kanposen alaba, lanean puntu-lanak egiten jardun zuena.

Arantza eta Iñaki Kanpos Otegi anai-arrebek ere (Ormaiztegi, 1941 eta 1946, hurrenez hurren) Eliztondon ekin zioten beren ibilbide profesionalari. Hala, Arantzak 1958an zabaldu zuen bere ile-apaindegia, 17 urte besterik ez zituela.

195
Kanpos-Otegi sendia, 1957
Goiko ilaran: Arantxa, Eulogia Otegi (ama). Modesto Kanpos (aita) eta Mª Jesus
Beheko ilaran: Iñaki, Antton eta Jose Manuel Kanpos
Familia Kanpos Otegi, 1957
Fila superior: Arantxa, Eulogia Otegi (madre). Modesto Kanpos (padre) y Mª Jesús
Fila inferior: Iñaki, Antton y José Manuel Kanpos

196
Irizar-Kanpos sendia, 1951
Maritere, Joxe Irizar (aita), Miguel, Brigida Kanpos (ama), Pilar eta Esperanza
Familia Irizar-Kanpos, 1951
Maritere, Joxe Irizar (padre), Miguel, Brígida Kanpos (madre), Pilar y Esperanza

Bestalde, Iñaki Kanpos Otegi bere aitaren lehengusu batekin hasi zen harakinaren lanbidea ikasten, Eugenio Muruarekin, eta Tolosan (*Carnicería Zarauztarra*) eta Baionan (*Pierre Gerazage*) osatu zituen bere ikasketak; hala, honek ere Eliztondon zabaldu zuen bere saltokia 1970. urtean, bere arreba Mª Jesusek lehenago eduki zuen janari-denda harategi bilakatu ondoren.

Eliztondo etxea 1978. urtean eraitsi zuten Zumalakarregi etorbidea 1 zenbakiko egungo etxebizitza eta lokal komertzialak eraikitzeko, hark utzitako orubean. Eraikin honen behealdean Arantxa Kanposen ile-apaindegia kokatu zen, eta lan horretan haren erraina Arantxa Ran Fernández ek hartu dio txanda.

Eliztondo desagertu zenean, Iñaki Kanposek saltoki berri bat ireki zuen 1978an ondoko eraikinean, eta bertan, harategiko produktuez gain, beste hainbat elikagai eta garbigai eskaini zituen. Azpimarratzekoa da nolako sona lortu zuen Iñaki Kanposek txerriki-prestatzaile gisa, probintzia barruan nahiz kanpoan, hainbat odolki-lehiaketatan erdietsitako emaitza bikainei esker, eta sona hori herriko beste harakin batekin partekatzen du, hots, Jesus Mª Deba Arriolarekin (Gabiria-Aztiria, 1951), eta nahiz 1975tik 1996ra bere saltokia Ormaiztegin eduki zuen, gaur egun aldameneko Ezkio-Itsaso herrian jarria du odolkigintzan bakarrik diharduen lantegi bat. Horiei, jakina, Pablo Muruaren semeen harategiko odolkiek lortua duten ospe zalantzagabea gehitu behar zaie, lehenago ere aipatu izan dugun moduan.

Familia honen barruan bada beste xehetasun bitxi bat, bere kideek kargu publikoak betetzeko izan duten joerak eraginda. Oso gutxitan gertatuko zen bai senarrak eta bai emazteak ere, eta baita bi horien seme batek ere, Alkatetza beraren agintea hartu izana. Horixe da, hain zuzen ere, Martin Pérez de Albéniz Iglesias, haren emazte Arantza Kanpos Otegi eta bi horien seme Martin Pérez de Albéniz Kanposen kasua, hirurak ere udal agintean egon baitira. ■

197
Eliztondo, etxe berria eraiki ondoren, 1978
Eliztondo, tras la construcción del nuevo edificio, 1978

4.16 BERJALDEGI

Berjaldegi fue una de las edificaciones más emblemáticas y antiguas de la localidad. Aún hoy se conserva en el ayuntamiento el dintel de la puerta de entrada de esta casería, donada por la familia Telleria-Aldasoro, que muestra la siguiente leyenda:

STET PORTA HEC DONEC
IO LUPUS DE ARANDIA
ROME PENS
TOLET POERTIC RECTOR
S.ANDRE
VIDEAM FINEM CAL MAY 1594

Esta inscripción se refiere a Lope de Arandia, Racionero Mayor de la catedral de Toledo y párroco de la localidad a finales del siglo XVI y así se traduce:

QUEDE ESTA PUERTA
HASTA YO LOPE DE ARANDIA PENSIONARIO DE ROMA
PORCIONERO DE TOLEDO RECTOR DE SAN ANDRÉS
VEA (MI) FIN CALENDAS
MAYO 1594

Tras la muerte de Lope de Arandia el año 1597, sus amigos añadieron otro renglón:

Rat T. OR – A – V – F.

Que debe leerse: *Requiescat totius operis auctor, vidis finem*, o sea El autor de toda la obra descanse: ha visto su fin[123].

Desde 1855 la casería Berjaldegi fue propiedad de Carlos Arizti Ibero, adquirida por herencia de su padre Ramón Arizti Iurrita[124]. Ramón Arizti fue biznieto de Juan Bautista Arizti Arza (Ormaiztegi, 1681-1763), quien fuera escribano de la localidad y quien hubo de competir con Francisco Antonio Zumalakarregi Mujika en defensa de la titularidad de dicha escribanía.

Francisco Ignacio Aldasoro Gereñu (Mutiloa, 1833-Ormaiztegi, 1885) casado en 1852 con Ana María Gabilondo Iturbe, en 1868 resultó adjudicatario de la subasta pública convocada

198
Berjaldegi zaharra, 1915

4.16 BERJALDEGI

Berjaldegi Ormaiztegiko eraikinik berezienetako eta zaharrenetako bat izan zen. Gaur egun oraindik ere udaletxean gordetzen da baserri horren sarrerako atearen gaineko ateburua, Telleria-Aldasoro familiak emana, hitzez hitz ondokoa dioela:

STET PORTA HEC DONEC
IO LUPUS DE ARANDIA
ROME PENS
TOLET POERTIC RECTOR
S.ANDRE
VIDEAM FINEM CAL MAY 1594

Inskripzio honek Lope de Arandia, Toledoko katedraleko Errazionero Nagusi eta XVI. mendearen amaieran Ormaiztegiko erretore izan zena aipatzen du, eta honela itzul daiteke:

ATE HAU GERA BEDI
NIK, LOPE DE ARANDIA, ERROMAKO
PENTSIODUN,
TOLEDOKO PORTZIONERO,
SAN ANDRESKO ERRETORE,
(NIRE) AZKENA IKUSI ARTE
DATA 1594KO MAIATZA

Lope de Arandia 1597an hil ondoren, haren lagunek beste ilara bat gehitu zuten:

Rat T. OR – A – V – F.

Honela irakurri behar da: *Requiescat totius operis auctor, vidis finem*, alegia, Goian bego lan guztiaren egilea: amaitu baitu[123].

1855tik, Berjaldegi baserria Carlos Arizti Iberorena izan zen, bere aita Ramon Arizti Iurritak utzitako herentzia bidez eskuratua[124]. Ramon Arizti, hain zuzen, Juan Bautista Arizti Anzaren (Ormaiztegi, 1681-1763) birbiloba izan zen, Ormaiztegiko eskribau izan zena eta Francisco Antonio Zumalakarregi Mujikarekin lehian aritu zena eskribautza horren titulartasuna defendatzearren.

Francisco Ignacio Aldasoro Gereñu (Mutiloa, 1833-Ormaiztegi, 1885) 1852an Ana Maria Gabilondo Iturberekin ezkondu zen, eta 1868an Berjaldegi inorenganatzeko egindako enkante publikoaren esleipendun izan zen, Carlos Arizti e Iberoren ondasun-administratzaile Jose Mª Salsamendi ormaiztegiarra buru zela, hiru mila ezkutuko prezioan, hirurogeita hamar mila erreal koartoren edo zazpi mila eta bostehun pezetaren baliokide liratekeenak[125]. Jose Fermin Aldasoro Gabilondok (Ormaiztegi, 1854-1924) 1888an bere aitak utzitako herentziaz eskuratutako finka inskribatu zuen bere alde[126].

199
Berjaldegiko sarrera nagusiko ateburuaren erreprodukzioa
Reproducción del dintel de la entrada pricipal de Berjaldegi

Tienda de
ULTRAMARINOS
de
FERMIN ALDASORO
ORMAIZTEGUI
GUIPUZCOA

Ormaiztegui 4 de Diciembre de 190

D. Ayuntamiento de la villa de Ormaiztegui Debe

MES	Dia		Pcts.	Pts.	Cts.
Diciembre	4	A tres individuos por tocar las dulzainas y el tambor el dia de ayer		50	"
"	"	Hospedaje de los tres		2	"
"	"	Gastos del viaje		1	50
		Total		53	50

Recibí
José Fermin Aldaso

200

201
Aldasoro Mendizabal sendia, 1925
Goiko ilaran: Ignacia, Santos eta Balbina Aldasoro Mendizabal
Beheko ilaran: Jose Fermin Aldasoro (aita), Mª Carmen eta Ramon Gamecho (Ignacia Aldasororen alaba eta semea) eta Francisca Antonia Mendizabal (ama)
Familia Aldasoro Mendizabal, 1925
Fila superior: Ignacia, Santos y Balbina Aldasoro Mendizabal
Fila inferior: José Fermín Aldasoro (padre), Mª Carmen y Ramón Gamecho (hijos de Ignacia Aldasoro) y Francisca Antonia Mendizabal (madre)

para la enajenación de Berjaldegi, por el administrador de bienes de Carlos Arizti e Ibero, José Mª Salsamendi, vecino de Ormaiztegi, al precio de tres mil escudos, equivalentes a sesenta mil reales de vellón o siete mil quinientas pesetas[125]. José Fermín Aldasoro Gabilondo (Ormaiztegi, 1854-1924) en 1888 inscribió a su favor la finca, adquirida por herencia de su padre[126].

Las cuentas municipales de 1879 nos informan de la localización en esta casería de la vivienda para maestros. Nuevamente localizamos en Berjaldegi la vivienda del maestro a partir de 1887, faltando la referencia del intervalo, seguramente por carencia documental en el Archivo Municipal, donde además a esta fecha se ubica la escuela de niñas, hasta el 28 de febrero de 1905.

El año 1895, por vez primera se alude a la taberna de Berjaldegi, *suministrando raciones de pan a la gente que acudió a la feria de ganados de la villa* y al menos desde 1899 hasta 1924, José Fermín Aldasoro contribuyó anualmente al Ayuntamiento por *licencia de vino y aguardientes*. Por una sóla vez, concretamente el año 1915, se hace referencia además a *licencia de ultramarinos*.

1879ko udal kontuetan azaltzen da etxe honetan kokatua egon zela maisu-maistrentzako bizilekua. Berriro, Berjaldegi izango da maisuaren bizitokia 1887tik aurrera, baina tarte horri buruzko erreferentziarik ez dago, Udal Artxiboan agiririk ez dagoelako, eta horrez gain, data horrekin loturik nesken eskola ageri da, 1905eko otsailaren 28 arte.

1895. urtean, lehen aldiz, Berjaldegiko taberna aipatzen da, *herriko ganadu-azokara joan zen jendeari ogi-errazio batzuk banatzen zizkiola* eta gutxienez 1899tik 1924ra, Jose Fermin Aldasorok urtero zerga eman zuen *ardo eta pattarretarako baimenagatik*. Behin bakarrik, 1915. urtean hain justu ere, *janaritarako baimena* ere aipatzen da.

Hala eta guztiz ere, Jose Fermin Aldasororen bilobek, Itziar eta Josune Telleria Aldasorok, diote hura uhalgilea eta abarkagilea izan zela, eta haren aitonaren garaietatik burutu izan zutela ostalaritzako lana, baita janarien denda ere, eta beraz, ez litzateke oker handia izango azken jarduera horren hasiera 1915 inguruan kokatzea. Jakina, era askotako jarduerak burutzen dituen familia baten aurrean gaude, hala nola: etxebizitzen alokairua, taberna, janari-denda, ostatua, uhalgintza eta abarkagintza.

1923ko Industria Ekoizpenaren Estatistikaren arabera[127], Jose Fermin abarkagile gisa aritu zen zortzi metro koadroko lokal batean, negozio horretan mila pezetako kapital bat inbertitua zuen eta urtero hirurehun abarka pareko ekoizpena ateratzen zuela aitortu zuen, hamar kilogramo *larruzko lokailu eta listari* erabiliz.

Jose Fermin Aldasoro 1924an hil zenean, higiezinaren titulartasuna, baita tabernarena eta janari-dendarena ere, haren alargun Francisca Antonia Mendizabal Garmendiaren esku geratu ziren, eta harengandik bere alaba Balbina Aldasoro Mendizabalengana, eta hurrengo urtean, azken horren senar Gregorio Tellería Alus-

202
Berjaldegi, 1917ko sutearen ondoren berreraikia
Berjaldegi, reconstruído tras el incendio de 1917

Sin embargo las nietas de José Fermín Aldasoro, Itziar y Josune Telleria Aldasoro, refieren que aquél fue guarnicionero y abarquero y que la actividad de hospedaje se ejerció desde tiempos de su abuelo, así como también la tienda de ultramarinos, no resultando aventurado fijar el inicio de esta última actividad en torno a 1915. Evidentemente nos hallamos ante una familia que desarrolla una variada gama de actividades, como son: arrendamiento de viviendas, taberna, ultramarinos, hospedaje, guarnicionería y abarquería.

Según la Estadística de la Producción Industrial de 1923[127], José Fermín desarrolló la actividad de abarquero en un local de ocho metros cuadrados, tenía invertido en el negocio un capital de mil pesetas y declaró que contaba con una producción anual de trescientos pares de abarcas, utilizando diez kilogramos de *ligas de cuero y liz*.

Al fallecimiento de José Fermín Aldasoro en 1924, la titularidad del inmueble, así como la de los establecimientos de taberna y ultramarinos, pasaron a su viuda, Francisca Antonia Mendizabal Garmendia, y de ésta a su hija Balbina Aldasoro Mendizabal, pasando al año siguiente al marido de esta última, Gregorio Tellería Alustitza (Mutiloa, 1905-Ormaiztegi, 1956).

Gregorio Telleria marcó su impronta en Berjaldegi con la implantación de nuevas actividades: en 1926 la lechería y mantequillería, *Mantequillas Kizkitza*, a lo que hay que añadir el servicio de automóviles (1932). En este tiempo fueron muchos los *ormaiztiarras* que aprendieron a conducir con Gregorio, como fue el caso de Ignacio Arana Aranburu, que posteriormente se dedicó profesionalmente al transporte de pasajeros.

Gregorio Tellería

LIQUIDACIÓN

203

204
Telleria-Aldasoro ezkontza, 1928
Goiko ilaran: Don Rafael, Primitivo Telleria, Ricardo, Esperanza Imaz (Santos Aldasororen emaztea), Felix eta Fermina Telleria
Beheko ilaran: Santos Aldasoro, Gregorio Telleria, Balbina Aldasoro eta Maria Alustitza (Gregorioren ama)
Enlace Telleria-Aldasoro, 1928
Fila superior: Don Rafael, Primitivo Telleria, Ricardo, Esperanza Imaz (esposa de Santos Aldasoro), Félix y Fermina Telleria
Fila inferior: Santos Aldasoro, Gregorio Telleria, Balbina Aldasoro y María Alustiza (madre de Gregorio)

titzaren eskura (Mutiloa, 1905-Ormaiztegi, 1956).

Gregorio Telleriak bere arrastoa utzi zuen Berjaldegi baserrian, jarduera berriak ezarri zituenean: 1926an esnetegia eta gurindegia, *Mantequillas Kizkitza* izenekoa, eta horri automobilen zerbitzua (1932) gehitu beharko litzaioke. Garai horretan ormaiztegiar askok ikasi zuten Gregoriorekin gidatzen, esaterako, Ignacio Arana Aranburuk, eta gero, horri esker, bidaiarien garraioan aritu zen profesionalki.

Jose Antonio Galarraga Beitiak eta Ramoni Urbistondo Goikoetxeak kontatzen dutenez, 1940 aldera Pio Galarraga Goikoetxea (Altzo, 1913-Ormaiztegi, 2006) Berjaldegiko tabernaz arduratu zen, eta 1947. urtean ezkondu ondoren, bere emazte Bittori Beitia Ugarteren laguntza izan zuen lan horretan, eta hura hildakoan, bere alaba Arantxarena. Pio Galarraga 1930ean iritsi zen Ormaiztegira Lizarazu familiarentzat (ganadu-tratulariak) morroi gisa lan egitera, Antonenen, aitak behi bat erosi zuenean bere gain hartutako zorra kitatzeko.

Pio tabernaren jarduerak zuzeneko lotura izan zuen *Carrocerías Irizar* lantegiaren bilakaerarekin, haren aurre-aurrean kokatua baitzegoen. Jose Antonio Galarragak eta Ramoni Urbistondok kontatzen digutenez, taberna honetan egunean hirurogei bazkari ematera iritsi ziren, batez ere *Irizarr*eko langileei. Halaber, Pio tabernakoek zerbitzua ematen zieten ekoizpena areagotzen zenean, eta horrek lanaldi luzeak egitera behartzen zituen, baita gaueko orduetara luzatu ere, afariak, kafe-termoak eta baratxuri-zopak zerbitzatuz gaueko txandan ari zirenentzat gosari modura.

Tabernariaren lana garraiolari-mandatariaren lanarekin partekatu zuen, eta horrela, 1962an tona bateko kamioneta baten jabe zen, BI-4732 matrikularekin, baina 1968an tona gehiagoko kamioi bat (4 t) hartu zuen haren partez, SS-31920 matrikula zuena.

205
Pio Lierniako erromeriara zestoak eta materiala eramateaz arduratzen zen
Atzealdean: Pio Galarraga, Bittori Beitia eta Jose Antonio Galarraga
Aurrealdean: Arantxa, Mikel eta Iñaki Galarraga
Pío se encargó del transporte de cestas y material a la romería de Liernia
Detrás: Pío Galarraga, Bittori Beitia y José Antonio Galarraga
Delante: Arantxa, Mikel e Iñaki Galarraga

Según relatan José Antonio Galarraga Beitia y Ramoni Urbistondo Goikoetxea, hacia 1940 se hizo cargo de la taberna de Berjaldegi Pío Galarraga Goikoetxea (Altzo, 1913-Ormaiztegi, 2006), quien tras su matrimonio en 1947 contó con la colaboración de su esposa Bittori Beitia Ugarte, y tras la muerte de ésta, de su hija Arantxa. Pío Galarraga el año 1930 llegó a Ormaiztegi a servir de *morroi* a la familia Lizarazu (tratantes de ganado), en Antonene, para liquidar la deuda contraída por su padre por la compra de una vaca.

La actividad del bar Pío estuvo directamente relacionada con la evolución de *Carrocerías Irizar*, localizada justo enfrente de la misma. Según nos indican José Antonio Galarraga y Ramoni Urbistondo en este bar llegaron a servirse hasta sesenta comidas diarias, principalmente a los trabajadores de *Irizar*. Asimismo, desde el bar Pío se atendía a éstos cuando se intensificaba la producción, lo que les obligaba a la práctica de largas jornadas, que se extendían incluso a las horas nocturnas, sirviendo cenas, termos de café y sopas de ajo para el desayuno a los turnos nocturnos.

Compaginó la actividad de tabernero con la de transportista-recadista, así en 1962 era titular de una camioneta de una tonelada, matrícula BI-4732, que en 1968 sustituyó por un camión de mayor tonelaje (4 t), matrícula SS-31920. Sirvió fundamentalmente a la industria local (*Imeguisa*, *Carlos García*, etcétera), pero sin dejar de lado otros sectores, como los servicios requeridos por los Lizarazu de Antonene o el lechero de Gabiria, Patxi Zabaleta.

Berjaldegi, además de cuanto se ha dicho, albergó otras actividades: la herrería de Francisco Zubillaga y la cestería implantada por la familia Gurrutxaga-Aramendi.

Francisco Zubillaga Telleria (Ormaiztegi, 1879-?), conocido como *Pa-*

Herriko industriarentzat lan egin zuen batez ere (*Imeguisa*, *Carlos García* eta abar), baina beste sektore batzuk alde batera utzi gabe, hala nola Antoneneko Lizarazuri edo Gabiriako esneketari Patxi Zabaletari eskainitakoak.

Berjaldegin, aipatu diren gauza guztiez gain, beste jarduera batzuk ere izan ziren, hala nola, Francisco Zubillagaren errementeria eta Gurrutxaga-Aramendi familiak jarritako saski-lantegia.

Francisco Zubillaga Telleriak (Ormaiztegi, 1879-?), *Patxiko errementarie* izenez ezaguna, errementeria izan zuen Berjaldegin, gutxienez 1903tik 1917ra, urte horretan erre egin baitzen etxea, eta bere negozioa Jauregi baserrira eraman zuen. 1918koa da errementeria honi buruzko azken aipamena.

XIX. mendeko azken hamarkadan (1894 eta 1899 artean) Gurrutxaga-Aramendi familia etorri zen Berjaldegira. Familia hori, jatorriz, Nuarbekoa zen (Beizama), nahiz saskigintzan tradizio luzeagatik ezaguna zen Azpeitiko Urrestilla auzotik etorri ziren. Ormaiztegira etorri eta berehala, Manuel Ignacio Gurrutxaga Goenaga (Beizama, 1854-Ormaiztegi, 1899) hil zen, eta Mª Francisca Aramendi Odriozola emaztea eta bost semealaba utzi zituen: Jose Javier, Francisco Ignacio, Nicolas, Josefa Valentina eta Juan Jose.

Manuel Ignacio hil ondoren, haren seme-alabek saskigintzaren jardurarekin jarraitu zuten Berjaldegin. Hala, 1907an bi anaia zaharrenak saskigile gisa ageri dira[128]. Pixkana-pixkana gainerako anai-arrebak familiaren saskigintza-negozioan hasi ziren, azkenik anaia zaharrenak, Jose Javier eta Franciscok, bakarrik jarduera honetan jarraitu zuten.

Garai horretako nekazaritza-jarduerek eta etxeko lanek berekin zekarten eskaerez gain, Mutiloako eta Zeraingo barrutietako meagintza-jarduerek artisauak erakarri zituzten Ormaiztegira. Gero, Juan Azurmendiren ferra-fabrikak, saski-lantegi aurrean kokatutakoak, Gurrutxaga anaien ekoizpenaren parte handi bat beharko

206
Publizitatea, 1952
Publicidad, 1952

207

txiko errementarie regentó una herrería en Berjaldegi, al menos desde 1903 hasta 1917, año en que se quemó la casa, trasladando su negocio a la casería Jauregi. La última referencia de esta herrería data de 1918.

La última década del siglo XIX (entre 1894 y 1899) se estableció en Berjaldegi la familia Gurrutxaga-Aramendi. Esta familia era oriunda de Nuarbe (Beizama), aunque procedente del barrio *azpeitiarra* de Urrestilla, conocido por su gran tradición en el arte de la cestería. Al poco de establecerse en Ormaiztegi falleció Manuel Ignacio Gurrutxaga Goenaga (Beizama, 1854-Ormaiztegi, 1899), dejando viuda, Mª Francisca Aramendi Odriozola, y cinco hijos, a saber: José Javier, Francisco Ignacio, Nicolás, Josefa Valentina y Juan José.

Tras la muerte de Manuel Ignacio sus hijos continuaron con la actividad de cestería en Berjaldegi. Así en 1907 los dos hermanos mayores figuran como cesteros[128]. Poco a poco se fueron incorporando a la cestería familiar el resto de los hermanos, finalmente serán los hermanos mayores, José Javier y Francisco, quienes continuaron con esta actividad.

Además de la demanda generada por los usos agrícolas y domésticos propios del tiempo, la actividad minera de los cotos de Mutiloa y Zerain atrajeron a estos artesanos a Ormaiztegi. Posteriormente la fábrica de herraduras de Juan Azurmendi, localizada enfrente de la cestería, sería destinataria de buena parte de la producción de los hermanos Gurrutxaga. Según informa Joxe Azurmendi las herraduras se expedían por vía férrea en cestos confeccionados por estos artesanos.

La casa Berjaldegi se incendió el 24 de agosto de 1917, procediéndose a la construcción de una nueva edificación en el mismo solar, configurada para albergar viviendas para arrendamiento, constaba de planta baja y tres plantas altas, más desván. Estas viviendas tenían adscrita una porción de terreno anexa a la casa, destinada a huerta[129].

Al reconstruir Berjaldegi, tras el incendio de 1917, se mantuvo la parte anexa a la edificación original que se salvó del incendio, donde estaba establecido el taller de los hermanos Gurrutxaga, donde continuó con la actividad Francisco, hasta su muerte acaecida en 1935. Por otro lado, el hermano mayor, José Javier, estableció su propio taller de cestería primero en la casa Urbieta, posteriormente en Telleriarte, hasta que hacia 1934/1935 trasladó la cestería a la casa nueva de Eguzkitza, popularmente conocida como Zesterone.

No fue larga la vida del nuevo Berjaldegi, ya que en 1968/69 fue sustituido por dos bloques de cincuenta y nueve viviendas y bajos comerciales que hoy conocemos como San Andrés, 11, 13, 15 y 17 y Berjaldegi, 1, 3, 5 y 7. Como es evidente, esta casería dio nombre a la plaza surgida en su mismo emplazamiento.

En los bajos del edificio San Andrés 13, Pío Galarraga reubicó su negocio bajo la denominación de *Bar-Restaurante Arantxa*, aunque popularmente se le sigue conociendo como *Bar Pío*, que desde 1981 regentado por su hijo Mikel Galarraga Beitia, y la esposa de éste, Ramoni Urbiztondo, ha llegado hasta nuestros días.

A todo lo hasta ahora reseñado cabe añadir que Berjaldegi alojó la sociedad recreativa Zubi-Aundi constituida el 1 de junio de 1936, cuya primera Junta Directiva estuvo formada por: presidente, Jesús Olaran; vicepresidente, Gregorio Irizar; secretario, Tomás Ceberio; tesorero-contador, Ignacio Lasa; vocales: Isidro Sagarna, Bernardo Azpiazu y Vicente Maiora. Para completar la lista de los socios fundadores deben citarse: Mauricio Maiora, Ignacio Barrenetxea, Lucio Mujika, José Berasategi y Sabin Ezkurdia[130]. ■

zuen. Joxe Azurmendik jakinarazi digun moduan, ferra horiek trenbidez bidaltzen zituzten, artisau hauek egindako saskietan sartuta.

Berjaldegi etxeak su hartu zuen 1917ko abuztuaren 24an, eta ondoren orube horretan etxe berria eraikin zuten, gero alokatzeko izango ziren etxebizitzak egiteko; behe-solairua eta hiru goi-solairu zeuzkan, eta ganbara bat. Etxebizitza horiek etxeari erantsitako lur-zati bat zuten, baratze gisa erabiltzeko[129].

1917ko sutearen ondoren Berjaldegi berreraiki zutenean, bere horretan mantendu zuten sutetik salbu geratutako etxe-ordea, Gurrutxaga anaien tailerra zegoenekoa, non Franciscok jarraitu zuen jarduerarekin hil arte, 1935ean. Bestalde, anaia zaharrenak, Jose Javierrek, saski-lantegi propioa martxan jarri zuen, lehenik Urbieta etxean, gero Telleriarten eta 1934/1935 urte aldera Eguzkitza etxe berrira aldatu zen, Zesterone izenez ezagutzen zen horretara.

Berjaldegi berriaren bizitza ez zen luzea izan, 1968/69 urtean berrogeita hemeretzi etxebizitza eta merkataritza-lokalen bi blokek ordezkatu baitzuten, egun San Andres 11, 13, 15 eta 17 zenbakiak eta Berjaldegi 1, 3, 5 eta 7 zenbakiak. Begi-bistakoa denez, etxe horrek eman zion izena bertan sortutako plazari.

San Andres 13 eraikineko lokaletara ekarri zuen Pio Galarragak bere negozioa, *Bar-Restaurante Arantxa* izenez, baina herritarrek *Pione* izenez ezagutzen dute, eta 1981az geroztik haren seme Mikel Galarraga Beitiak eta honen emazte Ramoni Urbiztondok zuzendu dute gaur egun arte.

Aipatutako guztiaz gain, esan beharra dago Berjaldegin 1936ko ekainaren 1ean eratutako Zubi-Aundi aisialdi-elkartea kokatu zela, eta lehen Zuzendaritza Batzordea kide hauek osatu zutela: lehendakari, Jesus Olaran; lehendakariorde, Gregorio Irizar; idazkari, Tomas Ceberio; diruzain-kontulari, Ignacio Lasa; bokalak, Isidro Sagarna, Bernardo Azpiazu eta Vicente Maiora. Bazkide fundatzaileen artean honako kideak zeuden: Mauricio Maiora, Ignacio Barrenetxea, Lucio Mujika, Jose Berasategi eta Sabin Ezkurdia[130]. ■

208
Ramona Murgiondo eta Jose Javier Gurrutxaga, 1950
Ramona Murgiondo y José Javier Gurrutxaga, 1950



4.17 ELIZETXEA O BERJALDEGI BERRIA

En 1878 José Luis Mantzisidor Iza, casado con Josefa Joaquina Mendizabal Etxeberria, de profesión herrero, adquirió a José Gabriel Izuzkitza y Murgiondo la finca rústica (porción de terreno labradío) denominada *Elizeche* de diez y seis áreas y noventa y cinco centiáreas (20 posturas y 1.110 pies cuadrados) al precio de mil pesetas (4.000 reales de vellón)[131].

José Luis Mantzisidor casó, en 1879, en segundas nupcias, con María Marcelina Mendizabal Etxeberria, hermana de su anterior mujer. En 1880 inscribió en el Registro de la Propiedad un edificio de nueva planta (PB+principal+desván), con una ocupación en planta de ciento setenta y ocho metros cuadrados, asignándole el valor de diez mil quinientas veinticinco pesetas. Para la financiación de estas obras José Luis Mantzisidor obtuvo un crédito procedente de Francisco Otaño Garin (comerciante local) y de Juan Ignacio Mendizabal Urkiola y Baltasar Mendizabal Etxeberria (suegro y cuñado, respectivamente) hipotecando en 1880 el edificio recién construido[132].

Existen referencias de la taberna que albergó la casa Berjaldegi Berria desde el año 1879, en que el Ayuntamiento adjudicó a José Luis Mantzisidor el remate de los derechos de una taberna.

José Luis Mantzisidor falleció en Ormaiztegi el año 1898, dejando cuatro hijos: Josefa Mª y Margarita de su primer matrimonio y Juan Ramón y María del Pilar del segundo. Tras la desaparición de José Luis, será su viuda quien continuará al frente del establecimiento, hasta que en 1906 se hizo cargo del mismo su hijo, Juan Ramón Mantzisidor Mendizabal (Ormaiztegi, 1880-1930).

La casa Berjaldegi Berria fue adquirida por Juan Azurmendi Zabaleta el año 1920, aunque continuó ocupada por la familia Mantzisidor[133]. El año 1925 dicha edificación la compraron los hermanos José Lorenzo y Cecilio Irizar Arzelus, al precio de veintisiete mil pesetas[134]. A pesar de estos cambios de titularidad en la propiedad de la casa Berjaldegi Berria la familia Mantzisidor permaneció en ella regentando la taberna hasta 1928. Este mismo año Juan Ramón obtuvo la adjudicación de la posada, que como ya se ha dicho, atendió esta familia hasta 1944.

En 1925, los hermanos José Lorenzo y Cecilio Irizar trasladaron su taller a las edificaciones anexas a Berjaldegi Berria. Además, a partir de 1928 ambas familias fijaron su residencia en esta casa. Desde este momento la suerte de Berjaldegi Berria corrió pareja a la historia y vicisitudes de *Carrocerías Irizar*, hasta su desaparición definitiva el año 1971. ■

209
Berjaldegi Berri, 1915

4.17 ELIZETXEA EDO BERJALDEGI BERRIA

1878an, Jose Luis Mantzisidor Izak, Josefa Joaquina Mendizabal Etxeberriarekin ezkondua eta lanbidez errementaria zenak, *Elizeche* izeneko landa-lurra (labore-lurraren zati bat) erosi zion Jose Gabriel Izuzkitza Murgiondori, hamasei area eta laurogeita hamabost zentiarea neurtzen zuena (20 postura eta 1.110 oin koadro), mila pezetako prezioan (4.000 erreal koarto)[131].

Jose Luis Mantzisidor bigarren aldiz ezkondu zen 1879an, oraingoan Maria Marcelina Mendizabal Etxeberriarekin, bere aurreko emaztearen ahizparekin. 1880an Jabetza Erregistroan eraikin berria bat inskribatu zen (BS+nagusia+ganbara), oinplanoan ehun eta hirurogeita hemezortzi metro koadroko okupazioa zuela, eta horri, hamar mila bostehun eta hogeita bost pezetako balioa esleitu zioten. Obra hauek finantzatzeko, Jose Luis Mantzisidorrek kreditu bat lortu zuen Francisco Otaño Garin (herriko merkataria), Juan Ignacio Mendizabal Urkiola eta Baltasar Mendizabal Etxeberriaren partetik (aitaginarreba eta koinatua, hurrenez hurren), eta hala, etxe eraiki berria 1880an hipotekatuta geratu zen[132].

1879az geroztik hona bildu ditugu Berjaldegi Berria etxean izan zen tabernari buruzko aipamenak, urte horretan esleitu baitzion Udalak Jose Luis Mantzisidorri taberna baten eskubideen errematea.

Jose Luis Mantzisidor 1898an hil zen Ormaiztegin, eta lau seme-alaba utzi zituen: Josefa Mª eta Margarita, bere lehen emaztearenak, eta Juan Ramon eta Maria del Pilar, bigarrenarenak. Jose Luis hil eta gero, haren alargunak jarraituko du establezimenduarekin, baina 1906tik aurrera haren seme Juan Ramon Mantzisidor Mendizabal arduratuko zen (Ormaiztegi, 1880-1930).

Berjaldegi Berria etxea Juan Azurmendi Zabaletak erosi zuen 1920. urtean, nahiz Mantzisidor familiak jarraitu zuen bertan bizitzen[133]. 1925. urtean eraikin hori Jose Lorenzo eta Cecilio Irizar Arzelus anaiek erosi zuten hogeita zazpi mila pezeten truke[134]. Berjaldegi Berria etxearen jabetzak titulartasun-aldaketa horiek izan zituen arren, Mantzisidor familiak bertan iraun zuen, taberna hori 1928 arte gidatuz. Urte horretan, Juan Ramonek ostatuaren esleipena lortu zuen, eta arestian esan den bezala, familia hau 1944 arte arduratu zen horretaz.

1925ean, Jose Lorenzo eta Cecilio Irizar anaiek Berjaldegi Berriari erantsitako eraikinetara eraman zuten beren tailerra. Gainera, 1928tik aurrera, bi familiek etxe honetan finkatu zuten beren bizitokia. Ordutik aurrera, Berjaldegi Berriaren etorkizuna *Carrocerías Irizar* lantegiaren historia eta berezitasunekin loturik joan zen beti, 1971. urtean behin betiko desagertu zen arte. ■

210


Cuenta al pase de S.M. la Primera
Dos arrumbres vino 2 40 Pesetas
Un pan " 70
Queso y aceite 1 25
Total — 4 35
Recibí
Ormaiztegui
1º Noviembre 1896
José Mantzisidor

4.18 URBIETA

En pertenecidos del caserío Telleri Berria, en 1905 Gabriel Albisu Mujika, labrador de Ormaiztegi, construyó la casa conocida con el nombre de Urbieta, sin duda en referencia a la confluencia de los ríos Santa Lutzia y Eztanda en este punto. Los terrenos fueron adquiridos a José Joaquín Irizar Katarain del caserío Telleri Berri, al precio de ochocientas setenta y cinco pesetas y el coste de la construcción ascendió a cinco mil pesetas[135].

Tras varios cambios de titularidad (José Mª Albisu Sopelana, José Fermín Aldasoro Gabilondo y Facundo Arratibel Irazustabarrena) en 1911 adquirió el inmueble Ángel Imaz Luzuriaga, de profesión caminero, casado en Ormaiztegi el año 1899 con Mª Águeda Gereñu Agirre[136]. A éste heredó su hijastro José Katarain Gereñu.

En esta casa localizamos los establecimientos regentados por José Esteban Imaz Gereñu (Ormaiztegi, 1897-1958), casado con María Martina Otamendi Otamendi. Así, las matrículas industriales nos hablan de un establecimiento de barbería y zapatería (reparación y venta de calzado), al menos, desde 1923 a 1958.

A partir de 1943 a los quehaceres anteriores, José Esteban sumó los propios de la cartería, hasta su muerte en 1958. Además Martina Otamendi regentó en esta misma casa un establecimiento de venta de calzado, mercería y perfumería.

Finalmente cabe referir que la hija de ambos, Mª Ángeles Imaz Otamendi (Ormaiztegi, 1930), tras la obtención de las correspondientes licencias, mantuvo en esta casa una pequeña escuela privada, desde 1949 hasta 1960.

Esta edificación fue derribada el año 1997. ■

211
Argazkiaren erdialdean agertzen dira Urbieta (ezkerraldean) eta Urbieta Bigarrena (eskubialdean), 1961
En el centro de la foto se localizan Urbieta (lado izquierdo) y Urbieta Bigarrena (lado derecho), 1961

4.18 URBIETA

Telleri Berria baserriaren lurretan, 1905ean, Gabriel Albisu Mujikak, Ormaiztegiko nekazariak, Urbieta izenez ezagutzen den etxea eraiki zuen, Santa Lutzia eta Eztanda ibaiek bat egiten duten puntu honi erreferentzia eginez. Lur horiek Telleri Berria baserriko Jose Joaquin Irizar Kataraini erosi zizkion, zortziehun eta hirurogeita hamabost pezetako prezioan, eta eraikuntzaren kostua bost mila pezetakoa izan zen[135].

Zenbait titulartasun-aldaketa egin ondoren (Jose Mª Albisu Sopelana, Jose Fermin Aldasoro Gabilondo eta Facundo Arratibel Irazustabarrena), Angel Imaz Luzuriaga bidezainak, 1899an Mª Agueda Gereñu Agirrerekin Ormaiztegin ezkondua, 1911n eskuratu zuen higiezin hori[136]. Haren semeorde Jose Katarain Gereñuk heredatu zuen gero.

Jose Esteban Imaz Gereñuk (Ormaiztegi, 1897-1958), Maria Martina Otamendi Otamendirekin ezkondua, zuzendutako zenbait establezimendu topatuko ditugu etxe honetan. Horrela, matrikula industrialen arabera, bizartegia eta zapatategia (oinetakoak konpondu eta saltzeko) izan genituen bertan, gutxienez 1923tik 1958ra.

1943tik aurrera, aurreko zeregin horiez gain, Jose Estebanek postariarenak ere gehitu zizkion, 1958an hil zen arte. Gainera, Martina Otamendik etxe honetan bertan oinetakoen denda, mertzeria eta lurrindenda izan zituen.

Azkenik, esan beharra dago bien alabak, Mª Angeles Imaz Otamendik (Ormaiztegi, 1930), dagozkion baimenak erdietsi ondoren, eskola pribatu txiki bat eduki zuela etxe honetan 1949tik 1960ra.

Eraikin hori 1997. urtean eraitsi zuten. ■

212
Publizitatea, 1952
Publicidad, 1952

213
Jose Irizar Izagirre, ESTEBAN IMAZ GEREÑU, Agustin Elosegi Amiano eta German Kanpos Ortuzar, 1920
José Irizar Izagirre, ESTEBAN IMAZ GEREÑU, Agustín Elosegi Amiano y Germán Kanpos Ortuzar, 1920

4.19 URBIETA BIGARRENA

En terreno anexo a la casa Urbieta, en 1908 José Antonio Albisu Sopelana inscribió la casa nueva, denominada Urbieta Bigarrena. La casa constaba de planta baja, dos pisos altos destinados a habitaciones y desván, y ocupaba un solar de ciento nueve metros cuadrados, estimándose su valor en dos mil quinientas pesetas.[137]

En el Tomo I nos hemos referido a esta casa con ocasión de tratar los apartados correspondientes a la *Fábrica de Muebles San Antonio*, *BAL* y *Somesa* y el taller de los hermanos José Lorenzo y Cecilio Irizar.

Hacia 1909 Juan Cruz Irizar en terrenos anejos a la casa construyó un pabellón industrial de 415,50 m², destinado a taller de carpintería. Tras el cierre de la *Fábrica de Muebles San Antonio*, y según hemos visto, se alojaron en este pabellón, sucesivamente, *BAL* y *Somesa*.

Después del abandono de Urbieta Bigarrena por la familia Irizar-Salazar, fijó su residencia en la misma la familia Olaizola-Lasa, donde Manolita Lasa Mujika (Ormaiztegi, 1908-Donostia, 1995) impartió clases particulares.

Además, en este recinto existía otra pequeña edificación destinada a garaje, colindante con la carretera Beasain-Durango, que aún hoy perdura, que albergó otro taller de carpintería y serrería, inicialmente regentado por Nicolás Berasategi Berasategi (Zegama, 1913-Donostia, 1991) desde 1949 a 1954, a quien sucedió Juan Apaolaza Oiarbide (Gabiria, 1930) desde la fecha de cese del anterior hasta 1960.

Javier Olaizola nos informa de la existencia durante un corto espacio de tiempo de otra actividad con esta localización, se trata de una fábrica de jabón, regentada por Franco, de Zumarraga, de la que no hemos obtenido ningún otro vestigio.

En 1997 fue derribada, junto con su colindante Urbieta etxea. ■

214
Urbieta Bigarrena eta Urbieta etxeak
Casas Urbieta Bigarrena y Urbieta

4.19 URBIETA BIGARRENA

Urbieta etxearen aldamenean 1908an Jose Antonio Albisu Sopelanak etxe berria inskribatu zuen, Urbieta Bigarrena izenez. Etxe horrek behe-solairua eta gelak eta ganbara kokaturik zeuden bi goi-solairu zituen, eta ehun eta bederatzi metro koadroko orubea okupatzen zuen; bi mila eta bostehun pezetatan balioetsia zegoen.[137]

Fábrica de Muebles San Antonio, *BAL* eta *Somesa* lantegiei eta Jose Lorenzo eta Cecilio Irizar anaien tailerrari buruzko atalak jorratu ditugunean mintzatu gara I Liburukian etxe honen inguruan.

1909 aldera, Juan Cruz Irizarrek etxearen ondoko lursail batzuetan 415,50 m²ko industria-pabiloia eraiki zuen, aroztegi-tailerra egiteko. *Fábrica de Muebles San Antonio* izeneko altzari-fabrika itxi ondoren, ikusi dugun moduan, pabiloi honetan *BAL* eta *Somesa* enpresak kokatu ziren, hurrenez hurren.

Irizar-Salazar familiak Urbieta Bigarrena utzi ondoren, Olaizola-Lasa familiak hartu zuen bizitoki gisa, eta Manolita Lasa Mujikak (Ormaiztegi, 1908-Donostia, 1995) klase partikularrak eskaini zituen bertan.

Etxalde horretan bazen beste eraikin txiki bat, garaje gisa erabilia, Beasain-Durango bidearen ondoan, egun oraindik irauten duena, eta bertan aroztegi eta zerrategi bat izan genituen, hasieran 1949 eta 1954 artean Nicolas Berasategi Berasategiren (Zegama, 1913-Donostia, 1991) ardurapean egon zena, baina gero Juan Apaolaza Oiarbidek (Gabiria, 1930) jarraitu zion, aurrekoak utzi zuenetik 1960ra.

Javier Olaizolak adierazi digu denbora-tarte labur batean beste jarduera bat izan zela kokapen horretan; xaboi-fabrika izan zen, Zumarragako Francoren ardurapean, baina ez dugu horri buruzko beste aztarnarik topatu.

Urbieta etxe mugakidearekin batera bota zuten lurrera 1997an. ■

215
Fakturaren izenpurua, 1949
Membrete de factura, 1949

NICOLAS BERASATEGUI
SERRERIA
ORMAIZTEGUI (Guipúzcoa)

216
1945 inguruan. NICOLAS BERASATEGI BERASATEGI (Kaseta), Carlos García Larrea, Juanito Iturbe Ugalde eta Eugenio Murua Urkiola *Makurtuta*: Pepe Goia Goia, Joseba Ezkurdia Irizar eta Jose Turrillas Bordegarai
1945 aprox. NICOLÁS BERASATEGI BERASATEGI (Kaseta), Carlos García Larrea, Juanito Iturbe Ugalde y Eugenio Murua Urkiola *Agachados*: Pepe Goia Goia, Joseba Ezkurdia Irizar y José Turrillas Bordegarai

4.20 TELLERI ZAHARRA O KARTERONE

Localizada con el número 10 del cuartel Oriente, cuenta con una detallada y curiosa descripción registral de 1880: *Comprende 5.270 tejas; 43 estados² de ripia con sus correspondientes arlatas y escusales; 238 lineales de cabríos; 161 codos lineales de madera gruesa de la armadura; 207 codos lineales de solivos; 51 codos lineales de marcos de puertas y ventanas; 11 codos lineales de vanos de escalera; 4,5 codos² de sus gradas; 31 codos² de puertas y ventanas lisas con su ferretería; 12,5 estados de cerradura vertical de tabla inclusa su armadura; 14 estados² de entablado de suelo; 4 estados² de tabique interior de argamasa y 43 estados de pared de mampostería de 98 pies³ cada uno. Consta de planta baja y un piso entablado, ocupa 3 posturas y 41 céntimos de postura, lo que equivale a 1 área y 17 centiáreas. Se valora en 3.968 r.v. y 34 céntimos*[138].

Esta casería de Telleri Zaharra se hallaba comprendida en el vínculo de Lapatza, fundado en escritura otorgada ante don Lorenzo Senpertegi el 13 de junio de 1688, por doña Catalina Pérez Lasa[139].

Roque Antonio Mujika Begiristain (Ormaiztegi, 1797-1862) adquirió esta finca por sucesión vincular comprendida en el vínculo de Lapatza, al fallecimiento de su padre el 1 de octubre de 1838. A la muerte de aquél sin descendencia, los representantes de los hijos menores de Pedro Nolasco Mujika, hermano de Roque Antonio, litigaron hasta obtener el reconocimiento de los tribunales de la titularidad del inmueble a favor de los huérfanos. Así, en 1884 en las operaciones de división de bienes llevada a efecto entre los hermanos Serapio y Bonifacia Mujika Zufiria, se adjudicó a Bonifacia la casería de Telleri Zaharra.

217
Telleri Zaharra

4.20 TELLERI ZAHARRA EDO KARTERONE

Ekialdeko laurdeneko 10 zenbakian kokatua, 1880an erregistro-deskribapen zehatz eta bitxi bat du: *Comprende 5.270 tejas; 43 estados² de ripia con sus correspondientes arlatas y escusales; 238 lineales de cabríos; 161 codos lineales de madera gruesa de la armadura; 207 codos lineales de solivos; 51 codos lineales de marcos de puertas y ventanas; 11 codos lineales de vanos de escalera; 4,5 codos² de sus gradas; 31 codos² de puertas y ventanas lisas con su ferretería; 12,5 estados de cerradura vertical de tabla inclusa su armadura; 14 estados² de entablado de suelo; 4 estados² de tabique interior de argamasa y 43 estados de pared de mampostería de 98 pies³ cada uno. Consta de planta baja y un piso entablado, ocupa 3 posturas y 41 céntimos de postura, lo que equivale a 1 área y 17 centiáreas. Se valora en 3.968 r.v. y 34 céntimos*[138].

Telleri Zaharreko etxe hau Lapatzako barrutian zegoen, eta 1688ko ekainaren 13an Catalina Pérez Lasa andreak egindako eskrituran eratu zen Lorenzo Senpertegi jaunaren aurrean[139].

Roque Antonio Mujika Begiristainek (Ormaiztegi, 1797-1862) loturazko ondorengotza bidez eskuratu zuen Lapatzako barrutian kokatutako finka hau, bere aita 1838ko urriaren 1ean hil zenean. Roque Antonio ondorengorik gabe hil zenean, haren anai Pedro Nolasco Mujikaren adin txikiko seme-alaben ordezkariek auzitara jo zuten higiezin horren titulartasuna umezurtzon aldekoa izan zedila erdietsi arte. Horrela, 1884an, horri begira Serapio eta Bonifacia Mujika Zufiria anai-arreben artean egindako ondasunen banaketarako eragiketetan, Bonifaciari esleitu zitzaion Telleri Zaharra etxea.

218
Intxausti-Peña sendia, 1922
Goiko ilaran: **Jose Gabriel Intxausti Aldasoro (aitonaren anaia), Ignacio Intxausti Peña eta Matea Intxausti Intxausti (izeba)**
Erdiko ilaran: **Juana Peña (ama), Mª Juana Intxausti Mendizabal (amona), Ignacio Intxausti Aldasoro (aitona) eta Jose Julian Intxausti Intxausti (aita)**
Beheko ilaran: **Kontxa, Xanti, Mª Luisa eta Juan Mari Intxausti Peña**
Familia Intxausti-Peña , 1922
Fila superior: José Gabriel Intxausti Aldasoro (hermano del abuelo), Ignacio Intxausti Peña y Matea Intxausti Intxausti (tía)
Fila intermedia: Juana Peña (madre), Mª Juana Intxausti Mendizabal (abuela), Ignazio Intxausti Aldasoro (abuelo) y José Julián Intxausti Intxausti (padre)
Fila inferior: Kontxa, Xanti, Mª Luisa y Juan Mari Intxausti Peña

Restituto Larrondobuno Arbildi y Bonifacia Mujika Zufiria vendieron Telleri Zaharra a Juan José Intxausti Aldasoro (Ormaiztegi, 1864-¿?), colono de esta casa y trabajador de la fábrica de achicoria, al precio de seis mil setecientas cincuenta pesetas, según escritura pública formalizada el 29 de noviembre de 1901[140].

A su vez, Juan José Intxausti Aldasoro vendió esta casa al precio de ocho mil pesetas, el 29 de noviembre de 1915 a su hermano José Gabriel, conocido como *americano*[141]. Además del propietario, residieron en esta casa Ignacio Intxausti Aldasoro y familia. Ignacio fue alguacil de 1893 a 1923. A José Gabriel heredó su sobrino José Julián Intxausti Intxausti (Ormaiztegi, 1884-1970), hijo de Ignacio, y sus descendientes aún hoy continúan residiendo en Telleri Zaharra.

Según hemos recogido de las actas municipales, en 1909 se incendió Telleri-Zaharra[142], procediéndose a su reconstrucción en la factura que hoy mantiene.

El primogénito de Ignacio, José Julián Intxausti Intxausti, además de empleado de la *Compañía de los Caminos de Hierro del Norte de España* (guardagujas), fue cartero, al menos desde 1913 hasta 1937. En plena contienda civil fue relevado por Guillermo Lasa Irizar, sin duda en represalia por sus preferencias políticas, no acordes con el nuevo orden establecido por los sublevados.

Según nos transmite Kontxa Intxausti Peña (Ormaiztegi, 1919) hija de José Julián, la cartería era atendida desde Telleri Zaharra, donde contaban con un despacho habilitado al efecto, por toda la familia, si bien la titularidad del servicio recaía en Ignacio Intxausti. Evidentemente esta es la razón de la acepción de Karterone con que popularmente también se conoce a la casería de Telleri Zaharra.

La familia Intxausti padeció especialmente los rigores de la Guerra Civil, con encarcelamiento de varios de sus miembros, amén de verse despojada, incluso, de su forma de sustento, lo que motivó la puesta en marcha de otras iniciativas como es el caso de la *Granja Avícola Intxauspe* y posteriormente el taller de confección de géneros de punto de Kontxa Intxausti, que se dedicó a la elaboración de guantes y calcetines, principalmente, para el comercio donostiarra *Beñaran*. ■

Restituto Larrondobuno Arbildik eta Bonifacia Mujika Zufiriak Juan Jose Intxausti Aldasorori (Ormaiztegi, 1864-¿?) saldu zioten Telleri Zaharra, etxe horretako maizter eta txikoria-fabrikako langile izan zenari, sei mila zazpiehun eta berrogeita hamar pezetako prezioan, 1901eko azaroaren 29an egindako eskritura publikoaren arabera[140].

Aldi berean, Juan Jose Intxausti Aldasorok etxe hau zortzi mila pezeten truke saldu zion 1915eko azaroaren 29an bere anaia Jose Gabrieli, *amerikanoa* ezinez ezagutzen zenari[141]. Jabeaz gain, etxe honetan Ignacio Intxausti Aldasoro eta haren familia bizi izan ziren. Ignacio aguazila izan zen 1893tik 1923ra. Jose Gabrielen ondorengotza haren iloba Jose Julian Intxausti Intxaustik (Ormaiztegi, 1884-1970) jaso zuen, Ignacioren semeak, eta haren ondorengoek oraindik ere Telleri Zaharran bizitzen jarraitzen dute.

Udal aktetan jaso dugunaren arabera, 1909an Telleri Zaharrak su hartu zuen[142], eta hura berreraiki zutenean, gaur egun duen egitura eman zioten.

Ignacioren oinordekoa, Jose Julian Intxausti Intxausti, *Compañia de los Caminos de Hierro del Norte de España* enpresako langile (orratz-zaina) izateaz gain, postaria ere izan zen gutxienez 1913tik 1937ra. Gerra Zibila bete-betean zegoela, Guillermo Lasa Irizarrek ordezkatu zuen, zalantzarik gabe haren zaletasun politikoengatik hartutako neurri gisa, ez baitzetorren bat matxinatuek ezarritako ordena berriarekin.

Jose Julianen alaba Kontxa Intxausti Peñak (Ormaiztegi, 1919) adierazi digun moduan, postaritza-lanak Telleri Zaharra baserrian egiten zituen familia osoak, horretarako egokitutako langela bat baitzuten, baina zerbitzuaren titulartasuna Ignacio Intxaustiren esku zegoen. Hain zuzen ere, horrexegatik deitu izan zaio, herriko biztanleen artean, Karterone Telleri Zaharra etxeari.

Intxausti familiak larrutik ordaindu zuen Gerra Zibilaren gogortasuna, bere kideetako batzuk kartzelaratu eta beren irabazpide nagusia kendu baitzieten, eta horrek beste ekimen batzuk abian jartzera behartu zituen, hala nola *Granja Avícola Intxauspe* izenekoa eta, gerora, Kontxa Intxaustiren puntu-lanak egiteko tailerra, eta bertan, eskularruak eta galtzerdiak egiten jardun zuen, batez ere Donostiako *Beñaran* izeneko saltokiarentzat. ■

219
Mª Luisa eta Catalina Intxausti Peña, Pilar Mercero Intxausti, Kontxa Intxausti Peña eta Julita Lasa Eguren, 1938
Mª Luisa y Catalina Intxausti Peña, Pilar Mercero Intxausti, Kontxa Intxausti Peña y Julita Lasa Eguren, 1938

4.21 SAN FAUSTO BERRIA O PANADERÍA

En 1859 José Joaquín Otaño adquirió dicha edificación a su anterior propietario Henri St. Genes, quien reconoció un gravamen por importe de 3.668 reales de vellón a favor de Julio Laporte, Luis Redón, Carlos Verges, Carpinteros Chabral y Cía., Francisco Otaño y Monsieur Delpech. Esta información nos situa en la efervescencia que vivió Ormaiztegi con ocasión de las obras del ferrocarril, con numerosa presencia de personal de origen francés[143].

Esta casa de San Fausto Berria, en 1866 pasó a manos de Joaquín Zufiria Peña[144], al que hemos citado en el apartado correspondiente a la casa concejil. Las dos tabernas que figuran a nombre de Zufiria en 1868 se localizarían, posiblemente una en esta casa y la otra en Etxaluze, de la que también fue propietario.

En 1873 José Miguel Irizar Guridi (Ormaiztegi, 1850-1919) era colono de la casa Zibur Zaharra y ese mismo año consta que suministró pan al Ayuntamiento con destino al ejército, lo que confirma que la panadería de los Irizar inicialmente estuvo localizada en Zibur Zaharra. En 1894 adquirió la casa San Fausto Berria, al precio de seis mil setecientas cincuenta pesetas y contaba con máquina para hacer pan, amasadora y cilindro[145].

Hemos dado referencia de la existencia en la localidad de otras dos panaderías anteriores a ésta, concretamente las localizadas en 1860 en Elizalde y Errota Txikia (Lapatza Txikia), de Juan Manuel y Juan Bautista Urretabizkaia, respectivamente. En 1897 la panadería de Elizalde era regentada por Martín Mendizabal Albisu.

José Miguel Irizar pronto contó con la colaboración de su hijo José Deogracias Irizar Ezkurdia (Ormaiztegi, 1877-1952), así en los censos de 1904 localizamos a José Miguel aún en Zibur Zaharra, mientras que a su hijo José en San Fausto. En esta fecha ya cuentan además con un

220
Zibur Zaharra, 1940

4.21 SAN FAUSTO BERRIA EDO PANADERIE

1859an Jose Joaquin Otañok horren aurreko jabe izandako Henri St. Genes-i erosi zion eraikina, eta hark aitortu zuenez, 3.668 erreal koartoko karga bat zuen Julio Laporte, Luis Redón, Carlos Verges, Carpinteros Chabral y Cía., Francisco Otaño eta Monsieur Delpech-en alde. Informazio horrek argi erakusten digu nolako loraldia bizi zuen Ormaiztegik, trenbidea egiteko obren ondorioz, frantziar jatorriko langile ugari etorri baitziren bertara[143].

San Fausto Berria izeneko etxe hau kontzeju-etxeari zegokion atalean aipatu izan dugun Joaquin Zufiria Peñaren esku geratu zen 1866an[144]. 1868. urtean Zufiriaren izenean ageri diren bi tabernok; ziurrenik, bat etxe honetan eta bestea Etxaluzen kokatuak egongo ziren, azken etxe horren jabe ere izan baitzen.

1873an, Jose Miguel Irizar Guridi (Ormaiztegi, 1850-1919) Zibur Zaharra etxean maizter zegoela, urte horretan bertan, ogia saldu zion Udalari gero armadari emateko, eta horrek baieztatuko luke Irizarren okindegia hasieran Zibur Zaharran kokatua egon zela. 1894an San Fausto Berria etxea eskuratu zuen, sei mila zazpiehun eta berrogeita hamar pezetako prezioan, eta ogia egiteko makina, oragailua eta zilindroa zeuzkan bertan[145].

Arestian aipatu dugu herrian bazeudela hau baino lehenagoko beste bi okindegi, hain zuzen ere, 1860. urtean Elizalden eta Errota Txikian (Lapatza Txikian), Juan Manuel eta Juan Bautista Urretabizkaiarenak, hurrenez hurren. 1897an Elizaldeko okindegia Martin Mendizabal Albisuk zuen bere ardurapean.

221
San Fausto Berria etxea

222
Gregorio Irizar, Mª Tere Borde, Nerea Irizar Borde, Pepe Castañón-en arreba, Pepe Castañón, Amaia Irizar Borde, Jose Miguel Irizar, Maite Irizar Borde, Kasilde Arzelus, Txaro Irizar Borde eta Pepe Castañón-en koinatua.
Gregorio Irizar, Mª Tere Borde, Nerea Irizar Borde, hermana de Pepe Castañón, Pepe Castañón, Amaia Irizar Borde, José Miguel Irizar, Maite Irizar Borde, Kasilde Arzelus, Txaro Irizar Borde y el cuñado de Pepe Castañón.

trabajador para atender la panadería. En 1918 la panadería operaba a nombre de José Irizar Ezkurdia. La saga tuvo continuidad con la incorporación de los hijos de éste, José Miguel y Gregorio Irizar Urkiola (Ormaiztegi, 1907-1982 y 1917-1986, respectivamente).

Si bien la vida profesional del primogénito, José Miguel, discurrió exclusivamente en la panadería familiar, no así la de su hermano Gregorio, que durante algún tiempo trabajó en la tejería. Los hermanos Irizar Urkiola, como es tan habitual en este tipo de negocios, tenían involucradas en el mismo a sus respectivas esposas, Kasilde Arzelus Loiola y María Teresa Borde de la Cruz, quienes atendían el despacho de pan. Además contaban siempre con el apoyo de otro operario en el obrador.

Hasta el año 1973 en que se constituyó la panificadora *Ilargi*, localizada en Urretxu, donde se integraron los panaderos de nuestra zona, esta panadería se mantuvo operativa. No obstante, esta familia siguió despachando pan en San Fausto Berria. Nere Irizar Borde, hija menor de Gregorio, hacia 1985 tomó el relevo de Kasilde Arzelus y María Teresa Borde, quien atendió dicho despacho de pan hasta 1990, en que se hizo cargo del establecimiento Rafaela Peñagarikano Garin.

En el presente caso contamos con información de primera mano, procedente del testimonio de Kasilde Arzelus (Ormaiztegi, 1916-2011)[146], viuda de José Miguel Irizar Urkiola, que a todo lo anterior añade que el fundador de la panadería también fue cartero. Este testimonio, además, nos ayuda a comprender mejor el funcionamiento de este popular establecimiento.

Para la elaboración del pan utilizábamos levadura natural, renovando dos veces la masa de pan del día anterior.

Jose Miguel Irizarrek laster jaso zuen bere seme Jose Deogracias Irizar Ezkurdiaren (Ormaiztegi, 1877-1952) laguntza, eta horrela, 1904ko erroldan, Jose Miguel oraindik ere Zibur Zaharran dagoen arren, haren seme Jose San Fauston ageri da. Data horretan, gainera, langile bat ere badute, okindegian laguntzeko. 1918an Jose Irizar Ezkurdiaren izenean lan egiten zuen okindegiak. Familia horrek izan zuen jarraipenik, haren seme Jose Miguel eta Gregorio Irizar Urkiola ere (Ormaiztegi, 1907-1982 eta 1917-1986, hurrenez hurren) lan horretan aritu baitziren.

Jose Miguel oinordekoaren bizitza profesionala familiaren okindegira mugatu bazen ere, haren anaia Gregoriorena, aldiz, ez, denboraldi batez teilerian lan egin zuelako. Irizar Urkiola anaiek, horrelako negozioetan oso arrunta zen ohiturari jarraiki, beren emazteak ere negoziora ekarri zituzten, Kasilde Arzelus Loiola eta Maria Teresa Borde de la Cruz, eta hala, ogiaren salmentan aritu ziren biak. Horrez gain, beste langile bat ere bazuten ogi-lantegian laguntzeko.

1973. urtean Urretxun gure eskualdeko okinak bilduko zituen *Ilargi* okindegia osatu zuten arte, lanean jarraitu zuten okindegi honetan. Halere, familia honek ogiaren salerosketan jardun zuen gerora ere San Fausto Berrian. 1985 inguruan, Nere Irizar Bordek, Gregorioren alaba gazteenak, Kasilde Arzelus eta Maria Teresa Borde ordezkatu zituen, eta ogi-denda horretan lan egin zuen 1990 arte, hots, Rafaela Peñagarikano Garinek saltoki horren ardura bere gain hartu zuen arte.

Kasu honetan, lehen eskuko informazioa lortu dugu, Jose Miguel Irizar Urkiolaren alargun Kasilde Arzelusek (Ormaiztegi, 1916-2011)[146] emandako testigantzatik jasoa, eta aurreko horri guztiari gehitu dio okindegiaren fundatzailea postari ere izan zela. Lekukotza honek, gainera, establezimendu ezagun honen funtzionamendua hobeto ulertzen laguntzen digu.

223

Este era el producto utilizado para fermentar el pan. Todo el proceso de producción del pan era manual: hacer la masa, dejarle fermentar, pesar, darle forma, dejarle levar. Cocíamos el pan introduciendo y sacando con una pala en el horno.

Por cuanto las familias en este tiempo eran extensas existía mucha demanda de pan, los panes eran grandes, los panes normales pesaban alrededor de un kilo.

Pero también se hacían otros tipos de pan; español, francés, panpota -era más esponjoso que el pan normal-, bollos –en verano hacíamos muchos para los veraneantes-, sopako (pan de sopa) –se hacía en pocos sitios, nosotros producíamos muchos.

La venta del pan además de en la propia panadería se repartía casa a casa. El reparto de pan inicialmente lo hacían en carro y posteriormente con un automóvil. José Miguel para advertir su llegada hacía sonar un cornetín. En verano, empezando en torno a San Fermín y hasta mediados de setiembre, por la afluencia de veraneantes, se vendía más pan, por lo que debíamos producir más, pues suministrábamos al Balneario, Elosegi y Ezkurdia.

Tras la Guerra Civil cambiaron mucho las cosas e impusieron el racionamiento. La harina la teníamos que traer de estraperlo de Nafarroa y la escondiamos en el convento de los frailes de Gabiria, de donde la traíamos poco a poco, unicamente lo necesario en cada momento. En este tiempo y como consecuencia de la situación generada por el racionamiento se vendía como harina cualquier cosa. Para controlar esta situación se llevaban botellas con muestras de harina con indicación de la fábrica de procedencia. De esta manera en caso de ocurrir algo la sanción recaía en el fabricante de harina.

La casa San Fausto Berria, también conocida como Panadería o Zamoratxe, fue derribada el año 2002, para dar paso a un nuevo bloque de viviendas, garajes y locales comerciales. ■

Ogia egiteko leami naturala erabiltzen genuen, aurreko eguneko ogi masa bi aldiz berrituz, hura zan ogia altxatzeko erabiltzen genuena. Ogia egiteko prozesu guztia eskuz egiten zuten: masa egin, altxatzen utzi, pisatu, forma eman, altxatzen utzi eta sua bertan zuen labean palarekin sartu eta atera arituz egiten genuen ogia.

Garaiko familiak handiak zirenez ogi eskaera ere handia izaten zen, ondorioz ogirik arruntenak kilo inguru pisatzen zuten, ogi handiak izaten ziren.

Hala eta guztiz beste era batzuetako ogiak ere egiten zituzten; española, frantsesa, panpota: ogi arrunta baino harroagoa zena, opilak: udaran beraneanteentzat asko egiten genituen, zopakoa: toki gutxitan egiten zen, guk asko saltzen genuen.

Ogi salmenta okindegian egiteaz gain etxerik-etxe banatzen zen, ogi saltzen haseran karroz eta gero automobilekin ibili ziren, Jose Migelek etxeetara iristean bertan zela jakitera emateko asmoz tutua jotzen zuen.

Udaldian ogi salmenta handiagoa izaten zen, San Fermin inguruan hasi eta irail erdi ingurura bitartean gure herrira hurbiltzen ziren etorkinak zirela eta ogi gehiago egin beharrean izaten ziren. Bainuetxe, Elosegi, Ezkurdiarako egiten bait genuen.

Guda zibila izan ondoren gauzak asko aldatu ziren eta razionamendua jarri zuten. Irina Nafarrotik estrapeloan ekarri behar izaten genuen, Gabiriko frailetan gordetzen genuen eta piskanaka ekartzen genuen beharrekoa bakarrik. Garai hartan eta razionamenduaren ondorioz egoerak berak eraginda edozein gauza sartzen zuten, ondorioz nolabait kontrolatzeko edo irin muestrak eramaten zituzten botilan zein fabrikatakoa zen jarriz, beraz zerbait gertatuz gero isuna irin fabriken gain eroriko zen.

San Fausto Berria etxea, Okindegi edo Zamoratxe izenez ere ezagutzen zena, 2002. urtean eraitsi zuten, etxebizitza, garaje eta lokal komertzialen bloke berria egin ahal izateko. ■

224
Jose Miguel eta Kasilde
José Miguel y Kasilde

4.22 ZAMORA BERRIA: LOCUTORIO TELEFÓNICO Y ALQUILERISTA

Según inscripción registral del año 1867, la casa Zamora Berria, a la sazón San Andrés 19, se construyó sobre la finca adquirida en 1848 a la Diputación por José Albisu Lardizabal, labrador y vecino de Ormaiztegi. Se describe como *una casa con su huertecita por la parte de Poniente, y patio por la del Norte, con una tejavana para herrar bueyes y horno, que consta de planta baja y dos pisos. La huerta tiene 16 m² y confina al Oriente, con la casa nueva de San Fausto Berria de Joaquín Zufiria; Mediodía con la nueva carretera para Oñati; Poniente, con camino que desde San Fausto se dirige a la carretera y Norte, con la casa nueva de San Fausto*. Se valora en diez y seis mil reales de vellón[147].

Sin embargo, otro asiento registral de 1900, señala que *antiguamente existía una pequeña casa con el nombre de Perratrenea, con dos tejavanas en ambos costados que servían la una de fragua y la otra de herradero y hoy se hallan convertidas todas en una casa que se ha edificado y ha tomado el nombre de Zamora berria*[148]. En este caso, añade, que la casa está dividida en dos partes por un medianil y que se compone de bajeras, dormitorios altos y desván. En el plano parcelario de los terrenos a adquirir para construir las escuelas públicas, fechado el 5 de mayo de 1914, a esta edificación se le identifica como *Perrechenea*.

En 1882 fue adquirido por el comerciante local Francisco Otaño Garin y se valoró en seis mil quinientas pesetas. A la muerte de éste (1903) heredó el título de propiedad del inmueble su hijo Juan Otaño Arantzegi[148].

En el listado de actividades de 1860 se localiza en esta casa a José Albisu como herrador de bueyes y herrero. Según las matrículas industriales, de 1906 a 1909, ambos inclusive, Juan Cruz Irizar tuvo su taller de ebanistería localizado en esta casa, que trasladó a la casa Urbieta Bigarrena (1909), con ocasión de su adquisición.

4.22 ZAMORA BERRIA: TELEFONO-MINTZATEGIA ETA ALKILERISTA

1867. urteko erregistro-inskripzioaren arabera, Zamora Berria etxea, garai hartan San Andres 19 zenbakian, Jose Albisu Lardizabal nekazari ormaiztegiarrak Aldundiari 1848. urtean erositako finkan eraiki zen. *Mendebaldean baratzetxo bat eta iparraldean patioa duen etxea da, idiak ferratzeko estalpea eta labea duela, eta behe-solairua eta bi goi-solairu ditu. Baratzeak 16 m² ditu eta ekialdetik Joaquin Zufiriaren San Fausto Berria etxe berriarekin egiten du muga, hegoaldetik, Oñatira doan errepide berriarekin; mendebaldetik, San Faustotik errepidera doan bidearekin; eta iparraldean, San Fausto etxe berriarekin*. Hamasei mila erreal koartotan balioetsia dago[147].

Halere, 1900. urteko beste erregistro-idazpen batek dio *antzina Perratrenea izeneko etxe txiki bat bazegoela, bi aldamenetan estalpe bana zuela, bat sutegi gisa eta bestea ferrategi bezala erabiliak, eta gaur egun, denak etxe bat bilakatuta ditugu, berreraiki ondoren Zamora Berria izena hartu duena*[148]. Kasu honetan, gehitzen duenez, etxea bi zatitan erdibitua dago mehelin baten bidez, eta etxabeak, goian logelak eta ganbara ditu. Eskola publikoak eraikitzeko eskuratu behar zituzten lursailen lur-zatiketaren planoan, 1914ko maiatzaren 5eko data daramala, eraikin hau *Perrechenea* izenez ageri da.

1882an Francisco Otaño Garin herriko merkatariak erosi zuen eta sei mila eta bostehun pezetatan balioetsi zuten. Hil zenean (1903), haren seme Juan Otaño Arantzegik heredatu zuen higiezin horren jabetza-titulua[148].

1860. urteko jarduera-zerrendan etxe honetan Jose Albisu ageri da idien ferratzaile eta errementari gisa. Industria-matrikulen arabera, 1906tik 1909ra, biak barne, Juan Cruz Irizarrek zurgintza-tailerra izan zuen etxe honetan, baina Urbieta Bigarrena etxera aldatu zen gero (1909), hura eskuratu zuenean.

225
Argazkiaren ezkerraldean Zamora baserria eta Zamora Berria etxea, 1940
A la izquierda de la imagen el caserío Zamora y la casa Zamora Berria, 1940

En 1876 Bell presentó el aparato telefónico de su invención en la Exposición Internacional de Filadelfia, a partir de cuando se extendió el uso del teléfono, pero hay que tener en cuenta que en aquel momento la sociedad tenía satisfechas sus necesidades de comunicación por el telégrafo. En el caso del Estado español se había construido una extensa red que unía todas las capitales de provincia y los cables submarinos enlazaban grandes distancias. Por extraño que parezca, la aparición del teléfono no produjo impacto y su desarrollo fue mucho más lento que el de los otros sistemas. El tipo de información a que se estaba acostumbrado, desde la antigüedad, era la escritura; es evidente que, en el momento de aparecer el teléfono, no existía una necesidad y se interpretó más como un juguete o un signo de refinamiento.
La implantación y desarrollo de este servicio en el Estado español, si bien siguió el ejemplo del entorno europeo, se realizó con algún retraso respecto de aquél, por falta de recursos suficientes para ello por parte del Gobierno para financiar las infraestructuras necesarias[151].
A pesar de los esfuerzos desplegados por el gobierno español, la segunda mitad de la primera década del siglo pasado algunas ciudades tan importantes como Sevilla, Málaga o Donostia no contaban aún con redes telefónicas urbanas y estaba pendiente su interconexión con Madrid. En este estado, la Ley de 25 de noviembre de 1908 autorizó al Gobierno para otorgar a la Diputación Provincial de Gipuzkoa el establecimiento y explotación durante 15 años de una red telefónica interurbana. También en 1908 se concedió al Ayuntamiento de Donostia autorización para la construcción y explotación de la red urbana, que con fecha 21 de octubre de 1921 se le otorgó a perpetuidad[152].

LOCUTORIO TELEFÓNICO

En Zamora Berria se localizó la primera instalación expresamente destinada a locutorio telefónico, pero antes de entrar en detalle del mismo, conozcamos los particulares de la implantación de este servicio en nuestro entorno.

Gipuzkoa, una experiencia singular:

En 1908 el Ayuntamiento de Donostia obtuvo la concesión de la explotación de la red urbana que, en principio, debía abarcar un radio de quince kilómetros. Una decisión que conllevaba la singularidad de dotar de servicio telefónico a la ciudad donde la familia real pasaba largos períodos y donde, en consecuencia, Alfonso XIII firmaba cada año buena parte de la legislación. En los años siguientes, la red urbana de Donostia destacará muy por encima de la baja calidad de las explotadas por concesionarios privados en otras ciudades; ello explica, en buena medida, que esta concesión se prolongara más allá de la unificación del servicio telefónico en el resto del territorio español.

Sólo unos meses después de recibir la adjudicación, el Ayuntamiento donostiarra renunció a la instalación y explotación del servicio en el extrarradio de la ciudad, en beneficio de la nueva red provincial que comenzaba a instalar la Diputación de Gipuzkoa. Ambas redes, durante décadas, funcionaron de manera independiente, aunque situadas en distintos pisos del mismo edificio.

La red telefónica provincial de Gipuzkoa fue una singularidad en la trama de la infraestructura telefónica en el Estado español. Una vez que la *Compañía Peninsular*, adjudicataria de la red del Nordeste, renunció a unir a sus líneas interurbanas los pueblos de la provincia, reservándose sólo la interconexión de Donostia, Irun y Tolosa, la Diputación tomó a su cargo la tarea de instalar redes urbanas en todas las poblaciones de Gipuzkoa (excepto la capital, naturalmente) así como de las comunicaciones interurbanas entre todas ellas, excluyendo Donostia, Irun y Tolosa.

La originalidad de este compromiso entre distintos intereses públicos y privados hizo posible que el 12 de noviembre de 1909 se inaugurara el servicio que conectaba Donostia, Zarautz y Eibar, operado por la Diputación de Gipuzkoa, gracias a la financiación aportada por la *Caja de Ahorros Provincial de Guipúzcoa*. A finales de 1910 esta red provincial contaba con trescientos abonados, que en los dos primeros años de servicio cursaron setenta y siete mil conferencias provinciales y dos mil quinientas interurbanas, dejando un remanente de diez y ocho millones de pesetas, según consta en la memoria publicada años más tarde, al término de la concesión[149].

El teléfono en Ormaiztegi:

En este contexto, en 1909 el Ayuntamiento de Ormaiztegi, con seiscientos treinta y cinco habitantes, renunció a favor de la Diputación al derecho de establecimiento telefónico[150]. Al año siguiente, 1910, se instaló en la casa consistorial el teléfono público, coincidiendo con el establecimiento del servicio de correo certificado. Si bien en 1911 atendía este servicio Anselmo Otaño, hijo del posadero, en 1912 se nombró encargado interino del teléfono público a Atanasio Blanco.

En 1913 se traslado el servicio telefónico a Zamora Berria, donde se habilitó nuevo locutorio telefónico, cuyos trabajos de acondicionamiento de local fueron encomendados a Juan Cruz Irizar.

A Atanasio Blanco le sucedió en este servicio Amparo Larrondobuno Mujika, (Beasain, 1881-¿?) que renunció en 1914. Este mismo año solicitó el cargo de telefonista Cándida Salazar Uncilla, esposa del ebanista Juan

TELEFONO-MINTZATEGIA

Zamora Berrian bereziki telefono-mintzategi izateko xedatutako lehen instalazioa kokatu zen, baina horren xehetasunei ekin aurretik, ezagutu ditzagun gure inguruan zerbitzu horren ezarpenak izan zituen berezitasunak.

Gipuzkoa, esperientzia berezi bat:

1908an, Donostiako Udalak hiriko sarea ustiatzeko emakida erdietsi zuen eta, hasiera batean, hamabost kilometroko erradio bat hartu behar zuen. Erabaki horren atzean bazegoen arrazoi bat: hiria telefono-zerbitzuaz hornitu beharra zegoen, Alfonso XIII. ak bertan sinatzen zituelako lege asko eta asko, erregearen familiak hiri honetan epealdi luzeak egiten zituenez gero. Hurrengo urteetan, Donostiako hiri-sarea, beraz, nabarmendu egingo da emakidadun pribatuek beste hiri batzuetan ustiatutako kalitate urrikoen gainetik; horrek azalduko luke, neurri batean, Espainiako estatuaren gainerakoan telefono-zerbitzua bateratu eta gero ere Donostiako emakida hau luzatzea.

Esleipena jaso eta hilabete batzuetara, Donostiako Udalak uko egin zion zerbitzu hori hiriaren aldirietan instalatu eta ustiatzeari, Gipuzkoako Aldundia instalatzen hasia zen probintziako sare berriaren mesedetan. Bi sare horiek, hamarraldi batzuetan, bereizirik funtzionatu zuten, nahiz eraikin beraren solairu desberdinetan kokaturik egon.

Gipuzkoako telefono-sare probintziala berezitasun bat izan zen Espainiako Estatuaren telefono-azpiegituren bilbean. Ipar-ekialdeko sarearen esleipendun izan zen *Compañía Peninsular* izenekoak bere herriarteko lineekin probintziako herriak lotzeari uko egin eta Donostia, Irun eta Tolosako interkonexioa bakarrik mantentzea erabaki zuenetik, Aldundiak bere gain hartu zuen Gipuzkoako herri guztietan herri barruko sareak instalatzeko ardura (hiriburuan izan ezik, jakina), baita horien guztien arteko herri arteko komunikazioak ere, Donostia, Irun eta Tolosa salbuetsiz.

Interes publiko eta pribatu desberdinen arteko konpromiso honen originaltasuna zela eta, 1909ko azaroaren 12an Donostia, Zarautz eta Eibar lotzen zituen zerbitzua inauguratu zen, Gipuzkoako Aldundiak eskainia, *Gipuzkoako Aurrezki Kutxa Probintzialak* emandako finantzazioari esker. 1910aren amaieran sare probintzial honek hirurehun abonatu zituen, eta zerbitzuko lehen bi urteetan probintzia barruko hirurogeita hamazazpi mila konferentzia eta herri arteko bi mila eta bostehun konferentzia egin zituzten, hemezortzi milioi pezetako irabaziak utziz, urte batzuk geroago emakida amaitzean argitaratutako txostenaren arabera[149].

Telefonoa Ormaiztegin:

Testuinguru honetan, 1909an Ormaiztegiko Udalak, seiehun eta hogeita hamabost biztanle zituela, uko egin zion, Aldundiaren alde, telefonoaren ezarpen-eskubideari[150]. Hurrengo urtean, 1910ean, telefono publikoa instalatu zen udaletxean, posta ziurtatuaren zerbitzua ezartzearekin batera. 1911. urtean zerbitzu horretaz Anselmo Otaño, ostalariaren semea, arduratzen zen arren, 1912an telefono publikoaren bien bitarteko arduradun izendatu zuten Atanasio Blanco.

1913an telefono-zerbitzu hori Zamora Berria etxera aldatu zuten, eta telefono-mintzategi berri bat atondu zuten bertan; egokitze-lan horiek Juan Cruz Irizarren esku utzi zituzten.

Atanasio Blancoren atzetik Amparo Larrondobuno Mujika (Beasain, 1881-?) arduratu zen zerbitzu horretaz, baina uko egin zion 1914an. Urte horretan telefonariaren kargua eskatu zuen Candida Salazar Uncillak, Juan Cruz Irizar zurginaren emazteak, *baldin eta telefonoa bere etxean instalatzen bada*, eta Udalbatzak onartu egin zuen, goragoko agintariek ere

Bell-ek, 1876an, berak asmatutako telefono-aparatua aurkeztu zuen Filadelfiako Nazioarteko Erakusketan, eta hortik aurrera asko zabaldu zen telefonoaren erabilera, baina kontuan izan behar da une hartan gizarteak, telegrafoari esker, aseta zituela bere komunikazio-premiak. Espainiako Estatuan sare zabal bat eraiki zuten probintziako hiriburu guztiak batzen zituena eta urpeko hodiek distantzia handiak lotzen zituzten. Harrigarria bada ere, telefonoaren agerpenak ez zuen eragin handirik ekarri eta horren garapena beste sistema askorena baino motelagoa izan zen. Antzinatik informazio motarik ohikoena idazkera zen; begi-bistakoa da telefonoa agertu zenean ez zegoela halako premiarik eta gehiago zela jostailu bat edo dotoreziaren erakusgarri bat. Zerbitzu hau Espainiako Estatuan ezarri eta garatu zenean, Europako adibideari jarraitu bazitzaion ere, atzerapen batez gauzatu zen, Gobernuak ez zeukalako baliabide askirik horretarako beharrezkoak ziren azpiegiturak finantzatu ahal izateko[151].
Espainiako gobernuak ahaleginak egin arren, joan den mendeko lehen hamarraldiaren bigarren erdian, Sevilla, Malaga edo Donostia bezain hiri garrantzitsu batzuek ez zuten oraindik hiriko telefono-sarerik eta egitekoa zuten Madrilekiko lotura. Egoera horretan, 1908ko azaroaren 25eko Legeak Gobernuari baimena eman zion Gipuzkoako Probintziako Aldundiari herriarteko telefono-sare bat ezarri eta 15 urtean ustiatzeko baimena onartzeko. 1908an, Donostiako udalari baimena eman zitzaion hiriko sarea eraiki eta ustiatzeko, eta 1921eko urriaren 21ean, berriz, betiko baimena eman zitzaion[152].

Cruz Irizar, *siempre y cuando se le instale el teléfono en su domicilio*, a lo que la Corporación accedió, sujeto a superior aprobación, sin que hayamos podido constatar la materialización de este extremo[153].

El año 1915 se creó la Subcentral de Teléfonos en Ormaiztegi[154].

Kasilde Arzelus nos informa que, en 1930, siendo operadora Dolores Izeta Okariz, de Ordizia, con tan sólo catorce años se incorporó a la plantilla del servicio, en calidad de repartidora de telegramas. En este tiempo son muy pocos los abonados telefónicos en la localidad (Ayuntamiento, *Fábrica de Tejas y Ladrillos Zelaikoa*, *Fábrica de Muebles de San Antonio*, Zelaeta baserria), además se prestaba servicio a *Electra Troy* de Mutiloa, a los locutorios de Ezkio e Itsaso, localizados en sus respectivos *ostatus* y al locutorio de Gabiria, sito en la casa Txintxurreta.

Hacia 1933 Dolores Izeta fue trasladada a otro destino, al tiempo que se reclasificó como Teléfono Familiar el de Ormaiztegi, limitándose el servicio al horario de 8:00 a 13:00 y 15:00 a 20:00 h, haciéndose responsable del servicio Kasilde Arzelus, hasta febrero de 1946, en que se casó.

Kasilde Arzelus refiere curiosas anécdotas en torno al teléfono en aquel tiempo en que este servicio no contaba con la carta de naturalidad de hoy. Debe considerarse que al existir tan pocos abonados, la mayoría de la población hacía uso del teléfono directamente en el locutorio, para lo que se concertaba hora para las conferencias, de modo que el interesado era citado con antelación, para que permaneciera a la espera de la anunciada conferencia. El desconocimiento del idioma castellano, sin duda, produjo curiosas situaciones, que se solventaban con el concurso de las propias operadoras que cuando era preciso realizaban la función de traductoras.

Con todo, Kasilde guarda con gran frescura en su memoria las duras experiencias vividas durante la Guerra Civil. A Kasilde la guerra le sorprendió en Briviesca, donde se hallaba de reposo por enfermedad. En esta situación el servicio telefónico se trasladó a la oficina de la *Caja de Ahorros*, encomendando su aten-

226
Francisca Gurrutxaga Arizkorreta, Maria Palacios Aranburu eta KASILDE ARZELUS LOIOLA
Francisca Gurrutxaga Arizkorreta, María Palacios Aranburu y KASILDE ARZELUS LOIOLA

227
Goiko ilaran: MARINA SAGARNA AZKONA, Aurelia Sagarna Azkona, Rosario Gorrotxategi Aranburu, Dolores Kanpos, Isidora Etxezarreta Murua eta Teresa Gorrotxategi Aranburu
Beheko ilaran: Pilar Gorrotxategi Aranburu eta Dolores Etxezarreta Murua, 1954
Fila superior: MARINA SAGARNA AZKONA, Aurelia Sagarna Azkona, Rosario Gorrotxategi Aranburu, Dolores Kanpos, Isidora Etxezarreta Murua y Teresa Gorrotxategi Aranburu
Fila inferior: Pilar Gorrotxategi Aranburu y Dolores Etxezarreta Murua, 1954

onestearen mende, baina ezin izan dugu xehetasun hori egiaztatu[153].

1915. urtean Telefonoen Azpizentrala sortu zen Ormaiztegin[154].

Kasilde Arzelusek kontatu digu nola, 1930ean, telefonari Dolores Izeta Okariz ordiziarra zela, bera zerbitzu horretako plantilan sartu zen, hamalau urte besterik ez zituela, telegrama-banatzaile gisa. Garai hartan telefono-abonatuak oso gutxi ziren Ormaiztegin (Udala, *Fábrica de Tejas y Ladrillos Zelaikoa*, *Fábrica de Muebles de San Antonio*, Zelaeta baserria), eta horrez gain, zerbitzua eskaintzen zitzaion Mutiloako *Electra Troy* enpresari, Ezkio eta Itsasoko ostatuetan kokatuta zeuden mintzategiei eta Txintxurreta etxean kokatutako Gabiriako mintzategiari.

1933 aldera Dolores Izeta beste lantoki batera aldatu zuten, eta aldi berean, Telefono Familiar gisa birsailkatu zuten Ormaiztegikoa, zerbitzua 8:00etatik 13:00etara eta 15:00etatik 20:00etara mugatuz, Kasilde Arzelus zerbitzu horren jabe eginez, 1946ko otsaila arte, alegia, ezkondu zen arte.

Kasilde Arzelusek telefonoaren inguruko pasadizo xelebreak kontatu dizkigu, zerbitzu horrek gaur egun duen naturaltasunik ez zuen garai batean. Kontuan izan behar da hain abonatu gutxi zeudenez, herritar gehienek zuzenean mintzategira jotzen zuten telefonoa erabili nahi zutenean, eta beraz, ordu bat adosten zuten konferentzietarako, interesatuari aurrerapenez ematen zioten hitzordu bat, egin nahi zuen konferentzia horren zain egon zedin. Gaztelaniaz ez jakiteak, zalantzarik gabe, egoera bitxiak eragin zituen, eta horietako asko, telefonariek berek parte hartuz konpondu ziren, behar zen guztietan itzultzailearen lanak ere egiten baitzituzten.

Dena den, Kasildek freskotasun handiz gordetzen ditu bere oroimenean Gerra Zibilean bizi izandako esperientzia gogorrak. Gaixotasun batengatik atseden hartzera Briviescara joana zela harrapatu zuen gerrak Kasilde. Egoera horretan, telefono-

ción a los miqueletes que también atendían dicha agencia. En setiembre de 1936, con ocasión de la entrada en el pueblo de las tropas golpistas, el teléfono fue trasladado a la casa consistorial, confiando su atención a los soldados franquistas. Entre tanto Kasilde había sido automáticamente separada del servicio y sin embargo, Manolita Lasa, esposa del entonces alcalde José Olaizola Iraola, pidió colaboración a ésta para dar traslado a los numerosos telegramas de alistamiento que se venían recibiendo y que a los soldados encargados del servicio telefónico resultaba complicado cursar, por desconocimiento de la localidad. Así a pesar de hallarse separada del servicio continuó atendiendo por algún tiempo el teléfono, sin retribución alguna, hasta que tras ser depurada fue nuevamente readmitida. En este tiempo de guerra, era habitual que se cortaran las conversaciones en euskara, sin duda por el control a que estaba sometido el teléfono.

Sucedió a Kasilde Arzelus en el servicio telefónico en Ormaiztegi, Marina Sagarna, quien en 1948 lo cedió a la familia Zangitu, lo que además implicó un nuevo cambio de ubicación, pasando a localizarse en la casa Oñatibia. En 1951 José Ignacio Muguruza Zangitu figura al frente del servicio, hasta que en 1972 se hizo cargo del teléfono público Mª Cruz Izuzkitza Arzelus, instalándose el locutorio en el balneario.

El año 1950 se traspasó la *Red Telefónica Provincial* a la *Compañía Telefónica Nacional de España*. En las bases reguladoras del traspaso, a diferencia de lo establecido para el resto del Estado, en que las áreas de comunicación urbana vienen determinadas por la demarcación del término municipal correspondiente a cada Centro telefónico, en el caso de Gipuzkoa la *CTNE* hizo una excepción, respetando la situación de hecho creada desde la implantación del servicio telefónico en dicho territorio, Ormaiztegi, junto con Altzaga, Arama, Ataun, Baliarrain, Beasain, Gaintza, Itsaso, Itsasondo, Gabiria, Ordizia y Zaldibia, quedó integrado en la zona urbana de Ordizia-Beasain.

11. TAULA: ORMAIZTEGIKO TELEFONOEN ZERRENDA
TABLA 11: LISTA DE TELÉFONOS DE ORMAIZTEGI

Telefono zkia. Nº Teléfono	Titularra Titular	Telefono zkia. Nº Teléfono	Titularra Titular
1	Telleria Aldasoro sendia/familia - Berjaldegi	17*	*José María Lasa - Onena*
2	Jose Mari Lasa (partikularra/particular)		Jose Barrenetxea - Arma denda/Armeria
3	*Vda. e hijos de Gregorio Lizarazu*	18	*Letag*
4	*Carlos García y Cía.*	19	*Gráficas Eurieche*
5	*Somesa*	20	Ignacio Garmendia
6	*Hijos de A. Izuzkitza*	21*	*Talleres plásticos Une*
7	*Caja Ahorros Provincial Guipúzcoa*		Venancio Azurmendi - Iturgintza/Fontanería
8	Salbatore	22	Cayetana Bengoetxea
9	*Balneario de Ormaiztegi*	23	Mandubi
10	*Irizar S.R.C.*	24*	Milagros Lasa
11	Jesus Eugenio Murua - Harategia/Carnicería		*Irizar S.C.I.*
12	Udala/Ayuntamiento	25*	*Pablo Irizar - Fundición y Laminación*
13*	*Hijos de Ezkurdia* - Ostatua eta taberna/Fonda y bar		*Caja Laboral Popular*
	Zaldua e Irastorza - Iturgintza/Fontanería	26	Juan Apaolaza - Autobusak/Autobuses
	Confecciones Juani	28	*Peydesa*
14	Jose Miguel Irizar - Okindegia/Panadería	30*	*Hijos de A. Telleria - Cerámica Zelaikoa*
15	Ostatua/Posada		Patxi Arruabarrena
16	Apaizetxea/Casa cural		

zerbitzua *Aurrezki Kutxa*ren bulegora eraman zuten, eta horren ardura agentzia horretan lanean aritzen ziren mikeleteen gain utzi zuten. 1936ko irailean, matxinatuen soldaduak herrira sartu zirenean, telefonoa udaletxera eraman zuten, eta horren ardura soldadu frankisten esku utzi zuten. Bien bitartean, Kasilde automatikoki apartatu zuten zerbitzutik eta, halere, Manolita Lasak, orduko alkate Jose Olaizola Iraolaren emazteak, laguntza eskatu zion Kasilderi, jasotzen ari ziren errekrutatze-eskaeren telegrama ugariak jakinarazteko, telefono-zerbitzuaz arduratzen ziren soldaduei zaila egiten baitzitzaien haiek izapidetzea, herria ezagutzen ez zutelako. Horrela, zerbitzu horretatik kanpo utzi zuten arren, denboraldi batez telefonoaz arduratzen aritu zen, inolako ordainsaririk jaso gabe, harik eta, hari barkamena eman ondoren, berriro onartu zuten arte. Gerrak iraun zuen bitartean, ohikoa zen euskarazko elkarrizketak moztea, telefonoaren gainean ezarria zuten kontrolagatik inolako zalantzarik gabe.

Ormaiztegiko telefono-zerbitzuan, Kasilde Arzelusen ondotik, Marina Sagarna hasi zen, eta honek, 1948. urtean Zangitu familiaren esku utzi zuen, eta horrek kokapen-aldaketa berri bat ekarri zuen, Oñatibia etxean kokatu baitzen. 1951n, Jose Ignacio Muguruza Zangitu ageri da zerbitzu horren buru, harik eta 1972an Mª Cruz Izuzkitza Arzelusek telefono publikoaren ardura hartu zuen arte, mintzategia bainuetxean kokatuz.

1950. urtean *Red Telefónica Provincial* izenekoa *Compañía Telefónica Nacional de España*ren esku geratu zen. Eskualdaketa hori arautu zuten oinarrietan, Estatuaren gainerakoarentzat ezarri zutenaren kontra, beste horietan hiriko komunikazio-eremuak Telefono Zentro bakoitzari dagokion udalerriak duen mugapenaren arabera erabakitzen baitira, Gipuzkoaren kasuan *CTNE*k salbuespen bat egin zuen, lurralde horretan telefono-zerbitzua ezarri zenetik sortutako egoera errespetatuz, eta Ormaiztegi, horrenbestez, Altzaga, Arama, Ataun, Baliarrain, Beasain, Gaintza, Itsaso, Itsasondo, Gabiria, Ordizia eta Zaldibiarekin batera, Ordizia-Beasaingo hiri-eremuan sartuta geratu zen.

Telefono zkia. Nº Teléfono	Titularra Titular	Telefono zkia. Nº Teléfono	Titularra Titular
31*	*Juan Cruz Irizar - Fca. Muebles San Antonio*	41	Iñaki Kanpos - Haragetegia/Carnicería
	Iñaki Kanpos - Haragetegia/Carnicería	42*	*Iberduero*
32*	*Imeguisa*		Maria Angeles Vizcay
	Terrazos Onena	43	Zaldua e Irastorza - Iturgintza/Fontanería
33**	Pablo Murua - Haragetegia/Carnicería	52	Juan Maria Irizar - Gaseosas y sifones
	Construcciones Arruabarrena	53*	Irizar - Haragetegia/Carnicería
	Hermanos Arana - Autobusak/Autobuses		Juan Telleria - Arraindegia/Pescadería
34	*Hijos de A. Elosegi*		Miguel Echeverria - Arraindegia/Pescadería
35	*Vinos Elosegi*	54	*José Ramón Lasa - CEG*
36	*Juan Azurmendi - Fca. de Herraduras*	56**	Jose Osinalde
37	Jose Miguel Garmendia - Kontratista/Contratista		*Hermanos Arana* - Autobusak/Autobuses
38**	*Fateiba*		Jose Maria Bravo - Aroztegia/Carpintería
	M. Carmen Ruiz de Mendoza - Farmazia/Farmacia	60	*Sistiaga* - Margoak/Pinturas
39**	*Bar Fausto*	62	*Ugari - Autoservicio - Alimentación*
	Gurruchaga - Txangoak/Excursiones	68	Jose Ignacio Lasa - Argigintza/Electricidad
40**	Josetxo - Arraindegia/Pescadería		
	Pastelería - Sala juegos "Onena"		

* Tel. linearen titularren ondorengotza-hurrenkera / Secuencia sucesoria de titulares de la linea tfo.
** Tel. zk. partekatzen dute / Comparten Nº tfo.
Iturria: Propio landua, Sofia Muguruza Zangituk emandako informazioa eta 1922tik 1971ra bitartean fakturetatik eta publizitate-iragarkietatik ateratako datuak abiapuntutzat hartuta. / Fuente: Elaboración propia, a partir de información facilitada por Sofia Muguruza Zangitu y de los datos extractados de facturas y anuncios de publicidad desde 1922 hasta 1971.

228
Juan Jose Iparragirre Aldasoro

TALLER DE REPARACIÓN DE BICICLETAS DE JUAN JOSÉ IPARRAGIRRE -ALQUILERISTA-

Este local de la casa Zamora Berria, al cierre del locutorio y por un corto período de tiempo, fue utilizado por *Casa Pablo* para alojar huéspedes, hasta que se estableció en el mismo el *Taller de reparación de bicicletas Juan José Iparraguirre*, conocido como el *alquilerista*[155]. Llamábamos *alquilerista* al profesional que se ocupaba del alquiler y reparación de bicicletas.

En relación a la bicicleta en Ormaiztegi, pocos datos hemos obtenido, tenemos referencia de que a finales del siglo XIX Pablo Irizar Arzelus para desplazarse de Lazkao a Ormaiztegi se construyó su propia bicicleta, un poco más tarde, concretamente en 1901 se censa una única bicicleta en la localidad, perteneciente a José Antonio Elosegi[156], mientras que en 1939 eran setenta las bicicletas censadas[157]. Sin embargo la fabricación de bicicletas contó con tradición en Gipuzkoa, así hacia 1860 se estableció en Eibar *Orbea Hermanos*; *GAC* (*Garate, Anitua y Cía.*) se registró en 1872; *Beistegui Hermanos (BH)* arrancó a comienzos del siglo XX, etcétera.

Sin duda, es en las primeras décadas del siglo XX cuando se extendió el uso de la bicicleta, lo que propició el nacimiento de una nueva actividad, la de alquiler, reparación y venta de bicicletas. En esta situación, a mediados del pasado siglo XX eran frecuentes los establecimientos destinados a esta actividad, ya que si bien era generalizado su uso (que provocó demanda de arreglos y reparaciones) se trataba de un producto que no estaba al alcance de todos los sectores de la población y era habitual recurrir a su alquiler para cubrir las necesidades de locomoción.

El primer negocio de este tipo en Ormaiztegi fue regentado por Juan Mª Irizar Murua entre 1933 y 1937, como ya indicaremos en el apartado correspondiente a Arraitegi.

Hacia 1949, en la casa Zamora Berria Juan José Iparragirre Aldasoro (Mutiloa, Ugalde baserria, 1923) puso en marcha el taller de alquiler y reparación de bicicletas:

...trabajando en la fábrica de limas de Patricio Echeverria de Idiazabal, hacia 1946 emprendió su andadura profesional en torno a la bicicleta, en Ciclos Montero de Ordizia. Al año, aproximadamente, decidió independizarse, para lo que precisaba un local donde establecerse y habiéndose informado a través del Ayuntamiento de Ormaiztegi de la disponibilidad del local anteriormente dedicado a locutorio telefónico en los bajos de la casa Zamora Berria, procedió a su arrendamiento a Resurrección Elosegi... acondicionándolo como taller, con la instalación de una mesa de trabajo, herramientas suficientes y apertura de un pequeño escaparate. En 1961 accedió a la propiedad del local...

Entrevista realizada a Primi Iparragirre

La actividad principal de este establecimiento se centró en el alquiler y reparación de bicicletas. Debe considerarse que el parque de automóviles era exiguo y también limitado el de bicicletas, por lo que se ofrecía el servicio de alquiler por tiempo, inicialmente con dos unidades tipo bicicleta de señora. En la década de los cincuenta la bicicleta

229
Publizitatea, 1952
Publicidad, 1952

JUAN JOSE IPARRAGIRREREN BIZIKLETAK KONPONTZEKO TAILERRA -ALKILERISTA-

